

Katakrak argitaletxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturen irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, make-ta lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

McKenzie Wark

MAITASUNA ETA DIRUA
SEXUA ETA HERIOTZA
Memoria bat

McKenzie Wark

MAITASUNA ETA DIRUA
SEXUA ETA HERIOTZA
Memoria bat

Itzulpena: Danele Sarriugarte Mochales

Hitzatzea: Jokin Azpiazu Carballo



katakarak
liburuak

Jatorrizko izenburua (2023): *Love and Money, Sex and Death. A Memoir*

Egilea: **McKenzie Wark**

Jatorrizko lizentzia: © McKenzie Wark 2023

Itzulpena: **Danele Sarriugarte Mochales**

Hitzatzea: **Jokin Azpiazu Carballo**

Zuzenketa: **Amaia Apalauza**

Diseinua: **Koldo Atxaga Arnedo**

Jatorrizko argazkia: **Xabier Apestegui** aka dj reimy, 2019ko uztailaren 6an Katakraken

Lehenengo edizioa: 2024ko apirila

Edizioa eta maketazioa: **Katakra Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakra.net

www.katakra.net

@katakra54

Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza jaso du



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomertziala-Lan EratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopian, zabaldu eta jendartean erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-16946-99-0

ISNI: 0000 0005 1330 6065

Lege gordailua: NA 644-2024

Inprimaketa: **Alzate Grafikak**

AURKIBIDEA

0.1 (McKenzieri).....	11
-----------------------	----

BAT

Amak	27
1.1 (Joyceri)	29
1.2 (Joyceri)	43
1.3 (Sueri)	59

BI

Maitaleak	75
2.1 (Muri)	77
2.2 (Christeni)	95
2.3.....	113

HIRU

Beste batzuk	131
3.1 (Veronicari)	133
3.2 (Christeni)	153
3.3 (Jennyri).....	175

LAU

Epilogo.....	191
4.1 (McKenzieri)	193
4.2 (Eranskinak).....	217

HITZATZEA.....	223
----------------	-----

ARGITALETXEAREN OHARRA	235
------------------------------	-----

Norberaren egiazko bizitza hain da maiz norberak
gidatzen ez duena.

Oscar Wilde

0.1

MCKENZIERI

Little Richard gure jaioterrira etorri zenean, opari moduko bat utzi zigun. Australiako bira zela-eta heldu zen Newcastle-ra, 1957an, zu jaio baino lau urte lehenago. Txinparta bizi-bizkorra zen, rock and roll izeneko berritasun baten ikonoa. Gero, gure portuko urak zeharkatzen ari zela, haren bizitzak beste norabide batean jo zuen.

Zure bizitza ere norabidez aldatuko da behin baino gehiagotan. Etorkizunetik idazten ari natzaizu, zure etorkizun posible batetik behinik behin. Gutun bat poeta gazteari, non poeta gaztea ni neu bainaiz, due-la berrogei urte, apenas hogeitau nituela, eta non gutuna bera estalki bat baita beste gutun batzuentzat; beste batzuei zuzendutako gutunak dira, maitasunari eta di-ruari buruzkoak, sexuari eta heriotzari buruzkoak.

Zu: zer oroitzen dut zutaz? Gure iraganeko nor-tasunak, seguruena, gogotik berrikusitako edizioak dira. Ea zer bil dezakedan.

Saiatuko naiz aholkurik ez ematen, ez dituzu-eta inorenak aintzat hartzen. Ez dituzu inoiz bilatzen.

Ezinezkoa da zure mentorea izatea. Jende askok lagunduko dizu. Beharbada zure zauria ikusten dute, ezer eskatzea eragozten dizun zauria. Lagundu egingo dizute, nahiz eta bost axola zaizun, nahiz eta, are gehiago, kontra egiten diozun zaintzari. Maitasuna onartzeari.

Ez duzu asko pentsatzen honi buruz, baina errepikatu egin behar dut: gazterik galdu genuen ama, eta ez zitzaigun inoiz gustatu gure aita urrun eta suminkorra. Gure babesle titularrak, ustez mundua kontrolpean mantendu behar zuten bi helduak, ez zeuden inon. Horren ondorioz, mesfidatiak bihurtu ginen, axolagabeak, disoziatu egin ginen. Begiratu azken horren esanahia, gauza pila bat azaltzen ditu eta. Kimba lehoi zuriaren antzera —haurtzaroko telesail kutuna— bakarrik sentitzen zara munduan.

Jadanik konturatuta zaude ideia txarra dela mundua antolatzea merkatu eta gaixotasun apeta-tsuen meneko familia-unitate txiki isolatuen oinarrian. Mundu hobe bat nahi duzu. Iraganean mina hartu zenuenez, aurrera egin duzu, eta munduak ere gauza bera egin dezan nahi duzu. Momentuz ez duzu ikasi orainean bizitzen, eta oraindik-ez iraunkor baten eze-rezean irauten duzu.

Zure anaia-arrebak beren zauri propioez arduratu ziren ama hil ostean. Gazteena izanda, ez zinen gai horretaz ohartzeko. Haiek ez erortzea behar zenuen, zuri eusteko. Ahal zutena egin zuten, baina hori baino gehiago behar zenuen, eta arreta lortzeko moduak birlatzen hasi zinen.

Anaia nagusiak erre egiten zuen. Tabako-poto zahar bat aurkitu zenuen, arkatx muturrak paperean bildu, eta marka faltsu bat sortu zenuen: «Snazzies: erretzaile dotorearen zigarretak» izenarekin. Esketx gisa aurkeztu zenuen, eta maitagarria iruditu zitzaion



mundu guztiari. Haur helduagoek paretaren aurka bultzatzen zintuzten oraindik ere, eta gauzak lapurtzen zizkizuten, baina batzuetan haiek ere xarmatzen zenituen.

Zaugarri sentitzen zara, hauskor, irekiegi mundu zeharo ausazko baten aurrean. Trebea zara jadanik perimetroa zaintzen, arriskurik ba ote dagoen aztertzen, behar duzun guztia aldean duzula egiaztatzen. Sydneytik itzuli berri zara zure jaioterriara, eta abilezia horiek ondo etorriko zaizkizu.

Ez dezazula pentsa ahaztu egin zaidanik beste aldi hura, Newcastlera itzuli eta ikaskide ohi baten etxean geratu zinenekoa lotan, aitari bisitan joan ordez. Ez dezazula pentsa ahaztu egin zaidanik nola, diru-premia gorrian, belar-kaxatxo bat saldu zenion ustez atzean utzita zeneukan beste hari. Tipoa kexatu egin zitzaizun, kaxan ez zegoela bost dolar ordaintzeko adinakorik. Hartu edo utzi, esan zenion zuk. Hartu zuen, baina, gero, lagun handiagoak bidali zituen zure bila: autoan eserarazi, eta arauzko bost porroak biltzera behartu zintuzten, mehatxuka. Egin zenuen. Presiopeko grazia. Eta ahaztuta geratu zen kontu guztia. Lagunak berriro, elkarrekin erretzen autoan. Pikutara galtzaile horiek. Ez zara mundu horretan biziko inoiz gehiago.

Little Richardek alde egin zuen Macon-etik (Georgia), errepidean bizitzeko, oholtza gainean bizitzeko. Haren aita predikaria zen, eta gau-klub baten jabea ere bai. Little Richard inguru erlijioso batean hazi zen. Elizaren energia estasiatzeko eta hunkigarria gustatzen zitzaion gehien. Hango zirrara, hango bozkarioa eta errendizio sutsua, sufrimenduz, pobreziaz eta poliziaz jositako mundu arrazista batean. Zerikusirik ez

zure haurtzaroarekin, baina baliteke ezaugarri komun bat izatea halere.

Newcastlera itzuli zara bisita labur bat egitera; berriro ere altzairu-, ikatz- eta portu-giroan, kea jarioan eta hondartza okerrak. Asmatu zenuen handik hanka eginda, bigarren hezkuntza bukatu eta berehala. Hiri handi bat behar duzu, arraro bihurtzen uzteko bezain handia. Zure bizitza Wilde-ren estilokoa eta bitxia izan dadin nahi duzu. Motel, ez daukazu arrastorik ere.

Ez didazu entzungo, baina hitz egingo dizut hala ere. Horretarako beharra daukat beharbada. Nolabait ere iritsi behar dut mutiko nerabe mehe horrengana. Mutikoa? Gizona? Hori da arazoa. Edo arazoaren parte bat behintzat. Androginia duzu babesleku. Zure ikonoa Patti Smith da, *Horses* diskoaren azalean. Ile luzea daramazu, nesken bakeroak, nesken botak. Planta lirain horrekin, sarritan uste izaten dute neska bat zarela, eta zuk gustuko duzu. Egoera horiek iradokitzen dutenari —edozer dela ere— ihes egiten diozu. Desbideratu egiten zara beste edonora zure anbizioekin, politikarekin, idazketarekin eta beste ahalegin ez hain zorioneko batzuekin.

Desbideraketekin gertatzen dena da ezin duzula inoiz ikusi zer etorriko zaizun hurrengo kantoian.

Desbideraketek luze iraungo dute. Luzeegi, ziur aski. Zergatik ez diozu uzten zeure burua desbideratzeari? Edo, hobeto esanda, zergatik ez duzu zeure burua beste modu batean desbideratzen? Pentsa ezazu hainbat denbora-lerro paralelo daudela, desberdinak, eta denbora-lerro horietan trans gisa armairutik ateratzen zarela berrogei urterekin, hogeita hamar urterekin, edo... oraintxe bertan. Denbora-lerro horietako batzuetan, ni ez nintzateke hemen egongo, zuri etorkizunetik idazten. Denbora-lerro honetan, aldiz,

onik mantendu dugu geure burua, zain egon gara harik eta garaia iritsi den arte armairutik atera eta bizirik segitu ahal izateko. Little Richardek alde egin beharra zeukan, eta rock and rolla asmatu zuen horretarako. Erritmo bizia, baxu nahasia, biak uztartzearen estasia. Elizako bozkarioa, sakrifiziorik gabe. Batzuetan, drag jantzita jotzen zuen, Princess Lavonne izenpean. Bera —gizon zein emakume— ez zen zu bezalakoa, baina puntu horretan pixka bat berdinak zarete beharbada. Zuk bezala, berak ere emakume batzuen modukoa izan nahi zuen, eta emakume horiek maitatzen zituen. Neska zen, eta akaso bazekien, mailaren batean. Handik ateratzeko modu bakarra rock and rollaren itzulingerua hartzea zen, bere artearen itzulingerua.

Jadanik susmatzen duzu: zure poesia txarra da. Utzi. Prosa-idazlea zara. Kontua da alferregia zarela orrialde osoa betetzeko. Edonola ere, prosa irakurtzen duzu batez ere, prosa mordo bat, ama zenaren liburutegitik. Penguin argitaletxeko poltsiko-liburu merkeak, maisulan modernistak. Idazlan modernoak irakurtzen dituzu moderno bihurtzeko. Hezkuntza sozialdemokrata oso bat orrialde horixka zartatuetan barrena; badirudi lasterketa batean diharduzula, azidoak pape-
ra jan aurretik dena irakurtzeko ahaleginean. Kreditua eskaintzen dizute liburu-denda on batean; hala ere, lapurtu egiten diezu batzuetan, baina hori beste istorio bat da. Zientzia-fikzioak arreta pizten dizu baldin eta irakurleak espero duenarekiko arrotasun-sentipen moderno hori sortzen badu. Irakurtzen dituzun gauza asko txarrak dira, baina irakurriaren irakurriaz mundu honetatik beste mundu batzuetara iriste horrek premia bat asetzen du.

Eskolan, aspertu egiten zinen oro har, eta zeure kabuz irakurtzen zenuen. Liburuak —eta bestelakoak—

lortzeko beste iturria Australiako Alderdi Komunistaren egoitza lokala zen. Burkideak: gure mentore miragarrak. Bilera eraginkorrak gidatzeko gai naiz oraindik ere haiei esker. Komunismoa —ezagutzea axola zaizun beste gauza asko bezala— sentitu egiten duzu, pentsatu baino gehiago. Amaren oinazearen harira ezin zenuen ezer egin; eskulanaren oinazeak, berriz, ez du zertan izan heriotza bezain saihestezina.

Little Richard Australian jotzen zebilela, Sputnik satelite sobietarrak arku distiratsu bat osatu zuen zeruan. Aluminiozko orbita bat, tekno-soinuen arrasto bat utziz uhin motzeko irratian. Iragarpen bat zirudien, zerbaiten zantzua. Deika ari zen. Zerbait sakrifika-tu behar zen mundu-gerra hotz hartan, ika-mikaren mehatxuak biblikoa ematen baitzuen. Eta sakrifizioa egingo zen, Little Richardek egingo zuen zehazki, zu zeu jaio zinen hirian.

Alderdiaren barruti-bulegoan bi erretratu zeuden horman jarrita, Marx, eta haren ondoan Lenin, bizpahiru iltzerekin eutsita. Hirugarren lekua hutsik zegoen orain: bere garaian, Stalin eduki zuten. Beste aldean: Angela Davis burkidearen poster bizi bat. Kaperan bezala, amaren lekuan dago, parean dituela aita, semea eta espiritu santua. Bat iltzetik jaitsita jada.

Tanke sobietarrak Txekoslovakian sartu zirenean, 1968an, alderdia zatitu egin zen, leku guztietan bezala: tankeen aldeko eta tankeen kontrako fakzioak bereizi ziren.

Kasu ezohiko hartan, tankeen kontrakoak gailendu ziren —hau da, errusiarrak salatu zituztenak beste estatu sozialista bat inbaditzeagatik—. Ezker zaharra eta ezker berria nahasten ziren alderdian, zentralismo demokratikoaren arauen arabera elkarrekin ondo konpontzera behartuta. Burkideek elkartasuna

adierazten zioten oraindik iraultzari, nahiz eta erraie-
tan nabaritzen zuten jende garaitua zirela, kasu galdu
bat. Gutxienez, ez zuten amore eman, ez zuten onar-
tu. Eta beharbada horregatik hartzen zenituen heldu
gisa burkideak soilik, eta ez beste inor. Eta beharba-
da horregatik gordetzen ditut nik oraindik bihotzean,
eta horregatik jarraitzen dut idazten, beren borroka
amaiezina etorkizunera pasa dadin.

Sobietar Batasunak Afganistan inbaditu zue-
nean, 1979an, eztabaida bat antolatu zenuten adar
lokalean, eta hura gidatzeko ardura eman zizuten al-
derdiko zaharrek. Alderdiaren ildoaz azaldu zenuen,
baita gaitzetsi ere. Pragan eta, aurretik, Budapesten
tanke sobietarrak sartu zirenekoa gogoan zuten ki-
deengan zauri zaharrak ireki zenituen hala. Autoko
irratia bidez izan zenuen inbasioaren berri, gauez
gidatzen ari zinela landa-eremuko bide ilun batean;
Sydneyra bueltan zindoazen ahizparen landako etxe-
tik. Berriak entzun ostean, autoa geratu egin zen.
Ibiltzeari utzi zion, beste arrazoirik gabe, kurba itxi
batean. Argirik ez. Zeruertz distiratsuari begira, hau
pentsatu zenuen lehenik eta behin: kito, beraz. Gerra
nuklearra. Agur, Sydney. Autoaren zirkuitu elektrikoa
frijitua pultsu elektromagnetikoaren eraginez. Pentsa-
mendu horretan murgildu zinen tarte batez. Ondoren,
zalantzan jarri zenuen. Linterna bazebilenez, autotik
atera eta kapota zabaltu zenuen. Bateriaren kable bat
askatuta zegoen.

Istorio askoren gordailu bilakatu zinen. Burki-
deek zituzten azalean porroten orbainak, batzuk mundu
mailakoak: Espainiako gerra zibila, estalinismoa, Txi-
naren eta sobietarren arteko zatiketa, alderdiaren eta
beste hainbesteren sarraskia Indonesian, ezker berria-
ren porrota, Nkrumah-ren aurkako kolpeak Ghanan,

Allenderen aurkakoa Txilen. Baziren tokiko porrot batzuk ere, hala nola greba orokor bat antolatzeko aha-
legin huts egina, 1948an, eta Gerra Hotzaren urteetan
sindikalgintzan galdutako botere eskerga. Porrot ho-
riek maila pertsonalean sentitzen zenituen.

Beste zenbait borroka lokalen berri ere izan
zenuen. Nola egin zuten bat sindikatuarekin itsas ga-
rraioko ontziek: argiak itzali eta gero, ukabil-kolpeka.
Nola saihestu zituen alderdiak etxegabetzeak depre-
sioaren garaian: administratzaileak erreklamatu nahi
zuen jabegoa suntsituz. Edo nola Bob Hawke-k —lehen
ministro izango zen etorkizunean—, mozkor arrail
zihoala, mahaiaren azpian pixa egin zuen Maiatzaren
1eko ekitaldian, Newcastleko Langileen Klubeko Na-
matjira aretoan.

Zeure burua zeure burutik desbideratu duzu
politikaren bidez, baina, gero, desbideraketaren des-
bideraketa dago: arte politikoa. Bide aurreikusgarria
zu bezalako matxino burges-txikiarentzat. Kasualita-
tez topo egin zenuen Maurice Nadeauren *Histoire du
surréalisme* liburuarekin, eta une giltzarri bat iritsi zen
iraultza politikoaren eta estetikoaren arteko tentsioan.
Bidegurutze horren bila abiatu zinen.

Institutuan, zuk aurkitu zenuen beste inork
baino lehen Church kaleko Grand Hoteleko punk
rock eszena; kale berean zegoen zure aitaren arki-
tektura-estudioa. Talde bakarra zen ona, Pel Mel, eta
asteburuero jotzen zuten. Haien kantu batzuk barruan
dauzkat oraindik.

Zure jaioterri zaharreko erradikal politikoen
eta estetikoaren arteko espazio horretan ezagutu duzu
Glenn Hennessy. Zu baino zertxobait zaharragoa; la-
rrua jo nahi dizu, eta badakizu. Baina zutaz kezkatzen
da, serio hartzen zaitu, irakurtzen eta pentsatzen duen

pertsona gisa. Bazkaltzera gonbidatzen zaitu, zurekin hitz egitearren. Glenn gaya eta aborigena da, eta bi mundu horiekiko duzun kontzientzia pixka bat zabalitzen ari da. Mesedez, zaindu ezazu hobeto. «Gaya al naiz?», galdetzen diozu zeure buruari, badakit. Noski, batzuk gay dira eta kito, baina beste batzuentzat, zuretzat, norbera gauza mordoa izan daiteke, eta norbera aldatu egin daiteke. Beharbada fikzioa eta jabetza dira norberaren izateari denboran eusten dioten elementu bakarrak.

Badakit azken esaldi hori ulertuko duzula. Marxi orain arte irakurri diozunarekin, ohartuta zaude jabetzak taxutzen eta antolatzen duela guztia. Zeure kasa frantsesa ikasten ari zara, Rimbaud itzuliz, eta, «Je est un autre» esaldia irakurrita, hau ondorioztatu duzu: «Ni beste-norbait da»; norbera-izatea, bestea-izatea. Hamarraldiek aurrera egin ahala, era horretako deskubrimenduetan sakonduko dugu elkarrekin, zabaldu egingo ditugu, ugaritu. Fikzioak eta jabetzak lotzen dute norberaren izatea bere baitan eta lotzen dute denbora-lerroarekin.

Baina, hori egia ez balitz ere, jakin genezake?

Edonola ere, Glenn ez da larrutan egin nahi dizun lehen gizona, ezta azkena ere. Badakizu zaurgarria zarela arreta-mota horrekiko: batzuetan onbera da, beste batzuetan ez. Ikusten zaituztela sentitu behar duzu, heltzen zaituztela. Femenino sentitzeko beharra ere baduzu. Badaude behar hori ustiatzeko moduak, eta beti ez duzu jakin zure premiak asetzen transakzio horietan.

Ez dut esango neska bat zarenik, edo neska bat izan zarenik betidanik. Pertsona transexualen memoriak irakurri dituzu jada ezkutuan, eta ez duzu bat egiten «okerreko gorputzean jaio» izanaren istorio ho-



rrekin. Iruditzen zaizu zure gorputza, bere horretan, neska-gorputza dela jada. Jakina, beste nesken gorputzei inbidia diezu, aldaka eta titien kurbak, baina neska asko sentitzen dira horrela. Iruditzen zaizu zu zarela arregia, ez zure gorputza. Izatea lotzen duen jabetzetako bat da generoa. Beharbada pertsona transexual batzuek «betidanik jakingo» zuten, baina zuk ez. Zu beti zabilta jiraka generoan, itsumustuan huts egiten.

Luzaroan, «ahaztu» egin nuen istorio hau. Jakin nahi nuke zuk zeuk memoriatik kanporatu duzun jada:

Zure bizitzan ezagutu zenituen lehen emakume transak kaleko langileak ziren. Edo halakotzat jo zenituen behintzat. Zer ikusi zenuen haiek ikustean? Hemeretzi urterekin, Premier Lane deskubritu zenuen, kasualitatez. Sydneyko kale misterioitsu bat. Hiri-giro horixe maite duzu. Iluna eta estua eta existitzeko motibo agerikorik gabea. XVIII. mendeko lur-neurtzaile kolonial baten zorakeria klasea. Urtebete inguru daramazuz Sydney. Macquarie Unibertsitatean ikasten ari zara, iparraldeko kosta aspergarrian, eta Sydney Harbour Bridge zubia zeharkatzen duzu ekialdera joateko dibertitzera. Zaila izaten da autoa aparkatzea, eta txoko sekretuen bila ibiltzen zara. Hala egin duzu topo Premier Lane kalearekin, sexu-langile transen pasealekua.

Horren aurretik, dantzan ibili zara Darlinghurst-en. Autoaren bila itzuli, eta hara non aurkitu dituzun hiru neska ibilgailuaren gainean, gainaldean eta kapotan, transistore-irradi baten erritmora kantuan. «She's got... Bette Davis eyes!».¹ Autotik jaitsi dira, bizkor, barkamena eskatu dizute. Ez zaizula axola, zuk. Beren lekuari eutsi diote, hala ere. Begirada tinkoz, irakurri

1 «Bette Davisen begiak ditu!». Kim Carnes musikariaren kanturik ezagunenetako bat da, 1981ekoa. (Ohar guztiak itzultzailearenak dira).

egin zaituzte. Look berdina daukate hirurek: ile luzea, gona motza, ezpainak gorri, sare estiloko mediak. Iharrak, lirainak, zatatsiak. Zure adin bueltakoak. Haien gorputz-egitura zurearen hain antzekoa. Espitoso daude: ezagutzen duzu speeda dagoeneko. Berriketa urduria. Begi hutsak, handi eta ilun, argi guztia irens-teko. Ez duzu haien irudi garbirik gorde memorian niretzat, baina haien hitzak entzuten ditut, ebaki eta ehundu, gorputz zinetikoen artean, dantzan eta kantuz. «Bette Davis eyes!». Takoi-kolpeka kaleko malda piko samarrean. Festa egin nahi duzun galdetzen dizute. Ezetz, zuk.

Larritu egiten zaituzte, hainbat mailatan. Zer motatakoa zaren ikusten dute. Agerian jartzen dituzte zure kontraesanak, inhibizioak, aurreiritziak. Sexualitatearen harira, sexu-lanaren harira, klasearen harira, generoaren harira, nor zaren edo nor bilaka zaitezkeen pentsatzeko zure ezgaitasun erabatekoaren harira. Ez pentsatzeko eta ez sentitzeko aurkitzen dituzun modu ugarien harira —modu erabilgarriak izan zein ez—. Ikusten zaituztela sentitzen duzu, baina voyeur ere sentitzen zara: nahi gabe pausatu da zure begirada eszena horretan, eta orain eszenak soa itzultzen dizu.

Ni bihurtuko zara, iruditzen zaizunean posible dela ni bihurtzea eta bidean ez hiltzea. Gutun hau jasotzen baduzu: lortu dugu. Beharbada ez nizuke ezer azaldu behar. Agian zoriaren kontu hutsa da nola irauten dugun denboran. Edo, beharbada, jazzeko bakar-saio baten antzeko zerbait da: hainbat puntu daude ausaz sakabanatuta espazio harmonikoan, eta jotzaileak haiek aukeratzen ditu posible diren guztien artean. Maite ditugu Miles, Monk eta Coltrane-ren jazz-talde txikiak. Une bat beste batekin konektatzeko abentura da jazz. (Beste-bat da denbora). Badakit

jazza gidatzat duzula jada. Newcastletik Sydneyra joan zinenetik, eta, ez hori bakarrik, Sydneytik New Yorke-ra alde egiteaz amesten duzunetik, jazza —eta musika beltza oro har— modu on bat bihurtu zaizu Estatu Batuen historia sekretua ezagutzeko. Ez dezadan gauza gehiago kontatu zure garaiaren eta nirearen arteko jiretan eta biretan gertatu denaz. Nork esan lezake memoria fidagarriagoa denik aurreikuspena baino? Gure akatsak biderkatu egingo dira. Gure akatsak dira gure ondasun guztia. Eta ni bihurtzera eramango zaituzte. Gure akatsak gara gu, zu eta biok. Baina min egingo diozu Mu-ri. Ezin dut ezer egin hori eragozteko. Arnasa hartzen dugun bitartean damutuko zaigun gauza apurretako bat da.

Little Richardek Newcastlen aditu zuen deia. Batzuen arabera, Sydneyn gertatu zen; beste batzuen arabera, Newcastlen; guri dagokigunez, interesgarria da bigarren aukera. Portuko uretan, ferryan —txanelean, hala deitzen genion guk—. Jaungoikoak dei egin ziola pentsatu zuen. Eta, beharbada, hark deitu zion, eta akaso beste jainko batek. Taldekideei esan zien Jaungoikoa deika ari zitzaiola, han bertan txanelean, uretan, eta eskatzen ziola bere moduak aldatzeko. Taldekideek erantzun zioten, baldin eta serio ari baldin bazen, uretara bota beharko zituzkeela bere diamante eta perla ederrak. Eta hala egin zuen.

Behin eta berriro esan dut ez didazula entzungo, baina nik entzun al diezazuket? Saiatzen naiz. Zaharrek, batzuetan, ahaztu egiten dute zer iruditzen zitzaien hil ala bizikoa gaztetan. Sorpresaren, harriduraren eta bi-zi-bozkarioaren soinua. Aintzat hartu beharreko guztia argi eta garbi hots egiten, eta ez memoriaren korda higatuei lotuta. Nire adinkideak ikusten ditut nostalgian

ezkutatzen. Betiko talde zaharrak ikusten: ahulduta, burusoil eta asper-asper eginda.

Zu ez zaude aspertuta bizitzarekin, eta ni ere ez. Egia esan, norberaren genero ugariekin harreman zabalaz izanez gero, asperduratik salbatzeko besterik ez bada ere egin liteke trantsizioa. Jakin-mina berreskuratzeko, sorpresa desatseginak ekarriko balitu ere. Sexua aldatzeak gauza mordo batekin duzun harremana editatzen du. Historiarekin duzun harremana barne. Trantsizioa egin nuenetik, zure elektrizitatea aztertzen ibili naiz, zure bizi-grina, garai hartan ere urrun sentitzen zenuena gehiegitan. Bizi-grina hartatik desbideratzen zinen era askotako anbizioekin: pertsonalak, estetikoak, politikoak. Hori guztia bueltan ekarri nahi dut idazketa honetara. Zu aditzen ahalegindu nahi dut, nigan baitzaude oraindik. Beste gutunetan ikusiko duzun moduan, atzera egin nahi dut zaurietan barna. Idazketak gu idazten gaitu. Idazketa autorearen jaiotza da; testua, karenta.

Little Richardek eraztunak galdu zituen. Gerora, arrain australiarrek zeuzkatela esan izan zuen, brometan. Orain, nik dauzkat. Tira, metaforikoki bai behintzat. Norberaren diferentziaren printza. Urrunera abiatu nintzen zera horren bila, baina, nolabait esatearren, hantxe bertan zegoen, etxeko uretan.

AMAK

1.1

JOYCERI

Idatzi eta idatzi aritzen naiz denbora guztian, eta, zergatik galdetzen didatenean, ez dut jakiten zer erantzun. Australiara itzuli naiz bisitan; New Yorken bizi naiz. Deskribatu nahi dizkizut hostoen kolorea, txorien kantua, behiala elkarrekin bizi izan genuen guztia, nire zentzumenei tiraka ari baita dena, gure iraganera eramaten nau, eta dena bilakatzen da lauso eta miragarri, New Yorken urtea urteari pilatu ahala.

Biltegi batera eraman nau ahizpak; hantxe gordetzen da nire bizitza australiarreko eta trantsizioa egin aurreko garaiko puska galduren bat. Badaude metalezko apalategi batzuk; bi egun igaroko ditut haiek antolatzen. Liburu-ilara bikoitzak daude, ausazkoak-edo, abandonatuta eta goibel.

Hori guztia antolatzen dihardut, oraindik ere axola ahal zaizkidan gauza pertsonal apur batzuen bila. Hona hemen metalezko tabako-poto zaharra. Barruan, maitale ohien gutunak. Ikuskatu egin ditut, idazkera aztertu. Badakit kexa bera adierazten dutela denek. Hau da, gutunaren idazlea ezin dela nigan

iritsi, berarengandik ezkututzen naizela. Neure burua-
rengandik ezkututzen nintzen. Orain hori jakiteak ez
nau asetzen.

Gutunen artean, postal bat. Eraikin instituzio-
nal baten argazkia. Badakit, nolabait, ospitale bat dela.
Buelta eman diot postalari. Zure idazkera da, ama. Os-
pitale horretatik idazten didazu. Egon zinen azkenengo
lekua. Bat-bateko mozketa bat beste eszena batera:
ospitalean bisita egin nizunekoa. Aitarekin nago —
zure senarra— Newcastletik Sydneyrako auto-bidaia
luzean, Pazifikoko autopistan zehar. Sei urte ditut.
Bidaiak aspertzen nau. Crows Nesteko irteeraren alda-
menetik pasa gara. Izen bitxia, diot. Aitak isilik egoteko
eskatu dit. Eginahalak egiten ari da ez galtzeko.

Zerbait ekarri dizut. Paperezko kono bat da, eta
barrualdetik margotu dut kolore-arkatzekin. Paperezko
buru bat gehitu diot, laua. Printzesa bat da. Igande-
ko eskolan egin dut. Ez gara familia erlijiosoa. Esango
nuke ni etxean ez egoteko bidali nindutela kalearen
beste aldeko eskola baptistara. Aitari eta anai-arrebei
atseden emateko. Paperezko printzesari eusten diot
eskuekin. Ohartzen naiz ez dudala nahi bezain ondo
margotu. Aurpegi lotsagorrituak badu akats bat. Zati
bat margotu gabe dago. Baina ez daukat margorik he-
men, akatsa konpontzeko.

Erakutsi egin dizut. Aspaldiko une horretatik ge-
ratu zaidan sentipena zure dezepzioaren sentipena da.
Zure erreakzioa ez zen edonolakoa izan. Orain, gai naiz
zure larruan jartzeko, baina ez diot neure buruari uzten
zure sentipenetan sakontzen, nola sentituko ote zinen
ikusi zenuenean zure haur gazteena, auto-bidaiaren
ostean zertxobait zapuztuta, hitz eta pitz, ezer gerta-
tuko ez balitz bezala jokatzeko, eta aldi berean jakinik
ume hori amarik gabe gera zitekeela laster. Orduan zi-

nen baino zaharragoa naiz ni orain. Haurrak ditut nik ere. Horri buruz gehiegi pentsatzen badut, zure mina nire bihurtzen da. Ia.

Halakorik ez da agertzen zure postalean. Tonua arina da, ume bati zuzendua, zure idazkera eroarekin. Ospitalekoaz aparte, zure beste zortzi oroitzapen dauzkat zehazki. Ahizpari eskatu diot zuri buruzkoak kontatzeko, hain gutxi gogoratzen dudanez. Ahizpak dio Joyce Wark ausarta eta harroa eta barnerakoia zela. Ez zenituen zure sentimenduak erakusten. Zure sufri-mendua zuretzat gordeta joan zinen bizitza honetatik.

Zuri buruz ondoen ezagutzen dudana zure gustu literarioa da. Zure liburuz beteta eduki genuen etxea, zu joan eta gerora ere. Astebete pasa nuen zure liburuak alfabetikoki antolatzen. Behin, aitak opari eman zituen tapa gogorreko zure liburu pare bat, eta berarekin seko amorratu nintzen, nahiz eta ez jakin zergatik. Orain, esango nuke zurekiko lotura bat zirela liburuak. Zu aurkitzeko irakurtzen nituen. Modernismo literarioa atsegin zenuen. Eta joera horrekin kutsatu ninduten orrialde horituek. Joyceren *Ulices* ere bazeneukan, zeina debekatuta egon baitzen Australian denbora luzez.

Zutaz gordetzen dudana beste oroitzapen bakanetako bat: Cardiff-eko liburutegi publikora eraman ninduzun behin. Haurren sailean gaude. Haur-eskolaren ostean zen; astean behin eramaten ninduzun hara. Gogoko nuen. Gogoko nituen jolaskideak, bi neskato, baina ez ninduten inoiz gonbidatzen txirrista azpiko beren te-festa berezira. Harik eta, egun batean, gonbidatu ninduten arte. Te-zapore epela kikara txiki batean. Euria hasi zuen. Barrura joateko esan ziguten. Triste geratu nintzen, ez zidatelako berriro utzi beren te-jolasean aritzen. Beharbada horregatik eraman ninduzun liburutegira egun hartan, alaitzeko. Nire gogoan

presentzia goxo bat zara, giro onbera bat, baina ez dut zure irudirik gogoan. Liburutegiari dagokionez, liburu-
ruen kolore distiratsuekin akordatzeko naiz: lerro-lerro jarrita, apaletan; gorri, hori eta urdin primarioak. Liburu exotiko batzuk, more eta laranjak. Liburu bakar bat aukeratu behar nuen, baina denak nahi nituen.

Idazketa eman zenidan; horrek utzi ditu arras-
toak. Beste gauza batzuk ere emango zenizkidan. Maite ninduzun. Hori egia dela sentitzen dut. Ez daukat jakiteko modurik, ez daukat horren frogarik ez baldin bada nire gorputza, nire bizitza, eta maitatzeko gai naizela. Galdu zintudanetik, zailagoa egiten zait maita nazaten uztea. Nik neuk ez dut asko maite izan neure burua, egia esan. Idazle bihurtzeak bete zuen zu joan izanaren hutsunea. Badakit, egiaz, ez ninduzula abandonatu. Minbizia zeneukan. Sentimenduak ez dira egitateen edo arrazoiaren fruitu. Batzuetan, zulo bat osatzen dute beren inguruan eta iraun egiten dute, inork atzeman gabe. Trantsizioari ekin eta hormonak hartzen hasi nintzenean, nigana itzuli zen iragana, bere ezerezetik atera zen. Galera guztia, grina guztia, min guztia, eta, horrekin batera, idazteko bulkada hau ulertzea, idazketak zekarkidan babeslekua ulertzea. Idazten dudanean, zuri idazten dizut beti. Beti idazten diot nire amari, nigan utzi zenuen hutsune honi.

Beste oroitzapen bat: ohe handi batean gaude biok, eta Winnie the Pooh hartzatxoaren istorio bat irakurri didazu: gorputza globo bati lotu, eta airean flotatzen du Winniek, erleei ezitia lapurtzeko. Baina erleei ezin zaie ziririk sartu, eta Txerrikumek Christopher Robin-i deituko dio, globoari tiroa jo diezaion.

Ipuin hori irakurri zenidan. Gogoan dut, zeren istorio berbera irakurri nion behin nire haurrari, eta, irudiak ikusita, borborka itzuli zitzaidan oroitzape-

na. Irakurri zenidanean, istorioa ez zitzaidan gustatu. Bukaera ez zitzaidan gustatu, eta beste amaiera bat asmatzeko eskatu nizun. Eta globoak, bestalde, laranja izan behar zuen: nire kolore kutuna. Ez nekien irakurtzen, eta nire gaitasun motorrak hain ziren eskasak, ez bainintzen gai marrik irten gabe margotzeko, baina, une hartantxe, idazle bilakatu nintzen.

Berrogeita hamaluze urtez, zure postalari erantzuten ibili naiz. Irakurtzen nituen liburuen berri eman dizut, eta bestelako amaierak asmatu dizkiet. Eta, azkenik, beste-bat nintzela kontatu behar izan nizun. Transexual gisa agertu behar nuen, ez soilik munduaren aurrean, baita idatziz ere, zure aurrean.

Kontua da bi aldiz galdu zaitudala orain. Ez zinen egon nire lehenengo haurtzaroan, non mundu guztiak uste baitzuen mutikoa nintzela, eta batzuetan neronek ere sinesten bainuen hori. Eta, orain ere, neska gisa izan ez nuen haurtzaroan, ez zaude. Ez zaude hor beste norbait honen gutunak jasotzeko, eta ez zaude hor beste norbait hau ez ezagutzeko. Baina gutunak bidaltzen segitzen dut; hala egin dut beti. Hala egin behar dut.

Hogeita hamar urtez hutsuneari idatzi diot McKenzie Wark izena erabiliz. Ez dut inoiz ondo jakin zergatik. Zure amaren ezkongabe-abizena zen McKenzie, nire amonarena. Orain, seguru nago, nire bi izenen artean, Kenneth McKenzie, zuk bigarrena aukeratuko zenukeela. Beharbada seinale baten moduan erabiltzen dut McKenzie, zigilu gisa, ahanztura hutsean zehar jaurtitzen dut, jakin dezazun ni naizela eta behar zaitudala. Hemen izan zitezen behar nuela gutxienez.

Nolatan ahaztu nuen hori? Ahaztu nuen, eta ez nizun kontatu: zure idazmakina izandakoarekin hasi

nintzen idazten, benetan idazten. Maite nuen zure idazmakina, makina eramangarri lirain eta modernoa, gris argiz anodizatutako teklekin. Objektu hark bat egiten zuen nire haurtzaroko etxearekin, hango objektu modernoekin. Poemak idatzi nituen makina hartan, baita manifestu poetiko bat ere, noski.

Ez naiz oroitzen zu hura erabiltzen inoiz ikusi izanaz. Beharbada, ezkontzeaz batera, hura guztia baztertu behar izan zenuen. Ahizpak erakutsi dit zure psikologia-titulua, eta gerra bitartean eta gerraostean izan zenituen lan batzuekin lotutako dokumentu zenbait ere bai. Lan baterako gomendio bat idatzi zituzten, non nagusi ohi ergel batek goretsi egiten baititu zure mekanografia-gaitasuna eta literaturaren arloan duzun gustu zabal eta «ezohikoa». Gerraosteko «etxe-koandre» bilakatu aurretik izan zen hori. Ezin esan garai hartan aukera handirik zeneukanik eskura. Zure faltan, zer-nolako etxea sortu zenuen jakin nahi izan nuen. Etxeko zein zati ziren zureak, eta zein aitarenak? Estetikoki, esan nahi dut. Bazirudien gauza modernoen zaleak zinetela biak, baina gustu bera al zenuten? Baird telebistaren lerro karratuak. Snelling aulkiak, gerran sobratutako jausgailu-sare berrerabiliz osatuak. Nork aukeratu zituen? Kristal apainduzko jerez-pitxerra tokiz kanpo zegoela ematen zuen, erdiko klaseko beste etxe-eredu bateko aztarna balitz bezala, gure bizileku apal modernoa ez bezalakoa.

Hori zen Ross Kenneth Warkek, zure senarrak, nire aitak, arkitektoak, diseinatu zuen etxea. Zer izan zen zuretzat gizon horrekin ezkontzea, Sydneyko etxetik Newcastlea aldatzea, elkarbizitza hastea? Nekez irudikatzen dut gizon harengana sentitzen zenuen maitasuna. Orain beste aldea ere ezagutzen dudanez,

badakit haurarentzat pentsaezina dela gurasoen amodio-bizitza.

Harengandik urrundu nintzen, eta ezin nion zure eskuari heldu bizitzarako gida gisa. Ume hitzontzi bat nintzela zurekin hasitako elkarriketa amaitu egin zen. Nire buruan baino ez zuen segitu, hazi ahala isila eta barnerakoia bilakatu bainintzen. «Lotsatia» nintzela esaten zidaten. Zaletasun isil, bakarti bat garatu nuen gauzez betetako etxe hartan. Zure pianoa, zeina hautsa biltzen ari baitzen sotoan, desafinatuta.

Zuk eta aitag osatutako bikoteari buruz jakin dezakedan guztia zuen elkarbizitzak utzitako arrasto materialen oroitzapenetatik dator. Zure liburuak haren horma-apaletan. Haren nortasunaren lerro zorrotzak etxeak berak islatzen zituen. Harengandik beste modernismo bat ikasi nuen, zurea ez bezalakoa iruditzen zaidan modernismo bat. Hark sinesten zuen posible zela gauzak hobetzea gauzak hobeto eginez. Haren altzoan esertzen ninduen, eta arkitektura modernoari buruzko irudi-liburuak erakusten zizkidan. Halako inpresioa eragin zidan horrek, negar egin bainuen Frank Lloyd Wright-en Ur-jauziko etxea ikustera iritsi nintzenean.



Transexual bihurtzearen zeretako bat da gutako gehienok ezin dugula oinarri bila jo halako kultura transexual zabal batera, ez baitago halakorik. Gure bidea bilatu behar dugu, inguruko kultur materialak ebakiz eta itsatsiz. Berez, ez genuke halakorik egin beharko gauza horiekin. Berez, ez ginateke garena bilakatu beharko.

Ni orain naizena ez da, inondik ere, zure haurra bilaka zitekeela pentsa zenezakeen ezer. Iruditzen

zait hori guztia nola gertatu den azaltzea dagokidala. Nola jarraitu nion etxebizitza modernoaren lorratzari —hark diseinatua, zuk geure etxe bilakatua, zure bizitza— eta nola, aldi berean, lorratza desbideratu nuen.

Modernismoa zeharka ikasi nuen, etxe hartan bizitzearen poderioz: Rossek diseinatu zuen, berrogeiko hamarraldiaren erdialdean, Cardiff Heights-eko kale nagusian. Newcastleren ertzean. Arrastelezko kutxa txiki eta diafano bat, teilatu lauarekin, zintzur piko baten alboan ondo sartuta; azpiko bailara ikusten zen handik, baita Macquarie lakua eta harago ere. Han dago oraindik, hirurogeita hamabost urte geroago, franko aldatuta, landaretzan ezkutatuta oraindik.

Etxe hari estetika bat ikasi nion. Eskreszentzia oro kendutako estetika bat. Forma besterik lehenesten ez zuena. Estetika horretan, forma ez zen oro nabarmen geratzen zen. Kenketa bidezko forma bat zen hura. Horrek egiten zuen moderno. Estetika, bada, erauzketa-praktika bat zen: erauzi egiten zen ez-beharrezkotzat, zaharkitutzat, nahasgarritzat, gordintzat jotako oro. Etorkizunera iristeko, iraganarekin elkaritzen gintuzten lotura gehienak moztu behar izan ziren.

Bera hil baino ez askoz lehenago, elkarrekin bazkaldu genuen Rossek eta biok kostako hotel berri handi batean, Terrigal-en. Eraikina Rossek diseinatutako Florida hotela egondako lekuan kokatzen zen hain zuzen. Bere arkitektura-estudioaren —Mayo&Wark— lehen enkargu garrantzitsua izan zen. Leku ezaguna izan zen, hainbat urtez Alderdi Laboristaren estatu-mailako urteroko batzarra hantxe egin zelako.

Guk bazkaldu genuen garaian, eraikina desagertuta zegoen, eta handiago batek ordezkatzeko zuen; hotel-kate japoniarren baten jabetzakoa zen. Galdetu nion ea nola sentitzen zen horrekin, ikusita bere lehe-

nengo lan aipagarria, Florida, eraitsi eta ordezkatu egin zutela. Eten bat egin zuen; ondoren, soina goratu eta hau erantzun zidan: «Aurrerapena da». Horra hor modernismoa. Sentimentalismorik ez. Aurrera begira. Hobe da iraganaz askorik ez pentsatzea.

Ahaztu egin zintuen? Ez dut uste. Baina ahaztu egin zitzaion zuri buruzkoak kontatzea. Hamasei urte-ekin, nerabezaro maskulinoari jaramonik ez egiten ari nintzen, ez baininduen bereziki pozten, eta, horretarako, denbora asko pasatzen nuen liburu eta bizikleta artean. Iluntze batez, lasterketa-bizikleta bat eraikitzen ari nintzen, haren lerro garbi eta eraginkorrei so, eta, halako batean, Ross etorri zen, eta esan zidan: «Gaurko egunez duela hamar urte hil zen zure ama. Zutaz harro egongo litzateke». Ondoren, gelatik atera zen. Horixe izan zen dena. Zu aipatu zintuen aldi bakarra, oroitzen dudanaren neurrian. Hori ere modernismoa da. Iraganaren erabilera murrizta, haren gainean eraikitzeko oinarri balitz bezala, aurrera egiteko, gurpilaren jirabiran segitzeko.

Gure modernismoa probintziala zen, koloniala. Horren barne-kontraesanak argiago agertu zitzaizkidan Australiatik alde egin eta gero. Nire aitaren arbasoek aspalditik zeuden Australian, betiere estandar kolonialen arabera, eta horrek esan nahi du oso denbora gutxi zeramatela han. Gas-lantegi batera etorri ziren lanera, ingeniari. *Gas-argiaz* arduratzen ziren, literalki. Haien aurretik iluntasuna besterik egon ez balitz bezala jokatzeko zuten. Iraganarekiko axolagabetasun hori zuzenean lotuta dago Rossen axolagabeziarekin, eta nirearekin. Harengandik alde egin nahi nuenez, hari jasanezina iruditzen zitzaionarekiko interesa piztu zitzaidan. Hau da, «apaingarriekiko eta krimenarekiko» interesa, goi-modernismoaren apostolu Adolf Loos-

en hitzak erabiltzearen. Aurrerakuntzarekiko desira modernoak kanporatutako oro interesatzen zitzaidan. Modernismoaren Beste gaizto guztiak, aurrerapen unibertsalaren eskariz alderatuak eta baztertuak. Beltzegiak, kuirregiak, femeninoegiak edo, besterik gabe, garaiko plazerei lotuegiak. Edo iraultza-desira jakin batzuk zituztenak: iraultza-desira, nolabait esatearren, ez erabat eraikitzaileak.

Ez dut uste nitaz harro egongo zinenik jakin izan bazenu zer-nolakoak egiten nituen haren ezkutuan. Rossek gorpuzten eta gauzatzen zuen modernismo-motatik ateratzen ahalegindu nintzen, molde hori alderantzikatuz. Baldin eta, modernismoaren arabera, forma bazen egia, eta itxura ez, metafisika horri buelta eman zekioken. Itxura har zitekeen egiaztat, eta barne-esentzia edo -ideala, berriz, ilusiotzat. Horra hor estetika postmodernoa, haustura edipiko gisa.

Ni geratu nintzen barregarri. Postmoderno bihurtzea, azken batean, keinu modernoa errepikatzea zen, norberaren arbaso zertxobait irekiagoek ulertzeko modu batean. Ni bezalako norbaitentzat ez dago beste aukerarik, egiaz. Ez dago iraganik, ez dago arkadiarik. Baina ezta etorkizunik ere. Beharbada alboranzko denbora besterik ez daukagu gas-argiaren arduradun historikoengandik jaiotakook.

Modernoia izateak esan nahi du superstiziorik gabe bizitzen saiatzea, baina orduan nola azaldu nezake zure mamua ikusi nuen aldi hura? Hemezortzi urte nituen. Derrigorrezko hezkuntza bukatuta. Sydneyra alde egiteko zorian nintzen, unibertsitatean ikastera. Depresio sakona neukan, eta orain ohartzen naiz hori izan dela halako depresio bat izan dudane bakarra nire bizitzan. Lo ematen nuen egun osoa.



Sofan esnatzen nintzen, amesgaiztoen eraginez. Izua, non nengoen ez jakitea, bakardadea, beldurra. Orduan sentitu nuen zure presentzia, niri begira goitik, gupidarekin, maitasunarekin, eta aurrera egin nezakeela iruditu zitzaidan.

Nire izate modernoak ez du mamuetan sinesten. Baliteke nire izate modernoak pentsatzea zuk utzitako arrasto materialetan babestu nintzela. Ez zeunden han, baina objektu batzuk laga zenituen atzean, artefaktu materialak, aztarna gisa, froga gisa: erakusten zidaten nola bizi izan zenuen zure bizitza, nola bizi nezakeen nik nirea. Artea, baita idazketa ere, zure birtartez iritsi zitzaizkidan. Hona ni ere guraso bilakatu nintzenean ikasi nuen gauza bat: beste hainbat konturen artean, horixe zarela zure haurrentzat, bitartekari bat, hedabide bat. Masa-hedabideen aroko umea izan nintzen, erreprodukzio mekanikoaren garaiko haurra. Milaka lagunek zeuzkaten halako artefaktuak. Baina, niretzat, etxearen aura zekarten, etxearen parte ziren, munduaren eta zeure parte aldi berean. Zure faltan, espioi bihurtu nintzen etxean, zuk zaindutako etxean.

Lehen froga, beste sentikortasun bat adierazten zuen lehen arrastoa, akropoliari buruzko irudi-liburu handi bat izan zen. Arkitekturari buruzko marrazkietan, forma klasikoaren lerro garbiak; argazkietan, berriz, denboraren, zikinkeriaaren eta desintegrazioaren orbanak. Eta, oroz gainetik, harrigarriena, aztarnetatik abiatuta greziarren egiazko gustua irudikatzen zuten irudiak: kolore bizi-biziak. Ustezko ondare moderno baten ifrentzua ezagutzeko arrasto bat, erakusten zuena greziarrak ere bazirela beste zerbait, ez soilik ordena, batasuna, forma, eta zuritasuna.

Liburu-apaletan kuxkuxeatuz, poltsiko-liburu txikien sorta bat aurkitu nuen, hainbat artistari buruz-

ko koloretako estanpak zekartzana. Haiek al ziren zure kutunak? René Magritte, Raoul Dufy, Joan Miró, Paul Klee. Oroitzapen lauso bat dakarkidate gogora: gu biok sukaldean, akuarelekin margotzen. Laranja-arrastoak argizari-paper zurixkaren gainean. Liburuotan, hedatu egiten dira lerroak, zuzentasuna hausten dute, kolorez eta sentimenduz betetzen dira.

Diskoei dagokionez, swing-banda handien albumak genituen etxean: Count Basie, Duke Ellington. Modaz kanpo zeudela iruditzen zitzaidan, baina aztertu egin nituen hala ere. Jazzaren bidez ikasi nuen apaindurak baduela zerbait bat egiten duena neurritasunarekin. Ikasi nuen isiltasuna entzuten musikaren parte gisa. Ez dago esentziarik. Elkarren jiran dabiltzan xehetasunetatik eratzen da forma.

Esanguratsua da: Andy Warhol «kaxa»-ren bitartez ezagutu nuen —hala deitzen genion telebisitari—. Modernotasunaren beste aldean begiztatzerari iritsi nintzen kontu guztien artean —hango kolorea, eta glamourra, eta apaindura eta jolasa; hango itxurak eta egoera iragankorrak—, Warholek erakutsi zidan zer-nolako bestetasun-motaren parte izango nintzen egunen batean; bestetasun bat aldi berean zena modernoa eta modernoaren aurkakoa: transexualitatea.

Warhol baino gehiago, The Factory ezagutu nahi nuen.

Eta, bereziki, Candy Darling. Warholen hiru jainkosa transetan politena zen. Ez dakit noiz egin zuen distira haren irudiak nire munduan, baina hasiera-hasieratik maite izan nuen. Richard Avedonen argazkien liburu bat lapurtu nuen nerabetan, eta badago irudi bat non Warholen Factory ohiko kideak agertzen baitira, tartean Candy. Haren gorputz biluziak, titi eta zakil, txunditu egin ninduen.

Transexualitatea, teknikoki, modernoa da, baina pentsatzen hasita nago baduela halaber zerbait antzinakoa. Beharbada, gorputz sexuatuak ez du esentziarik. Haragia beti da bestea.

Desbideratu daiteke, garatu, apaindu, hainbat norabidetan, nahiz eta ahalegina eskatzen duen. Hargia moztu eta tolestu dugu. Testua nola, collagea nola. Horri buruzko zerbait irakatsi zenidan, formari buruzko zerbait, zeure artearen bidez. Ez nuke esango denbora asko zeneukanik zure arteari eskaintzeko, gerraosteko etxekoandarearen moldearekin bat egitera behartuta. Ez nuke esango denbora asko zeneukanik soilik zuretzat. Lore-sortak atontzea gustatzen zitzaizun. *Ikebana*, loreen arte japoniarra, modan egon zen hirurogeiko hamarraldian. Bazeneukan gai horri buruzko liburu bat. Gogoan dut zurtoin moztuen usaina. Zure inauskaiak; ez zidaten haiek ukitzen uzten. Loreontziak.

Elementu gutxi batzuekin halako gauza politik sortu eta erakusgai jartzen zenituen bitartean, zuri so egoten nintzen. Elementu distiratsu eta kurbadunak, inguruko lerro hotz eta gogorren aurka. Han egoten ziren egun batzuetan, eta desagertu egiten ziren gero. Halakoa izan baninteke ni ere. Zuk jarritako lore bat, ttak, goxo zure eskuetan. Edo paperezko printzesa soil bat. Apaingarri, mundua apaintzen duen beste guztia-rekin batera. Nahikoa zatekeen.

Nire ahizpa nagusiak dio «buru-irekia» zine-la. Baina eskua heldu izan diet, eta malkoak lehortu, halako gurasoen haur izandako transexual askori. Batzuetan, generoa indartsuagoa da maitasuna baino. Bizi bazina, zure aurrean ere agertu banintz horrela —nire forma moztu eta tolestuan—, ni maitatzen segituko zenuen? Ezin dut jakin. Ez dut jakin nahi.

1.2

JOYCERI

Badaude gu bion argazki batzuk, oinez ibiltzen erakutsi zenidanekoak. Ama eta haurra, eta haurrak igeltsutan bilduta dauzka bi hankak. Kontatu izan ditate igeltsu eta guzti ikasi nuela oinez; familiako istorio bat da, baina, froga fotografikoak ikustean, egitate hori beste zerbait bilakatzen da. Argazkiak pendrive batean eman zizkidan nebak, lizunak hartutako diapositiba batzuk —familia-argazki zaharrak— digitalizatu eta gero. Ez dakit zer den oroitzapena eta zer bitarteko, bereziki zure kasuan. Beraz, hemen ari natzaizu berriro ere idazten.

Trantsizioa egiten denean beste sexu batera, iragana beste euskarri batean itzultzen da. Oroitzape-nek ez dute azaltzen nor zinen, baizik eta nor ez zinen. Ez nintzena izan nintzen oso denbora luzez. Trantsizioak iragan-erauntsiak ekartzen ditu bueltan. Etxeko film osatugabe baterako hartualdiak. Memoria editatu behar izan nuen, hala nola editatu nuen haragia. Horrela geratu da, gutxi gorabehera.

Txikitan, antzerkia egitea gustatzen zitzaidan. Gogoan dut biluzik egoten nintzela gelan, neuk asmatutako superheroien larruan sartuta, telebistako marrazki bizidun japoniarrak eredutzat hartuta. Atrez-zo gisa, gelako elementuak erabiltzen nituen, edozein izanda ere. Plastikozko arku bat hartu, eta gerrian jartzen nuen, soka bizkarrean, arkuak hego ikusezinak balitu bezala, kurbatuak, zilborraren inguruan. Marrazki bizidunetako distira-kolpe batek haragia zeharkatu zidan, eta Gezi Neska bihurtu nintzen. Ondoren, neska hark arkua kendu zuen gorputzetik, eta halakorik inoiz gertatu ez balitz bezala jokatu zuen. Eta itxurak egiten jarraitu zuen, luzaro.

Berrogeita hamaluz urte geroago, trantsizioa-ri ekin nionean eta nire bizitzari buruzko filmaren edizioa gainbehera etorri zenean, eszena mordo bat moztu nituen, baina bi geratu ziren. Nire haurtzaroan ez zen gertakari handirik izan, eta bi eszena horiek, beraz, nabarmendu egiten dira.

Betidanik nabarmendu izan dira. Baina zer-nola-ko lotura duten istorio honekin orain, hor dago koska. Biak dira gauza txarrak. Txarrenen artean bigarrena-ekin hasiko naiz. Txikia nintzela gertatu zitzaizkidan gauza txarren artean bigarren txarrena hau izan zen: aitak, bere altzoan hartu, eta hil egin zinela esan zidan. Guztiz bestelako distira batek zeharkatu ninduen orduan. Ez nintzen beste norbait bilakatu. Ezerez bila-katu nintzen. Hori da oroitzen ditudan gauza txarren artean bigarren txarrena.

Guztietan txarrena bestelako une bat izan zen. Ez dut horretaz pentsatu oso-oso denbora luzean. Haur bati gertatu ahal zaizkion gauza guztien eskalan, ez da hain txarra. Nire kasuan izan ezik. Kontuan hartuta zer esaten ari naizen, hau da, haur bati gerta dakizkiokeen



gauza txar guztien artean ama galtzea dela bigarren txarrena, eta kontuan hartu zuri esaten ari naizela hori, azalpenak ematea dagokit.

Zu hil eta gutxira, Newcastleko Royal ospitalean nengoen. Garai hartan, Newcastleko hondartzaren pare-parean zegoen erietxea. Batzuetan, olatuak entzuten ziren. Pediatrian nengoen. Ondo dakizun moduan, hankaoker jaio nintzen. Bi oinak barrurantz biratzen zitzaizkidan, eta beherantz egiten zuten. Haurtxoa nintzela, ebakuntza bat egin zidaten. Hori agertzen da nebak emandako argazkietan: hor nago ni, oinez ibiltzen ikasten bi zangoak igeltsutan bilduak ditudala, eta zu niri laguntzen. Ez dirudi oso pozik nagoenik. Hori baino gehiago, badirudi erabakita nagoela, irmotasun osoz, bipedo bihurtzera.

Beste hainbat saiakera egin zituzten nire oinak zuzentzeko. Tramankulu bat lotzen zidaten gauero, oinak kanporantz behartzeko. Aitak, dirua aurreztu nahian, Meccano piezekin eraiki nahi izan zuen, baina behin eta berriz laxatzen ziren azkoinak eta torlojuak, eta maindireak zulatzen zituzten. Aparatu kirurgikoa ordaindu behar izan zuen azkenean, baita maindire berriak erosi ere.

Hanketako lokailua tormentu hutsa zen. Bizkarrez nentzala, ez nintzen gai begiak itxi eta lokartzeko. Gaur egun ere ez naiz gai. Hor egoten naiz etzanda, esna, iluntasunari begira. Nire logela oso iluna zen. Gogoko nituen belztasun ia erabatekoan begiak zabalik mantenduz gero sortzen ziren patroiak. Ikusgai zegoen oro desegin zitekeen, eta jiraka hasi. Patroietatik irudiak sortzen ziren, eta irudietatik, berriz, istorioak.

Telebistako istoriorik onena eta aldi berean bel-durgarriena *Doctor Who* zientzia-fikziozko telesaila zen. Saioaren hasierako abestiak —*tape loop* estiloan egina—

beste dimentsio baterako ataria irekitzen zuen, eta dimentsio hori zabalagoa zen programa igortzen zuen kaxa baino. *Doctor Whoko* gaiztorik gaiztoenak Dalek robot estralurtarrak ziren. Kosta egiten zait sinestea zer izugarriak iruditzen zitzaizkidan garai hartan.

Duela ez asko, nire haur nagusia eta biok *Doctor Whoren* museoa ikustera joan ginen —Londresen dago—, eta telesailean erabilitako Dalek batzuk zeuzkaten erakusgai. Museoko gidak argazki bat atera zigun haiekin. Berez, laserrarekin tiro egin behar genien argazkirako, baina nik ez nuen nahi. Hain ziruditen zaurgarriak. Egur kontratxapatua, kartoia eta kola besterik ez ziren. Txikitan, Dalekei buruzkoa zen loak hartzeko orduan neure buruari azaltzen nizkion ipuinen artean gogokoenetakoa nuen bat. Lotuta naukate gela huts batean. Lo hartu behar dut. Lokartzen ez banaiz, Dalekek akabatu egingo naute. (Horixe egingo dute.) Dalekak nire gelara etortzen dira behin eta berriro, lo ote nagoen egiaztatzerara. Nik itxurak egiten ditut. Baina badago Dalek bat besteak ez bezalakoa; nire laguna da. Laranja da. Ez dakit nondik zetorren kolore hori, gure telebista zuri-beltzekoa baitzen. Dalek horrek badaki, eta onartzen du, begiak zabalik egiten dudala lo, mundu ikusezinean patroiak aurkituz.

Oinetan beste ebakuntza-sorta bat egin zidaten zazpi urte nituela. Ospitale publikoan nengoen. Lehenik oin bat egin zidaten, gero bestea. Lehenengo aldia apur bat nahasgarria izan zen. Gau bat ospitalean. Nire ohearen gainean, seinale misteriotso bat: «Nil per os». Biharamunean, gose nintzen. Esku-ohe batean eramaten ninduten ospitalean barrena: labirinto amai-gabe bat zirudien. Erizainak janzkera eta kapela zuriz. Usain antiseptikoa. Goma beltzeko maskara handi bat aurpegian. Lokarrarazi ninduen gasaren usaina, hama-

rrera zenbatu bitartean. Kordea galdu baino segundo bat lehenago, joan nahi ez izatea. Pentsatzen dut halako zerbait izango dela hiltzea.

Esnatu nintzenean, ez nekien non nengoen. Ez nengoen ohiko solairuan, espazio krepuskular batean baizik, eta beharbada han ez nukeen esna egon behar. Edo, agian, okerreko munduan esnatu nintzen. Begiak itxi, eta lo-plantak egin nituen. Halako batean, logelara eraman ninduten berriro. Eskuineko hanka eduki behar nukeen lekuan sentsazio bitxi bat nabaritzen nuen. Nire hankaren ordeztan han beste zerbait balego bezala. Berez, nire oinaren bertsio hobe bat izan behar zuen, baina erpe erraldoi bat jarri zidatela iruditzen zitzaidan: kanpotik uki nezakeen, baina barrutik ez nuen sentitzen.

Arratsaldea ez zen horren gaizki joan. Nire anai-arreba nagusiak etorri ziren; ordurako, nerabeak ziren biak. Zu hil eta gero, ordeztako guraso bihurtu ziren nolabait ere. Senartzat hartu zenuen gizona, azkenean ere, aita ok bat izan zen. Garai hartako beste gizon mordo bat bezalaxe, etxeko kontuak atzerria ziren berarentzat. Pentsatuko duzun moduan, maitekorra zen, baina oso urruna, eta erraz ernegatzen zen. Ezaguna egiten al zaizu?

Zure seme-alaba nagusiek maite ninduten. Hain zen indartsua haiei eman zenien maitasuna, niganaino iritsi baitzen; seguru nago horretaz. Ospitalean nengoela, janaria eta kapritxoak eta piztia mitikoei zein magikoei buruzko ipuin-liburu bat ekarri zidaten. Joan zirenean, ez neukan irakurtzeko gogorik, baina irudiei begira egon nintzen, eta pelikulak asmatu nituen nire buruan. Krisalida baten barruan gordetako piztia nintzela sentitzen nuen. Alanbrezko egitura bat jarri zidaten hanken gainean, kanoi-ganga itxurakoa,

tapakiari goian eusteko. Han ezkutatu nituen liburua eta goxokiak. Solairu hartan, beste hogeita hamar bat ume zeuden, galerian zeudenak zenbatu gabe. Argiak kentzeko ordua iristen zenean, banekien zer egin, bigarren gaua nuen eta. Zaila izango zitzaidan loak hartzea begiak itxita eta ahoz gora etzanda. Oraindik ez zegoen guztiz ilun, eta ezin nion ezerezari so egin, baina saiatu nintzen. Erizainak errieta egiten zidan, begiak ixteko eta ixteko.

Bigarren gaua nuenez, banekien gai nintzela hori dena jasateko. Egoera berriek larritu egiten ninduten, ezagutzen nuenaren heriotzarekin muga egiten baitzuten, baina ospitaleko sail hura ezagutzen nuen jada. Ez, ordea, haur berria. Beste aldean zegoen. Ez nuen ondo ikusten. Ni baino gazteagoa zenez, mespretxuz begiratzen nion jada. Lo zegoela zirudien. Ondoren, esnatu egin zen, izututa eta bakarrik. Amari deika hasi zen. Gelditu gabe.

Gaueko txandako erizainak bereak eta bi egin zituen haurra baretzeko. Mutikoak amari deika segitzen zuen, behin eta berriro. Ahots hain desesperatua, hain galdua, premia erabatekoaren intziria. Ezerk ez zuen lasaitzen. Hasieran, deiadar biziak ziren, larriak. Ondoren, halako kadentzia batean finkatu ziren, itxaropenik ez duen animalia baten erreguak. Bere buruari erritmoa ezartzen ari balitzaio bezala, jakingo balu bezala gau osoan egingo zuela negar. Hala izan zen. Saileko haur gehienak esnatu zituen, deika eta deika. Ume batzuk saiatu ziren hura lasaitzen, baina gehienek garrasi egin zioten, isilik egoteko esan. Erizainak bi zeregin zituen orain: haur gabetua lasaitzea eta hark esnatutakoez ere arduratzea. Nik ez nuen ezer esan.

Hori ulertzeko, beharrezkoak izan zaizkit berrogeita hamar urte eta trantsizioa: haserre nengoen

ume harekin, eta, gero, lotsatu egin nintzen ez niolako jaramonik egin haren sufrimenduari. Haren alde egon behar nukeen, baina gau hartan ez nengoen. Nire memorian, lotsa-sentipena gailendu zen. Eta ahaztu egin zitzaidan zergatik haserretu nintzen berarekin lehenik eta behin.

Gau hartan, sabaia begira Dalekei buruzko istorioak asmatzeko asmoa neukan: Dalek laranja bixia matxinatu egingo zen eta babestu egingo ninduen beste guztien aurka. Ez ninduen hilko, lokartzen ez banintzen ere. Eta haur horrekin haserretu nintzen zeren bere ama bila etorriko zitzaion unereren batean. Baina zu ezin zinen nigana etorriko. Ume harekin amorratu nintzen berak amari deitzen ahal ziolako, eta nik ez.

Berrogeita hamar urte pasa ostean eta trantsizioa egin bitartean ulertu dudan beste gauza bat: kontua ez zen, soilik, haur horrek bere amari deitu ahal ziola eta nik ez; kontua zen, halaber, ospitale batean ikusi zintudala nik zu azkenengo aldiz. Ospitale batean hil zinen. Ospitalea, beraz, Dalek gaizto baten modukoa zen: grisa eta teknikoa. Eta zu eraman zintuen. Hil zintuen gauza horrekin amorratuta nengoen.

Eta, horregatik, okerragoa iruditzen zait gau hori, aitik hil egin zinela esan zidan unea baino. Hona hemen haur bat bere amari deika —nik egin ezin nuena, alegia—, non eta zu eraman zintuen lekuan. Deitze-ra ausartzen banintzen, zu eraman zintuen zuloak ni ere irentsiko ninduen beharbada. Ezkerreko hankako ebakuntza ez zen irten eskuinekoa bezain ondo. Minnez segitzen nuen. Nire kirurgialaria, Gordon Kerridge, gelara etorri zen gauaren erdian. Hasteko, hanka odolletan neukan, eta igeltsua zeharkatu zuen odolak. Erizain batek errotuladore beltzez inguratu zuen or-bana. Baina marra beltzetik harago hedatu zen jariora.

Erizainak «Nil per os» kartela jarri zuen berriro ere nire ohearen gainean. Biharamunean, goseak berriro, beste ebakuntza bat egin zidaten, eta konpondu beharrekoa konpondu zuten.

Gero, hilabete batzuk eman nituen erietxean. Bi hankak igeltsutan bilduta. Asperdura-garaia. Galeria-
ra eraman ninduten; han, behintzat, eguzkiaren argia sartzen zen, baita itsasoaren soinua ere.

Galeriako paziente gehienak epe luzekoak ziren. Nire adineko mutil baten laguna egin nintzen. Haren ohera joaten nintzen bisitan, bera nirera. Nire ohearen gaineko kaiola ganga-itxurakoan ezkutatzen saiatu ginen behin, baina ez ginen sartzen: gu biok batera, eta nire igeltsuak. Gure abesti kutunak kantatu genizkion elkarri. Nirea ahaztu dut. Berea «Ring of fire» zen. Suabe-suabe kantatzen zuen, besteek ez entzuteko eran. Giltzurrunekin lotutako zerbaitegatik zegoen ospitalean. Esan zidan egunen batean, ziur aski, kaxa beltz batean eramango zutela betirako. Halako batean, desagertu egin zen, eta ez zen inoiz itzuli. Ez zidaten esan bera jarri zuten kaxa beltza zen ala ez.

Hilabete batzuen buruan, jaka zuridun gizon batek nire oin berriak desobiratu zituen zerra elektriko batekin. Barruko azala lehor zegoen, narrasti. Oinek ez ziruditen nire oinak, txerto estralurtarrak baizik. Orduan hasi nuen berriro oinez ikasteko prozesu luzea. Zurekin eta igeltsutan bilduta ikasi nuen lehen aldi hartan bezala. Oraingoan, zu gabe, makuluekin. Zoruak bira egiten zuen. Itsasoko izaki bat nintzen, mugimendu bakarrean lehorreko izaki bilakatzeko ahaleginean. Egunetik egunera ariketa gehiago, trantsizioa egin nezana, atzera ere, zutikako bizitzara.

Ez nuela inoiz lortuko ematen zuen, baina halako batean oinez nenbilen berriro. Beste modu batean,

ordea. Hasieran arraro sentitu arren, geroz eta errazago
nenbilen oinez, eta oinez ibiltzea bera prozesu arina-
goa bihurtu zen. Arineketan egitea zaila zen oraindik.
«Wark: oinez bai, korrika ez!».² Lehertu arte barre egi-
ten zuten beste haurrek horrekin. Korrikaldi azkar bat
egin nezakeen, baina hori bakarrik. Gaur egun ere ez
dut arkurik oinetan. Orkatilak ozta-ozta biratzen ditut.
Ez daukat zangosagarrik, giharrak ezin baitio ezeri tira
egin. Ebakuntza, dena den, esperimentu arrakasta-
tsutzat jo zuten. Egiatzko bipedo bihurtu nintzen; edo,
behinik behin, *passinga* nuen.

Gordon Kerridgek egin zituen nire oinak. Ha-
ragizko eskultura txikiak dira, gizon hark eta haren
taldeak niretzat eginak. Teknika horrek zutik man-
tendu ninduen luzaro. Berrogeita hamar urte geroago,
kosta egiten zait berriro ere oinez ibiltzea. Ezin naiz,
garai batean bezala, noraezean ibili, hirietako kale gal-
duak deskubritzen, baina dantza egiten dut oraindik.
Berrogeita hamar urte iraunaldi polita da edozein tek-
nologiarentzat.

Trantsizioa egiten hasi nintzenean, istorio eta
irudi ezezagun guztiek bat egin zuten azkenean. Me-
moria editatu nuen, gorputza editatu nuen moduan.
Inork ezer uler dezakeen neurrian, hau ulertu nuen
nik: Gezi Neska lurperatu nuela, sakon lurperatu ere;
nire bizitzaren gidoitik kendu nuen, eta genero-tran-
tsizioaren nozioari uko egin nion; trantsizio bat egina
nuen jada, eta ezin nuen beste bat jasan.

Nire trantsizioa zazpi urte nituela gertatu zen.
Bipedo bilakatzeko trantsizioa. Edo, gutxienez, bipe-

2 Jatorrizkoan, «Wark can't run!», hau da, Warkek ezin du korrika egin.
Hitz-jokoa eta iraina autorearen abizenarekin lotuta daude, ingelesez
aski antzera ahoskatzen dira izen hori eta «to walk» aditza, oinez ibiltzea.

doaren *passinga* izatekoa. Hil zintuen leku antiseptikora joan nintzen. Nire bizialdi laburreko gaurik txarrena pasa nuen. Ez hilda zeundela jakin nuen gaua, ezpada nigandik betirako joana zinela oroitarazi zidaten gaua. Zu eraman zintuen lekuan ikasi nuen hutsala zela deiadar egitea ere.

Adituen eskuetan jarri ninduten, eta buru-belarri saiatu ziren nire gorputza aldatzen ebakuntza esperimentalen bidez. Nire kasuan, ondo atera zen, neurri bateraino behintzat. Normalean, zerbait ezagutzen badut, ez zait horren mehatxagarria eta horren zaila iruditzen, baina kirurgiarekin kontrakoa gertatzen zait. Ez nuen berriro halakorik bizi nahi, inolaz ere.

Edo hori uste nuen. Nire izate transexualaren lehen zirriborroa osatu nuenean, ausartu nintzen genero-trantsizioko ebakuntza batzuk behintzat egiteko aukera aztertzeraz. Kanpoko pazienteentzako prozedura soil batekin hasi nintzen. Halakoetan, oinez ibiltzeko gai izan bezain pronto bidaltzen zaituzte etxera. Ez duzu gaurik igaro behar ospitalean, lo egin ezinik. Nire gorputzari egindako lehen edizio-lana orkiektomia bat izan zen. Zikiratzea izendatzeko modu dotore bat da. Barrabilak bakarrik mozten dizkizute.

Prestaketa erraz joan zen. Gauzarik zailena, emozionalki, AEBko osasun-aseguruen sistemarekin ika-mikan ibiltzea izan zen. Ebakuntzaren bezperan, prozeduraren aurreko jarraibideak ez dira «Nil per os» izendatzen, baina gauza bera izan zen halere. Janaririk ez hogeita lau orduz. Goseak nengoen, baina prest.

Ospitalera Christen-ek eraman ninduen. Artean ere ezkondata geunden, elkarrekin bizi ginen. Erietxean bestelako usain antiseptiko bat dago, eta madalena horrek ez nau iraganera eramaten. Koloreak eta soinuak

ere desberdinak dira, hots digitalak denak ere, argi eta garbi. Uniformeak bestelakoak dira. Ebakuntza-gela hotzera eramaten naute ohatila batean. Tapaki elektriko bat gainean jartzen didate. Makina onberak nonahi. Argi laranjen kliskak. Telebistako plato bat bezain distiratsua guztia. Dena ondo doa, plastikozko maskara garden bat aurpegian jartzen didaten arte.

Esaten didatenaren arabera, oxigenoa baino ez da; anestesia zainetatik sartuko didate. Gasak ez du usainik. Baina maskarak eramaten nau iraganera. Maskara hau plastikozkoa da, gardena, baina lehen aldiz oroitzen dut zazpi urterekin jarri zidatena goma beltzezkoa zela. Goma beltzaren usaina. Eta gogoan dut elementu horrek okerragotu zituela bai gauzarik txarrena bai gauzarik txarrenen artean bigarrena. Maskara nire aurpegian.

Azken kontzientzia-segundoak konortea galdu aurretik: esna mantentzeko borroka. Begiak ixten ditut, kontzentratzeko. Ezin diot eutsi. Oroitzen dudana azken gauza, pentsamendu hau: beharbada horrelakoa izango zela zure kontzientziaren azken momentua. Segundo beltz horretan, zugandik gertu nago berriro. Azkenean. Gauzarik txarrenak baino txarragoa da, nire alderdi batek horixe nahi du eta.

Orkiektomiaren ostean osatzea erraza izan zen. Egun batzuk geroago, dantza egitera atera nintzen. Baina ez dut ebakuntza gehiago egingo, saihestu ahal badut behintzat. Bizitza osoa eman dut erabat bipedoa eman gabe; beraz, erabat emakumea eman gabe pasa beharko ditut nire azken urteak. Dena den, hirurogei urte pasa ditut orain: zuk ez zenuen adin hori ezagutu. Emakume zahar bat naizenez, munduan betetzen dudana presentzia fisikoa, edozein generotakoa izanda

ere, ez zaio inori axola. Hormonak hartzen ditut, *femme* janzten naiz, aldakak kulunkatuz nabil.

Noizean behin, hau galdetzen didate, mehatxu-tonuan: gizona ala emakumea zara? Ezin dudanez korrika alde egin, normalean hala erantzuten dut: bai.

Beharbada, nire generoa Dalek laranja dela esan beharko nieke. Kartoiz eta kolaz eginda daude, eta, nik bezala, arazoak dituzte eskailerekin, baina munduko gauzarik beldurgarriena dira oraindik ere.



1.3

SUE-RI

Ohore handia iruditzen zitzaion zazpi urteko nire niari. Hiru erregeetako baten rola antzeztuko nuen Gabonetako jaialdian, eskolan. Ezpata baneukan jada, eta errege batentzako osagarri egokia zirudien, erabilgarria lepoak mozteko eta abar. Plastikozkoa zen eta hutsik zegoen barrutik, baina, dena itxura izango zenez, balio zuen.

Beste hurrek Gabon kanta abestu bitartean, guk dantza txiki bat egingo genuen. «Gu gara Ekialdeko hiru erregeak». Hitzek ez zuten zentzu handirik, baina melodia polita zen. Mozorrotzea gogoko nuen. Ikasten hasia nintzen besteen arreta gogoko izaten. Behar bat asetzen zuen.

Irakasleak oihal beltz bana eman zigun hiru erregeoi. Amari eskatu behar genion oihal harekin kapa bat egiteko. Hondamendia. Ez neukan amarik; hark ezingo zidan kaparik josi; ezin izango nintzen errege izan. Izoztuta geratu nintzen, ezer egin ezinda. Ez nekien zer esan.

Etxera iritsi nintzenean, ohean etzan, eta negarrez hasi nintzen. Gero, nigana etorri zinen, zer nuen galdetu zenidan. Lasaitu egin ninduzun, dena ondo joango zela esan. Zuk josiko zenidan kapa. Ama bat zinen niretzat. Hamasei urte zenituen. Nire ahizpa nagusia zinen eta zara. Eta hori baino zerbait gehiago. Irudi batean, hiru erregeok agertzen gara, kapa eta guzti dantzan eskolako jaialdian. Pentsatzen dut guraso guztiak etorriko zirela, baina ez dakit ezer horretaz, eta ez dakit nork egin zuen argazkia ere. Gure aitak? Ez dut oroitzen erritual txiki haietan guztietan parte hartzen zuenik. Bi nerabek hezi nindutela esan ohi diot jendeari. Edo, nire haurren ama Christenen hitzetan esanda, «otsoek hezi» nindutela. Lan bikaina egin zenuten ni hezten, zuk eta gure neba zaharrak. Gizateriaren imitazioa ona naiz.

Badago meme bat otso-aldrak nola bidaiatzen diren erakusten duena. Taldeko nagusiak —indartsuenak— atzean joaten dira, kumeak erdian eta zaharrak aurrealdean. Hala, ez dira atzean geratzen, baina, era berean, ingurua azter dezakete, oroitzen dutena erabili, bizi izandakoa erabili. Horixe naiz ni orain.

Nahi nukeen baino antz handiagoa dugu; hala eta guztiz ere, ez naiz inoiz identifikatu gure aitarekin. Hiru anai-arrebak elkartzen garenean, hari buruzko istorioak kontatzen ditugu, barrezka, baina garai hartan urduri egoten nintzen beti haren jenioa zela eta. Hamai-ka lezio eman zizkidan, erakutsi nahian ez zuela merezi zaurgarriegia izatea. Eskuzabala zen bere modura, eta usteltzeraino mimatu ninduen, baina ez zuen inoiz lortu nire maitasuna erosterik. Hamabi urte bete orduko, ponteko izenez deitzen nion —Ross—, pisukide bati bezala.

Gure ama hil zenean, sei urte-edo nituen, zuk hamabost, gure nebak hamazazpi. Neba eta zu hel-duak zinetela uste nuen. Gerora ohartu naiz zuek ere oso gazteak zinetela. Hirian barrena ibiltzen zineten haur bat aldean, zuek ere hazten saiatzen ari zineten bitartean. Neska zinenez, amatzat hartzen zintudan. Gure aita bizirik zegoenez oraindik, neba ez nuen aitatatzat hartzen. Asimetria bat dago hor, rol horien inguruan izaten diren asimetria guztien gainean. Amaren egunean, postalak oparitzen nizkizun. Udarari, Newcastleko hondartzara eramaten ninduzun. Autobusean joaten ginen, bidaia luze eta bihurgunetsuak izaten ziren Cardiff Heighseko etxetik. Autobus-geltokia errepedearen beste aldean zegoen, egurrezko zutoin bat ziape-horiz margotua. Autobus berde-horia. Autobusean: txartel laukizuzen txiki-txikiak, errauts-usaina. Hondartzan: argiaren distira, zeruaren urdina. Olatuen eta kaioen soinuak, uda osoan. Txikitan, udak betirako iraungo zuela ematen zuen. Gabonak ez zirela inoiz gehiago itzuliko.

Bikinitan zaude, eguzkia hartzen. Jostailuak ekarri dituzu niretzat, baina, jolastu bitartean, istorioak asmatzen ditut nire buruan. Normalean, giza mutiko bat izateaz gainera beste zerbait ere izaten nintzen: animalia bat. Hondartzaren ostean, donut bat Shipmates-en. Ospitaletik gertu zegoen, eta hori ez zitzaidan gustatzen, baina oso gogoko nuen donut-makina ikustea. Autobusa hartzen genuen berriro, eta Hunter Street-era joaten ginen; garai hartan, aldirietako merkataritza-gune handiek bizitzaz hustu aurretik, kale nagusia zen. Erosketak egiten genituen denda kooperatiboan; The Store deitzen zioten. Kreditua geneukan han. Aldizkariak erosten uzten zenidan. The Store barruko kafetegian bazkaltzen genuen, Illou-



ra Hall-en; argi fluoreszenteekin apainduta zegoen. Gehien gustatzen zitzaidan platera: haragi-pastela saltsan, ilarrekin.

Modeloarena egin zenuen The Store-ko moda-desfilean. Probetara eraman ninduzun biltegi batera, handik hurbil. Liburuak irakurtzen eta margotzen eman nuen denbora, baina gorantz begiratzen nuen zu pasarelan agertzen zinen aldiro. Zuk eta beste modelo batzuek futbol-baloi bat pasa behar zenioten elkarri, baina oraindik ez zuten baloirik ekarri eta mukizapi-kaxa bat baliatu zenuten ordezeko gisa.

Emakumeek ustez izan behar luketenari buruzko lehen eredua ez zen ama izan. Ozta-ozta oroitzen dut hura. Zu izan zinen. Orain, arropa erostera joaten naizenean, beti erakartzen naute hirurogeiko hamarraldiaren erdialdea iradokitzen duten estiloek. Kolore-blokeak eta geometria, minigonak eta botak. Begi-itzal urdin eta berdeak, zuk erabiltzen zenituen modukoak. Jokaera freudiar arrunt gisa irakur liteke. Haur baten maitasun anbigua, formarik gabea, menderaezina.

Behin batean, txikia nintzela, alboko etxeko neskatoarekin eta haren familiarekin eguna eta gaua pasatzeko prestatu nahi izan ninduzun. Gogoko nituen auzokideak. Ama egonarritsua zen, eskola-irakaslea. Berak erakutsi zidan ordua esaten. Familiako aitag, berriz, jostailu bat konpondu zidan behin, zeren, gure aitag ez bezala, egiazko erremintak eta lantegitxo bat baitzeuzkan garajea. Neskatila ere gustatzen zitzaidan. Panpina eta pelutxeekin jostatzen ginen, era guztietako abenturak asmatzen genituen.

Orduko hartan, orde, jasanezina egin zitzaidan zugandik aldendu beharra. Zure frustrazioa nabaritzen nuen. Arropa politak zenituen soinean, makillajea ere

bai, zitaren bat izango zenuen beharbada. Orain, poztu egiten naiz zeuretzako denbora hartzen zenuelako, ez zeniolako amore ematen nire haur-denborako premia amaiezinari. Mugak. Inoiz ez da dibertigarria mugak ikastea.

Magikoa zinen niretzat. Nire urtebetetzerako, boligoma nahi nuen. Ziur aski, telebistan iragartzen zuten garai hartan, haurrentzat. Ez zirudien halakorik oparituko zidatenik, gure aitari ez baitzitzaion telebista komertziala gustatzen, ezta moda berriak ere; iritzi sendoak zituen halakoei eta beste hainbat gauzari buruz.

Doctor Who ikusten ari nintzela agertu zinen nire aurrean, belus morean bildutako zerbait esku batean, haga magiko zilarkara bat bestean. Banekien haga magikoa, berez, zure errimela zela, baina momentu horretan haga magiko bat zen niretzat. Gauza batek beste bat adieraz dezake. Desio bat eskatzeko esan zenidan, eta haga astindu zenuen gero. Eta, desio nuena eskatu nuenean, hantxe agertu zen.

Etxean beste inor ez zegoenean, zure gelan egoten nintzen. Kolore ilun epelak. Apur bat kaotikoa zen, baina espazioa zeureganatzen zenuen. Hasteko, halako giro oparo batzuk sortzen zenituen, gure etxeko estiloaren batere antzik ez zutenak. Aldizkarietako irudiak paretetan. Gogoan dut irudi batek esaten zuela: «Jainkoa hilda dago». Makillaje-potoak barra-barra zure apain-mahaian. Pilula antikonzeptiboen kaxa biribila. Ireki, eta luzaro begiratu nien. Perla zuri leunak. Bat hartu nuen.

Zu al zinen? Zu izan nahi al nuen? Zu bezalakoa? Ala munduan egoteko modu horretan parte hartu nahi nuen, hau da, zuk mundua habitatzen zenuen moduan? Feminitatearen teknikekin jolastu nahi nuen?

Nolabaiteko familia-psikodrama bat zen? Ala haragian lurperatutako zerbait baino ez, inoiz egokia ez dirudien maskulinitate hori? Nondik dator trans feminitatea? Ez dakit. Ez zait axola. Ez du axola.

Zu izan nahi nuen, baina Barbara Feldon ere bai: 99 Agentearen papera jokatzeko zuen *Get Smart* telesailan. Zu izan nahi nuen, baina Barbara Eden ere bai: Jeannie-ren papera jokatzeko zuen *I Dream of Jeannie* telesailan. Oroz gain, Diana Rigg izan nahi nuen: Emma Peel-en papera jokatzeko zuen *The Avengers*-en. Hura zen nire telesailik gogokoena. Espioien amarru surrealista, zeinetan Emmak, larruzko mono beltza soinean, karate-estiloko ostikoak ematen baitzizkien tipo gaiztoei.

Bazirudien edozein lekutan egon zitekeen zerbait zela feminitatea, gainazalen plazera, zeinuen jolasa, gauza bat bestearen orde. Mick Jagger-en soineko zuria Brian Jones-en omenaldian. Keith-en adats ilun eta sendoa, zurearen antzekoa. Keithek maiz janzten zituen bere neska-lagun Anita Pallenberg-en arropak. Mிக்க, abestietan, gogorra eta gizon-gizona ematen zuen, baina nor ziren bere kantuetan aipatzen zituen emakume haiek?; zer zen feminitate hura? Mendean izango zuen beharbada, baina azalaren azpian sartu zitzaion.³

Generoen ustezko itxuraren lausotzearekin ondo moldatu nintzen, bereziki hirurogeiko hamarralditik hirurogeita hamarrekora pasa ginenean, nire nerabezaroan. Unisex estiloak modan zeuden, eta bu-larralde zabaleko top estu marradunak janzten nituen,

3 Jatorrizkoan, «She might be under his thumb, but she got under his skin». Hitzez hitz: «Erpuruaren azpian izango zuen beharbada, baina hura azalaren azpian sartu zitzaion». Esaldiak Rolling Stones taldearen «Under my thumb» kantu ezagunarekin jolasten du. Norbait erpuruaren azpian izateak mendean edo oinpean izatea esan nahi du.

zera mikazko zintzilikarioak, eta panazko praka zabal malba, granate edo gorriminak. Zuk etxetik alde egin eta gero ere, eutsi egin nien zuri ikasitakoei: zurekin erosketak eginez zein etxetik kanpo zinenean zure armairua kuxkuxeatuz ikasitakoari.

Gure amak bazituen *Standard Edition of the Works of Sigmund Freud* ale batzuk, Hogarth Press argitaletxearenak. Nerabetan irakurri nituen. Freuden fantasia-ipuinean, ustez aitek sartu behar dute amaren eta haurraren artean, bien sinbiosia hautsi, kanpoko munduaren lekukotasuna eman. Gurean ez zen halakorik gertatu. Aita, gurean, ausazko kontu bat zen, eguraldi apetatsua. Lan egiten zuen, fakturak ordaintzen zituen. Erosketak egitera joan ginen batean The Storen zerbait erosi zenuela aipatu nion behin, eta eroaren pare jarri zen gastuarengatik. Aitarene zeregina guri baliabideak ematea zen, haien bidez xurgatu genezan ikuskizunak eskaintzen zizkigun irudi eta estilo onargarrien erreperitorio mugatua, eta, xurgatu bakarrik ez, ondoren erreperitorio hori gure bizitza propioa eraikitzeko nola erabili birplanteatu genezan.

Ez da zure errua ni abandonatuta sentitu izana, eta bigarren aldiz, gainera, etxea utzi eta Sydneyra aldatu zinenean. Nerabea nintzen ordurako. Aitak harreman bat zeukan beste alargun batekin, Melvarekin, eta zuk espero zenuen harekin ezkonduko zela eta horrela ez nintzela aitarekin bakarrik biziko. Ez zen halakorik gertatu. Eta ez ziren elkarrekin bizi izan inoiz. Emakume burujabea zen Melva. Negozio bat zeukan. Melvari eta haren lehenengo senarrari buruz daukadan teoria frogaezina da bietako bat behintzat gaya zela. Melvak ez zuen umerik izan inoiz, eta ez zuen inoren amaordea izan nahi. Harengana hurbildu nintzen tarte labur batez, baina urrundu egin zen.

Hiru neba-arrebok elkartu ginen azkenengo al-dian, gure aitari buruzko istorioak kontatu genituen; adibidez, nola ekarri zuen etxera berarekin larrua jo-tzen zuen idazkaria, eta zuek biek esan zenioten: ezta pentsatu ere. Halakoak kontatzean, zuek biek aita deitzen zenioten, eta nik Ross. Ondorioz, istorio des-berdinak dira. Beharbada ez zekien askorik aita izateari buruz, berak ere ez zuelako aitarik izan. Txikia zela hil zitzaion. Bi emakumek hezi zuten; «izeba lesbianak» esaten diet. Ni neu aita bihurtu nintzenean, ez nekien nola izan aita. Nola eraman koroa huts hori. Otsoek he-zia. Otsokumeak hezten nire aldetik. Haiei huts egin izanak kezkatzen nau. Espero dut, gutxienez, ugaztu-nen segurtasunez jakingo dutela maitatuak izan zirela.

Princeton-era joan nintzen biltzar batera. Afal-tzera atera nintzen lehenengo gauean. Biharamunean, hoteleko gelan esnatu nintzenean, Christenen mezu bat neukan. Larrialdietan zegoen, obarioa lehertuta, baina egoera kontrolpean zegoen, hala esan zidan, eta ez nuen zertan joan. Biltzarrera kale egin, eta ospitale-rantz egin nuen zuzenean.

Ospitaleek seko izutzen naute, disoziaziorik okerrenera bidaltzen. Christen etzaleku estu batean, gortina baten atzean, zurbil, lur jota, burua galduta botiken ondorioz. Alboko etzalekuan, gizon bat has-perenka eta marruka: «nire soldadua, nire soldadua!». Harri bat giltzurrunetan, antza. Montaigne-rekin akor-datu nintzen, hark ere izan baitzituen harriak. Zakiletik giltzurrunetako harri bat bota behar izateak bizitzaren gaineko ikuspegi konkretu bat ematen dizu.

Disoziazio-une horretatik itzulita, ekintzarako prestatzen naiz. Haurrak jaso eskolan. Etxera eraman eta jaten eman. Christenek, estresatuta dagoenean,

mikrokudeatzeko joera du; beraz, uzten diot afaritara-ko zer prestatu behar den agintzen, nahiz eta nik bien bitartean beste zerbait pentsatu. Hala hasi genuen Christenen minbizirako tratamenduen urtea.

Bizirik atera zen. Baina, tarte batez, nire bizitzako eszenak behin eta berriro errepikatzen zirelako sentsazio izugarri hura. Eszenak eraldatu egin daitezke. Orain, ni naiz bikotekidea gal dezakeen aita. Orain, nire haurrak dira ama gal dezaketenak. Orain, gure haur nagusia da —nerabe bat besterik ez— pauso bat aurrera eman eta txikiari lagundu behar diona. Eta, orain, nire haurrik gazteena da ama gal dezakeena oso gazterik, amaren oroitzapen iraunkorrik gordetzeko denborarik izan gabe. Niri gertatu zitzaidan bezala. Zer hauskorrak diren era horretako familia pribatizatuak. Ukatu egiten dute itzalpeko zaintzen mende daudela guttiz.

Duela zenbait urte, nire lagun Shelly hilzorian zegoen, minbiziarekin. Berak ere haur txikiak zituen. Galdetu zidan, nire esperientzia kontuan hartuta, ea zer oroituko zuten berari buruz. Horra hor inoiz erantzun behar izan dudan galderarik zailena. Esan nion jakingo zutela maite izan zituela.

Urte hartan jada ez nintzen otsoa. Gizaki bihurtu nintzen. Auzoko emakumeek janaria prestatzen ziguten. Batzuek atean uzten zidaten, hala ez bainien ezer esan behar. Laguntza onartu nuen. Christen zaindu nuen. Haurrak zaindu nituen. Zaintzaren lanean murgildu nintzen. Eta, nolabait ere, irakaskuntzako lan ordainduari eutsi nion.

Nire haur nagusiak txikia zaintzeko ardura hartu zuen, zuk eta gure nebak nirekin egin zenuten bezala. Egoera horretaz aparte —luzaroan erabili ez nituen energia-gordailuetara jo behar izan nuen aurre-

ra egiteko—, iraganaren ufada bat-batekoa iritsi zen. Nire iraganarena. Errepikapena. Behin eta berriro eszena bera ikustea bezala, baina beste pertsonaia baten ikuspegitik. Inoiz ez nuen izan nahi izan gure aitaren modukoa. Baina hara non haren rol berean nengoen, argumentu berean. Zorigaitz berean.

Istorioak beste amaiera bat izan zuen. Bertsio honetan, ama osatu egiten da. Minbiziaren ostean, Christenen lehenengo pentsamendua izan zen gure ezkontzatik ateratzea. Nirea, berriz, maskulinitatetik ateratzea. Denbora behar izan genuen bata zein bestea gauzatzeko. Horren orde, beste zerbait egin genuen berehala: katuak hartu.

«Galdetu aitaxori ea katuei jaten eman dien», esaten dio Christenek haurretako bati. Aita naiz oraindik, baina izenordain femeninoekin hitz egiten didate.⁴ Ama beti izango da Christen. Haurrak sabelean eraman zituena, haietaz erditu zena eta haiei jaten eman ziena. Hori errespetatzen dut. «Ama» eta «amagintza» ez dira gauza bera. Edonor jardun daiteke amagintzan. Beharbada mundu guztiak har lezake horren parte bat, mundu guztiak egin lezake zaintza-modu hori. Nahiz eta, azkenean, Aita izan behar dudak fakturak ordaintzearen zentzuan.

Amagintza lan bat ere izan daiteke. Gure ama gaixotu zenean, Fisher andrea gure etxera etortzen hasi zen, laguntzera. Goizetan, ogia txigortu eta xerratan mozten zidan, arrautza epelekin jateko. Fishy deitzen nion. Batzuetan, haren etxean egoten nintzen.

⁴ Ingelesezt generoaren araberrako izenordainak erabiltzen dira: she/her (femeninoa) eta he/his (maskulinoa); gaur egun they/them ere erabiltzen da izenordain ez-bitar edo neutro gisa. Pertsonaren genero-hautua ikusarazteko eta errespetatzeko elementu garrantzitsua dira, eta autorearen hurrek, esaterako, she/her esaten diote, aita deitzen segitu arren. Euskaraz halako izenordainik ez badago ere, esanguratsua iruditut zait xehetasun horri eustea.

Haren senarrak zalditegi bat zeukan, eta animalien usaina zerion denari. Etxea bera zaldi-erakustaldieta-ko begitaz beteta zeukaten. Fisher senar-emazteak beste garai batekoak ziren, haien bizilekuaren inguruan aldiriak eraiki aurrekoak. Gerraosteko boomaren aurrekoak. Ekonomia berriarekin batera bazterrean utzitako jendea kontratatzen da, hain zuzen ere, eredu berri horren familia-disfuntzioak betetzeko.

Zerbait ikasi nuen idazketari buruz. Gauza bat beste gauza bat bihur daitekeela. Oihal beltzezko lauki bat kapa bihurtzen da. Kaxa bat, berriz, futboleko baloi bihurtzen da. Ahizpa batek amarena egin dezake. Aita batek amarena egin dezake. Mutiko bat otso bihur daiteke, uzten badiozu. Mutiko bat, are gehiago, emakume ere bihur daiteke. Beharbada nahiago izango du emakume bihurtu, errege bihurtu baino.

Botere hori, gauza bat beste gauza bat bihurtzekoa, niretzat feminitatearen botere jakin bat da. Botere hori ez da sendoa. Botere horren muina zera da, eskura dauden bide guztiak baliatzea ez zaitzaten harrapatu, ez zaitezen egon gizonaren mendean. Nik ez nuen errege izateko gogo handirik. Nire fantasia-ipuinak idatzi nahi nituen, hori baino ez.

Ez zirudien idazlea izango nintzenik. Bigarren mailan, zigortu egin ninduten letra txarra izateagatik. Eskolan, irakurtzeko gaitasunaren arabera sailkatzen gintuzten, eta ni C-n jarri ninduten, hau da, ezin nituen irakurri A eta B apalategietako liburuak. Otsoei buruzko liburua A apalategitik hartu nuen, inor begira ez zegoenean.

Otsoek hezi nindutenez, maltzurkeria-puntu bat zegoen inguruan. Rossek, behin, hondartzara joatea debekatu zigun, baina joan egin ginen hala ere. Aitaren

autoa etxera iristear zegoela, dutxarantz bultzatu ninduzun, harea garbitzeko. Beste batean, Ruth Tucker-en akuarelaen kristala apurtu nuen. Pusketa guztiak bildu zenituen erratzarekin, eta ezer gertatu ez balitz bezala jokatu genuen gero. Ross ez zen sekula ohartu.

Zu eta biok hondartzatik etxera itzultzen, autoz. Nire oroitzapenetan, kabriolet bat da. Zure mutil-lagunen batek bazeukan kabriolet bat? Hegazkinlari-betaurrekoak dituzu, eta alkandora bat (zure mutil-lagunarena?) bikiniaren gainetik, eguzkitik babesteko. Findegikoak greban daude, eta gasolina, edo petrolioa, guk esan diogun moduan, eskasian dago. Zerbitzugune batean sartu, eta arduradunarengana zuzentzen zara, erregai pixka bat lortu nahian. Baina, lehenik, alkandora kentzen duzu. Eskaera onartzen du. Handik urrundu ahala, alkandora zergatik kendu duzun galdetzen dizut. Zuk begiratu egiten didazu, besterik ez.

Hondartzako argazkilari batek erretratuak egin zizkizun bikini soinean zenuela, eta tokiko egunkariko «hirugarren orrialdeko neska» bihurtu zinen. Artikuluan, zure izena agertzen zen. Telefono-gidan ez zegoen Wark askorik. Hainbat gizon etxera deitzen hasi ziren, eta arreta galarazten zioten Rossi. Dei horietako bati neuk erantzun nion, etxean beste inor ez zegoen batean. Inoiz biluzik ikusi al zintudan galdetu zidan, eta nik baietz, bainugelan ikusi izan zintudala hala. Hainbat urte geroago ohartu nintzen gizon bat entzun nuela telefonoaren beste aldean masturbatzen haur batek zu deskribatzen zintuen bitartean.

Feminitateak badu botere bat —nolabaiteko botere bat—, baina zigortu egiten dute botere horrengatik. Eta ez soilik gizonek. Hori ikasten ari nintzen jadanik. Eskolan neska deitzen bazidaten, beste zerbaiten au-

rrekaria izaten zen: zorura botako ninduten jarraian. Mutilek egiten zuten hori, baina zenbait neskak ere mutilekin batera barre egiten zuten. Neska horietako batzuek, helduaroan, feministak direla uste dute.

Zu Newcastletik joan eta gero, asteburu batzuetan trenez joaten nintzen Sydneyra, zu ikustera. Apartamentu batean bizi zinen, zure mutil-lagunarekin, Bondi Beach-en pare-parean, halakoak posible ziren garaian. Nire izate txiki probintziala, hogeita piko urteko gazte sofistikatuaren manerak ikasten Hiri Handian. Eta zugandik, zehazki, belarra erretzen ikasten.

Neure feminitateaz ere ikasi nuen zerbait. Hainbat aldiz hurbildu zitzaizkidan gizonak, trenean, geltokian. Haien desira, gozamenarekin eta arriskuarekin lotuta. Tarte bat behar izan nuen harik eta jakin nuen arte nola lor nezakeen nahi nuena halako egoeretatik, ondorio kaltegarriak jasan gabe. Haiek ni desiratzea desio nuen, baina ez nuen beren aldartearen mendekoa izaten amaitu nahi.

Nik zera nahi nuen haiengandik: neska baten moduan sentitzea beren arretan. Ez nituen haiek nahi. Zuri begiratzen zizuten moduan begira ziezadaten nahi nuen. Eta hala begiratzen ninduten, edo ia. Ez zen begirada bera. Ezkutuagoa zen, otsotiarra. Gerora ondotoxo ezagutzera iritsi naizen begirada bat. Otsemea izango naiz beharbada, baina ez naiz inoren puta.



MAITALEAK

2.1

MURI

Ez naiz akordatzeko nola topo egin genuen, Mu; gogoan dut nola galdu zintudan. Sydney, laurogeiko hamarraldia, gure hogeia, hiriaren korrontean bultzatzen gabiltza. Ausaz elkartzen gara festetan, tabernetan, erakusketetan, diskoteketan. Hiriaren erdigunea gure jolas-eremua zen oraindik. Merkea zen, artean ere egokitzen gabea gerora etorriko zen hiri-ekonomia garestira.

Ezagutu zintudanean, ikasten ari nintzen oraindik, master bat egiten Sydneyko Unibertsitate Teknologikoan, tren-geltoki nagusiaren aldameneko dorre brutalista hartan. Hango Komunikazio fakultatean gertatzen ari ziren gauza berri guztiak. Bizimodua aurrera ateratzen ari nintzen, han eta hemen: artikulak idazten, irratian, irakasle atxiki moduan. Eskolako lanak amaitzen nituen Numbers-en gaueko txanda egiten nuen bitartean, Oxford Streeteko tabernazulo zorionekoan.

Elkar ezagutu genuen garaian, lanaldi osoko postu bat lortu nuen lehen aldiz, *On the Street* aldizkarian. Lau kideren artean, berrogeita zortzi orrialdeko argital-

pen bat ateratzen genuen, rock and rollari buruzkoa, asteroko kontzertuen gida eta guzti. Eskudirutan ordaintzen ziguten, izen faltsu bat erabiliz. Idatzi egiten nuen, editatu, zuzendu, argazkiak errepasatu, argazki-oinak idatzi, maketatu, telefonoari erantzun, eta, batez ere, tabernetako arduradunek bidalitako kontzertu-zerrendak jasotzen nituen. *On the Street* aldizkariari, kalean, *In the Gutter* deitzen zioten [Estoldan], zenbait goizetan estoldan egoten baikinaren erredakzio txiki hartako kideak.

Lan eskasa zen, baina bazituen bere alde onak. Aldizkaria, kontzertu-aretoetara ez ezik, entsegu-gelara ere iristen zen. Musikariek irakurtzen zuten. Nire sinadura agertzen zenez, klubetara sartzen uzten zidaten. Zuzeneko musikan zentratu arren, diskoteketako iragarkiak ere jartzen genituen, eta gure arreta nahi zuten. Tabernak itxi ostean joaten ginen klubetara. Eta, klubak ixtean, Taxi Club-era joaten ginen, gau osoan egoten baitzen zabalik, eta han elkartzeko ziren egunaren jaiotza eta desiraren azkena.

Ez zintudan Taxin ezagutu. Ez zinen hara joaten; hori baino zentzu gehiago zenuen. Gogoratzen zaitut Commotion-en, eta beharbada Berlin-en edo Stranded-en, eta The Freezer-en ere bai, Taylor Squaretik eta Oxford Streetetik apur bat ekialdera, Andy Glitrek maiz pintxatzen zuen han. Diskoteka hetero bat zen, eta hara joan ohi nintzen mendebalderantz jo aurretik, Oxford Streeteko zona gayrantz, Numberseko txanda egitera.

Taxi Cluben, Clementine ezagutu nuen, eta etxera eraman. Mendebalderago zuen hark bizilekua, urrun. Nirea, askoz hurbilago, Ultimo-n kokatzen zen, erdigunearen mendebaldeko ezpainean. Lotsa ematen zidan nire etxera joateak, hankaz gora zegoelako,

baina berari ez zitzaion axola. Eta lotsatuta nengoen, orobat, arrazoi ez hain justifikagarriengatik: Clementine transa zen.

Nire etxera iritsita, zirrika aritu ginen, errematatu gabe, mozkor arrail biok. Eta han zegoen bera, mozkorraldia pasatzen nire ohean. Ni guztiz aztoratuta nenbilen. Normalean, hau izaten zen nire desiraren arantza: desio nituen emakumeak desiratzeaz gain, haiek bezalakoa izatean desio nuela. Desira ezinezkoa. Zu izateko desira, esate baterako. Orain, berriz, Clementine desio nuen, bera izan nahi nuen, eta izan nintekeen. Kurba itsu bat zabaldu zen labirintoan. Ezin nuen begirik bildu. Lo egiten utzi nion tarte batez. Lanera joan behar nuela esan nion; gezurra zen. Kafea, gosaririk ez. Erabat ahaztu nuen gau hura. Edo hala zirudien.

Posible denaren astinaldia da transexualitatea.

Ez zintudan Taxin ikusi, baina bai inguruan. Zure lagunak nireak ezagutzen zituzten. Gogoan dut, lausoki, zuk ligatu zenuela nirekin, eta ez alderantziz. Lehenengo aldiz nire apartamentuan geratu ginen. Gustatzen zait jendea etxean hartzea, nahiz eta gaitasun eskasak neuzkan horretarako —eta hala da oraindik—. Loreak ekarri zenituen. Afaria prestatu nuen. Elkar musukatu genuen. Etxera joan zinen. Nolabait ere, elkarrekin amaitu genuen. Instalazio finko bat bilakatu nintzen beste hainbatekin konpartitzen zenuen Newtowneko etxean. Zure pisukideekin bat eginda. Margolaria eta biok Facebookeko lagunak gara oraindik.

Zure gurasoek janari-denda bat zeukaten; nire aita arkitektoa zen. Nik bezala, zuk ere zuzenbidea ikasi behar zenuen berez. Gurasoen anbizio burges-txikien gailurra horixe zen: seme-alabak mediku edo

abokatu bihurtzea. Zuzenbideko fakultatea utzi genuen biok. Gure anbizioa ez zen bufete bateko bazkide bilakatzea. Iraultza nahi genuen.

Eskura genituen baliabideak kulturalak ziren. Garai hartako teoria ezagun baten arabera, superegitura kulturalak nolabaiteko autonomia zuten oinarri ekonomiko kapitalistari zegokionez. Superegituretako kultur langileak ginen aldetik, teoria eta praktika uztar genitzakeen, eta bestelako hedabideak sortu, ideologia nagusiak barrutik desagiteko baliabide gisa.

Gure baliabide teknikoak analogikoak ziren, eta merkeak. Mundu guztiak zeukan gitarra bat edo erritmo-kaxa bat eta bideo-kamera bat. Etxe konpartituko sukaldera sartu, eta han topatzen nituen Redback Graphics-eko poster politiko eder haiek. Janaria prestatzen genuen denentzat, jan egiten genuen, eta, bien bitartean, irrati komunitarioa pizten genuen, 2SER. Gero, Performance Space-era, Art Space-era edo Art Unit-era joaten ginen, edo Filmmaker's Coop-era bestela, Super 8 filmak ikustera. Edo lagunen baten kontzertura taberna batera, eta ondoren diskoteketara.

Internet oraindik ez zegoen hain zabalduta, baina jadanik existitzen zen halako fluxu global bat artelan eta komunikabide interesgarrien inguruan, eta Glee Books-en edo Phantom Records-en eta beste bideoklub cool hartan bazeukaten. Londreseko, New Yorkeko, Pariseko eta Tokioko erdigune metropolarrek beren kontaktu-txartelak uzten zituzten guztietan. Aurreko belaunaldikoak izan ziren, probintzietatik ihes egin eta gero —probintzia errealak zein irudimenezkoak— Londresera begiratu zuten azkenak. Guri gehiago interesatzen zitzaizkigun Paris —teoriarri zegokionez—, New York —arteari zegokionez— eta

Tokio —mundu urbanoa eta irudien mundua sintetizatzeko modu harrigarriarengatik—.

Erakunde batean lan egiten zenuen: audio-formatuko hezkuntza-materialak egiten zenituzten, batez ere multikulturalismoaren inguruan; estatu-politika ofiziala zen artean. Material feminista bigun samarra, neskentzat. Ni *On the Streeten* nenbilen oraindik, *Intervention* egunkari erradikala berrabiatuko zuen kolektiboko kide bihurtzeko zorian. Zu beste kolektibo batean hasi zinen, eta beste egunkari bat sortu zenuen: *Third Degree*. Gure ezagun guztiak ari ziren gauzak egiten.

Jende hetero dirudunarentzat, halako bizimodua aldi baterakoa zen. Ustez, egiazko lanak lortu behar genituen, seinale bat ordaindu etxe bat erosteko mendebaldeko aldirietatik apur bat urrunago. Haurrak izan. Halakorik ez zitzaigun gertatu ez zuri ez niri. Norabide-aldaketa desberdinak. Nire kasuan, nahiz eta ez neukan horren gaineko nozio kontzienterik, norabide-aldaketa Clementine dei zitekeen.

Ziur aski ez da arraroa, norberak hogeita gutxi urte dituenean, harremanek iraun dezaten ez lortzea. Normalean, nire harremanek ez zuten bi urteko mugarrira gaunditzen. Bi buelta eguzkiari. Larrua jo nahi diozun eta maite duzun norbaitekin zaudenean, baina aldi berean hura izan nahi duzunean, konplikatu da. Haustura desordenatuak. Mutil-lagunak tartean. Eta chemsex-saioak Edward-ekin, nire lehen mutil-lagun egiazkoarekin, harengana itzultzen bainintzen larrutan egin ziezadan. Edwarden kontu horrek hamahiru urte iraun zuen. Nire barruko balizko neskaren aukera bizirik mantentzeko modu bat balitz bezala: nire beste izate latente bat.

Zurekin, Mu, fisikoa zen. Jo eta su egiten genuen larrutan. Baldar totala nintzen. Baina, zorionez, nire neska-lagunek, sexuaren arloan, konfiantza zuten beren buruarengan; halakoen artean hirugarrena izan zinen zu beharbada. Egia esan, ez zen zori-kontua. Txarra nintzen sedukzio-jokoan. Txarra nintzen interesa adierazten, eta zer egin ez nekiela geratzen nintzen inork nirekiko interesa zuenean. Sexualki esplizituak ziren emakumeei bakarrik erantzuteko gai nintzen. Hau guztia jada ez da misterio bat niretzat. Desio ninduten emakumeek bi hauetako bati erantzuten zioten: nik baneukan baina nahi ez nuen maskulinitateari edo orobat baneukan baina adierazteko gai ez nintzen feminitate bati.

Guztiz eskasa nintzenez sexu heteroan, eta beren buruarengan konfiantza zuten emakumeekin elkartuta, ikasi egin behar nuen. Ikasteko gogotsu nengoen. Haiek erakutsi zidaten. Zuk erakutsi zenidan. Ezin banintzen emakumea izan, zure gorputzaren xehetasunetan gal nintekeen gutxienez, zure gorputzaren nahiei eta beharrei erreparatu. Mugimenduak behar nituen. Azkar gogortzen zitzaidan, eta garai hartan fidagarriki, baina minutu gutxi batzuen buruan korritzen nintzen. Ahoarekin eta hatzekin zer egin ikasi behar nuen.

Zergatik oroitzen dut sexua beste ia edozer baino argiago? Baina, aldi berean, hain dira oroitzapen bitxiak. Presente egotearen oroitzapenak, baina presentzia horretan galduta; hortaz, ez dut oroitzapen zehatzik. Eta: presente ez egotearen oroitzapena—orain, disoziatzen ari nintzela esango nuke—; beraz, xehetasunak argiki oroitu arren, nire sentimenduei buruzko arrastorik ez. Istorio baten pusketak itsasten fotograma hutsetatik abiatuta.

Zure gelan edo nirean aritzen ginen musuka. Joan egiten zinen minutu batez, diafragma jartzera. Ez zenuen inoiz nahi izan nik ikusterik. Larrutan egiten genuen; laburki. Preludio gisa. Gehien gustatzen zitzaizun gauza, nire mugak kontuan hartuta, ni zamalkatzea zen, cowgirl baten eran, eta zure klitoria igurztea nire zakil bigunean gora eta behera. Garai hartan, hau da, hormonak hartzearen ondorioz nire zentzumenak sotilki aldatu aurretik, irudi hori —zu ni zamalkatzen ikustea— dena zen niretzat. Hori eta zure azalaren ukia aldaketatik heltzen nizunean. Hori eta nola erabiltzen ninduzun sexualki, horrek mantentzen ninduen, eta berriro egiten genuen larrutan.

«Emadazu zure dirua!». Axola zitzaizun jende guztiari esaten zenion gauza bera. Niri hainbat bider esan zenidan. Batzuek uste zuten antzerkia zela, broma bat, ateraldi xeble bat. Niri, aldiz, beste zerbait iruditzen zitzaidan. Ironikoa eta egiatia aldi berean, hori baitzen zure estiloa. Objektuen pilaketa zabal bat dirudien gure garai honetan, zer da maitasuna? Dirua; baina baita diruaren ukazioa ere: iraultza. Zer esaten zenuen zuk? «Emadazu zure diru guztia!». Zer aditzen nuen nik? «Maitasuna eta iraultza behar ditut!».

Maitasun ironikoa sentitzen zenuen ingurua-
rekiko. Festa bat Gregory-ren etxean, mundu guztia dantzan. Do-Ré-Mi taldearen «Man Overboard» kantua jarri zutenean, festako hainbat emakumek letra abestu zioten elkarri. Abesti miragarri bat da, mutil-lagun aspergarri eta egozentriko baten ingurukoa; han geunden mutil-lagun askoren antzekoa. Emakumeei begira geratu zinen, eta hau esan zenuen: «Feminismoa dela uste dute, baina, egiaz, amorratuta daude heteroak di-relako, besterik ez».

Zure bizitzako alderdirik garrantzitsuena, iraultzaz aparte, beste emakumeak ziren, eta bereziki zure bi adiskide minak, Clare eta Tania. Hirurak bat eginda zeundeten elkarrekiko zintzotasun emozionalaren eta zaintza erabatekoaren proiektuan. Ni jeloskor nengoen. Ziur aski horregatik azaldu nintzen, inork gonbidatu ez ninduen arren, Clareren etxean, arrazoi ez oso argien-gatik. Zuk barkatu zenidan; berak ez.

Clarerekin eta Taniarekin zeneukan maitasuna axola zitzaizun, maitasuna baitzen aurkitzen eta mantentzen zailena zure bizitzan. Zure ama bizirik zegoen, baina ezegonkorra zen. Eta zorigaiztokoa. Isolatuta bizi zen. Herrixkatik zuzenean iritsi zen, eta, kantonerearen dialekto bat hitz egiten zuenez, aparte bizi zen, nahiz eta Sydneyn gero eta kantonera-hiztun gehiago egon. Behin bakarrik elkartu nintzen berarekin. Dialektoan hitz egin zizun, eta zuk ingelesez erantzun zenion batez ere; bien bitartean, arrain bat eta jengibre pixka bat jaurti zituen wokera, eta bikain prestatu zituen.

Gau batez ohean etzanda geundela, larrua jo eta gero, isiltasun lasai baten erdian esan zenuen: «Maite zaitut». Tarte bat pasata, hau erantzun nizun: «Ez dakit zer egin horrekin». Egia zen. Nahiz eta, ordurako, nik ere maite zintudan. Beldurra ematen zidan. Zure aurretik ez nintzen beste inorekin maitemindu. Maitasunari buruz ezagutzen nuen gauza bakarra abandonua zen. Aitzakiak dirudite. Beldurtuta nengoen, hori da dakidana. Zuk maitatzeko ausardia zenuen, eta nik ez. Zaurgarritasunezko leku bat eskaini zenidan, eta huts egin nion zurekin han batzeari. Eta hori ez zenidan inoiz barkatu.

Huts egin nizun. Huts egin zizun munduak ere. Aldaketa kultural zabalagoaren aldartea sumatzen

zenuen. Eguneroko arrazakeria ez ezik, arrazakeria gehigarri bat ere sentitzen zenuen. Inoiz ez zen erraza izan txinatarra izatea Australian, baina laurogeiko hamarraldiaren amaiera aldean okerrera egin zuen.

Multikulturalismoaren politika ofizialek zuritasuna jartzen zuten zentroan oraindik ere. Nork bere kultura espezifikoa izan zezakeen, noski, baina nire moduko pertsona zuriak soilik ahalduz ziren kulturari buruz bere osotasunean hitz egiteko. Nagusitasun zuria adierazteko beste hizkuntza bat baino ez zen. Zuk bazenekien. Bere izenez deitzen zenion zure umore ironikoarekin. Barrutik lan eginez egiten zenion kontra. Baina bat-batean arrazakeria-maila igotzen zenean, bete-betea harrapatzen zintuen amorrak. Autobus-gidari batek esan zizun itzul zintezela sortu zinen tokira. Zure erantzuna, aurpegia mudatu gabe: «Txartel bat Newtown-era, orduan». Gizon batek txistua jaurti zizun erosketak egiten ari zinela. Auto batetik garagardo-lata bat bota zizuten King Street-eko espaloitik eskutik helduta gindoazela. Jada ez zenuen pentsatzen herrialde hartako kide sentitu ahal izango zinenik.

Gaixo egon nintzen, oso gaixo, bolada batez. Diagnostiko ofiziala «Ross River sukarra» izan zen, ezin baitzuten asmatu beste zer izan zitekeen. Landako gaixotasun hori eltxo batek kutsatu zidan, ustez, Ultimon bizi nintzelako, hau da, Paddy's Market azokatik gertu, non ganadua saltzen baitzen oraindik. Ez dut sekula ahaztuko nola zaindu ninduzun izerdi hotzeko gau latz haietan. Uste dut orduan oparitu zenidala peluxezko hartz arrosa hura, gauero heltzen zenion Milk Carton peluxezko animalia urdinaren bikia.

Noizbait ere nire familia etorri zen eta eraman egin ninduten. Newcastlea etorri zinen, abisatu gabe,

niri bisita egitera, eta hotz baino hotzago hartu zintuzten. Nire aitak, gehienbat, naturaltasunez aritzeko ezgai izan zelako beti: ordutegien eta errutinen arabera bizi zen. Baina, horrez gain, hor zegoen Melvaren arrazakeria lotsagabea ere. Ez zinen geratu. Mugitzeko gai izan banintz, zurekin joan izango nintzatekeen. Zuritasuna ezin dela utzi erakusten duen alegoria zikoitz bat.

Txinara joan zinen, medikuntza txinatarreko ikastaro batean izena eman zenuen Pekinen. Baina han ere ez zinen etxean sentitzen. Zure gutunetan kontatzen zenidan agian utzi egingo zenuela. Kanpotarrekin elkartzen zinen: garai hartan, distantzian mantentzen zituzten, enklabe berezi batean. Rachelekin bizi zinen, nire ex batekin, zeina berriemaile baten bikotekide gisa joan baitzen Txinara. Ekoizpen-laguntzaile gisa lanean ibili zinen *The Last Emperor* filmean. Atxilotu egin zintuzten. Ez zeneukan pasaporte aldean.

Pekineko poliziek pentsatu zuten dokumenturik gabeko migratzaile bat zinela, hegoaldekoa. Pekinen ez zinen etxean sentitzen, ez Sydneyn baino gehiago. Jakin nuen Trans-Mongolian Express trena hartu zenuela Berlinerantz. Pekinera iritsi nintzenean, alde egin berria zinen. Ikusi nahi zintudan. Zu berreskuratu. Gure artekoa konpondu. Bidaiatzen segitzeko bisarik lortu ez, eta Pekinen geratu nintzen. Alokairurik ordaindu gabe bizi nintzen, zu bezalaxe, nire bikotekide ohiaren mutil-lagun kazetariari lanagatik ematen zioten apartamentu erraldoian: etxea jende interesgarritz betetzea gustatzen zitzaion, entretenitzeko.

Nire aurrezkiekin eta noizbehinka zerbait idatziz ateratzen nuen bizimodua. Hiri liluragarria, kapitalismorik gabeko hainbat hamarraldik taxutua, aldatzeko zorian. Ez nintzen fidatzen beren buruari disidente deitzen ziotenekin, informatzaileak zirela susmatuta;

alderrai ibiltzen nintzen kaleetan, egunez, hango giroa sentituz, ausazko topaldietarako prest. Ilundu eta gero ere, gaueko jendea aurkitzen nuen. Bitxikeriaren papera antzezten nuen janariz betetako mahaian truke.

Sei hilabetez-edo hala bizi eta gero, zurrumurru bat iritsi zitzaidan, jardun osoko irakasle-postu bat eskaini zidatela Sydneyko Unibertsitate Teknologikoan. Alde egin aurretik aurkeztu nintzen deialdira, praktikatzeko batez ere. Antza, ezbeharren bat gertatu zitzaion lehenengo hautagaiari, eta nire bila ari ziren orain. Nire bila: inoiz jardunaldi osoko lanpostu legezkorik izan ez zuen honen bila, masterra ere ozta-ozta amaituta zeukan honen bila. Horrek itzularazi ninduen Sydneyra, eta horrela hasi zen, halabeharrez, nire karrera akademikoa.

Zure bidaien ostean Sydneyra bueltatu zinean, Love Hotel-era joan zinen bizitzera: biltegi erraldoi eta ireki bat zen, Parramatta Road-en kokatua, eta mundu guztia plataforma estalietan bizi zen, teilatu-hegaletan; eskaileren bitartez igo behar zinen. Leku legendarioa, komuna bat gutxi-asko, eraikinaren behealde diafanoan egiten ziren raveek diruz lagundua. Zurekin egon nahi nuen berriro, baina zuk ez. Ez nuen zu maitatzeko ausardiarik izan lehenengo aldian, eta ez nuen bigarren aukerarik merezi. Behin, dirua ere eraman nizun zure habia hartara. Oparitarako gutunazal batean bildu nuen; gorria eta urre-kolorekoa zen, Chinatownen eros zitezkeen haietarikoa. Luze gabe, bidaiari abiatu zinen berriro.

Nire bulegoan nengoen, unibertsitatean, egunkari-mordo bat aztertzen: Pekineko berriak nonahi. Deng ikustera joana zen Gorbatxov, bi botere komunista handien biltzarrera, eta hara joan ziren nazioarteko

komunikabideak ere. Ikasleek eta beste talde batzuek aukera baliatu zuten Tiananmen plaza okupatzeko, eta horrela suertatu zen gertaera komunikatibo global bitxi bat. Shellyk —gu bion adiskidea, Gregoryren neska-laguna— zure heriotzaren berri eman zidan. Shock-erreakzio bat izan zenuen Guatemalan malariaren aurkako botikak hartu eta gero. Shellyk eta biok elkar besarkatu genuen, negarrez. Hogeita bost urte zenituen.

Zure senideak elizaren alde batean eseri ziren, zure lagunak bestean. Denok pasa ginen hilkutxaren aurretik; zabalik zegoen. Milk Cartoni eusten zenion zure esku hilekin. Predikatzailerik baptistak, zerurako igarora deskribatzeko, lur urrun batera hegazkinez joatea bezalakoa zela esan zuen. Etxetik hain urrun hil zinela kontuan hartuta, gehiegi zen.

Zure adiskide Clarek «Song to the Siren» abestu zuen; zure lagun guztiek ezagutzen zuten. Momentu horretan, eszenatik ihes egiteko bulkada sentitzen nuen, disoziatzeko bulkada. Clareren ahotsa, bilkura hura, bizitzarekiko lotura eta bizitzari eskapo egin ezina sentitzea.

Mezaren ostean, Tania negarrez. Hurbildu naitzaio, besarkatzeko. Zurrin jarri da. Gero, begiratu, eta besoetara etorri zait. Atsekabeak ezabatzen ditu iraganeko tentsio batzuk. Garrantzitsuagoa da biok sentitzen dugun sufrimendua. Zure lagun minek ere sentitzen zuten nik sentitzen nuenaren antzeko zer-bait: huts egin genizula denok. Gutako inork ez zuela maila eman zuk eskainitako erronkaren aurrean: maitatzeko erronka guai eta erabatekoa. «Haren lehen amodioa izan zinen», Taniak diost. Eta zu nirea. Beste gizaki batengana iristeko gure lehen saiakeretan, nik egin nuen huts, eta erabat, gainera.

Beilaldian, Love Hotelen, istorioak kontatu genituen. Oroitzen dudana da zer-nolako samurtasunarekin ahalegindu ginen zure muturreko alderdiak sostengatzen. Zure izaera bihozbera eta zure gogortasuna. Zure nahasmena eta argitasuna. Zure poza eta zure malkoak. Zure isiltasuna eta zure aho-bilorik eza. Zure umore gordea eta kritika ironikoa. Eta, gero, maitasunera egiten zenituen jauziak, ez baitzuten parekorik.

Clare eta Tania arduratu ziren zure gauzez. Zure azken egunerokoa eman zidaten. Neuri buruzko amets bat agertzen da, harremana utzi eta askoz geroago-bada ere. Amets horretan, nire zakila hazi egiten da, kono erraldoi bihurtzeraino. Zure gauzen artean zeuden, orobat: Txinan izan zenuen mutil-lagun ingelesaren txeke bat, kobratu gabe. Eta baita ere: nire telegrama bat, triste eta txiki sentitzen zinela jakin nuen egun batean bidali nizuna. Hala zioen: «Pozik egoteko arrazoiak puntu Deng Xiaoping baino altuagoa zara oraindik puntu». Metro bat eta berrogeita bost zentimetro zenituen, hark baino arra bat gehiago. Han zegoen, orobat, zuretzat egin nuen gomazko zigilua: «MU TALDEA» zioen. Zu Mu zinen, eta gu denok, berri, zure taldea. Zure barruko zauria sentitzen genuen. Hura sendatzen saiatu ginen. Nik huts egin nuen. Badakit beste batzuek ere gauza bera sentitzen zutela.

Zure ohera igo ginen eskaileretatik, gutako bi edo hiru aldi bakoitzean. Zure arropen lurrina usaindu genuen. Zure lagunek denbora utzi ziguten Racheli eta bioi han goian bakarrik egoteko, gu hirurok konektatzen gintuen zatiaren dolua egiteko. Txinan egin zenituzten bidaiez hitz egin zidan berak. Lagun minak izan zineten, banekien. Baina ez nekien zer zentzutan. Zuen abenturak kontatu zizkidan, eta, gero, bat-ba-

tean, zure sorbalden edertasuna aipatu zuen. Musuka hasi ginen, gogor, azkar; arropak kendu, bata bestearen gorputzera amildu. Ez zen sexua izan, bizi-grina baikizik, zu izan ziren izaki bizidunaren oroimenean. Zure absentziak gure haragian utzitako zauria sendatzeko ahaleginean. Ondoren, elkarren ondoan etzan ginen, besarkatuta, eta luzaro negar egin genuen.

Oraindik badaukat zure egunerokoa. Eta zure argazki bat ere gordetzen dut, marko batean jarrita: niri begira zaude, lanean ari naizen bitartean. Nire zereginean jarrai dezadan, behiala biok sinetsi genuen zeregin horretan. Idazteko, artea egiteko, bitartekoak egiteko, iraultzaren alde, edozein itxura hartzen duela ere. Maite zenuen beste gauza hori maite dut oraindik. Mundua maite zenuen, eta munduan dagoen guztia eta izan daitekeen guztia. Beharbada fedea galdu nuen, eta ez dut sinesten irabaz dezakegunik. Baina munduarekiko maitasuna ez dut inoiz galduko. Ez dut hutsik egingo. Ezin dut hutsik egin. Zureganako maitasunari huts egin banion ere. Mundua sendatzeari huts egiten badiogu ere.

Eta, inoiz maitatu badut, eta maita nazaten aukera eman badiot neure buruari, zu hor zaude pixka bat. Espektatibarik gabe maitatu behar du batek. Itxaropenik gabe amore eman behar du, eta, orduan, maitasuna beldurgabea izango da. Maitasunean ez dago beherapenik. Ez dago trukerik, ez dago transakziozirik munduarekin. Ematen saiatzen gara eta huts egiten dugu, ordainagiririk gabe. Gure burua gaunditzeke eta irekitzeko gaitasunean sinesten dugu; joateko eta joaten uzteko gaitasunean. Maitasunean ez dago amaiera zoriontsurik. Izan daitekeena izan zeneko uneen oroitzapenak besterik ez. Galeraren oroimenaz gainera, beste oroitzapen horiek daude, emandako

guztiaren oroitzapenak, sentitzeko zailak batzuetan. Eman zaiguna onartzea izan daiteke munduko gauzarik latzenetako bat.

«Maitasuna ez da nahikoa», esan zenidan, nahiz eta, batzuetan, gehiegi ere izaten zen zuretzat. Ez da nahikoa mundua salbatzeko.



2.2

CHRISTENI

Ez dut sekula ikusi zure estudioa, Christen, zure «gela bat norberarena». Han dago, Newarken, ibaiaren beste aldean. Han pasatzen zenuen eguna, baita gaua ere, umeengandik urrun egoteko, baina batez ere nigandik urrun egoteko.

Ikusi nuenean, zergatia ulertu nuen. Argia isurian leiho handietatik. Zure liburu kutunekin betetako apalategiak. Harri eta luma politen bilduma txikiak. Mahai bat arte-hornigaiekin, beste bat josteko makinarekin. «Interiors» zure serie handiaren irudi batzuk hormetan. Risografia bat, zu biluzik eta gure lehen umeaz haurdun; urdina eta gorria ez dira guztiz argi bereizten. Espazio bat sortu zenuen, zeurea bakar-bakarrik, Queens-eko gure elkarbizitzaren azkonar-zulotik kanpo.

Bazkari arin bat ekarri duzu, biok jateko: in-txaurrak, fruta lehortua, letxuga eta kinoa. Gero, lekua erakutsi didazu. Garai batean bulegoak zeuden eraikin honetan, artisten estudioak daude orain. Gaurko argazkiak egiteko erabili nahi duzuna erakutsi didazu:

hutsik dago. Hautsez betea, baina argi ona du. Arrastaka ekarri dugu zure estudioko sofa.

Gure ezkontzaren hogeigarren urteurrena da. Egokiera horretarako opari tradizionala portzelana da: ezkon-bikote zoriontsuak, ustez behintzat, ordurako hautsita edukiko du-eta ezkontzan oparitu zioten sorta. Zuri bururatu zitzaizun gure oparia beste zerbait izatea: zure estudiora etorri eta eguna elkarrekin pasatzea. Makillatu egin naiz, eta zuk emaitza hobetu duzu. Profil baxuko *femmearen* oinarritzko gaitasunak ditut. Nahiago nuke azazkalak egin banitu. Soineko batzuk ekarri ditut, tartean zureak izandako zenbait. Ulla Johnson arrosa jarri dut lehenik.

House pixka bat jarri dugu, Honey Dijon-en mix bat. Erritmo hauek baikorrak dira, lagunkoiak, alaiak. Teknoak urduri jartzen zaitu. Housearen kadentzia motelagoaren giroa, berriz, biok konpartitzen dugu. Biok atondu gaituzu: ni neu eta argizko eraztuna. Zuk zuzentzen duzu dena. Nahi duzun lekura joaten naiz. Honey lagungarria zait posatzearen staccato-denbora leuntzeko.

«Landu zure angeluak», esan didazu, eta nire aurpegi hezurtsuaren 3D planoak egokitu ditut kame-raren 2D planora. Modeloarena egitea kubismoa da, alderantziz. «Erakutsi Sally eta Susie». E? A bai, nire titiak. Modeloa zinenean esaten zizkizuten esaldiak errepikatzen ari ote zaren galdetzen diot neure buruari. Jokoan daude emakume gisa ikusia izateko nire beharra eta berak ikusten duena besteei ikusarazten dien emakumea izateko zure beharra.

Hogei urteko ezkon-bizitzan, egitura horri eusten zion asimetriak hamaika modutan huts egin zuen. Hutsegite guzti-guztiak leporatzen dizkidazu, nire errua izan zein ez. Trantsizioa hasi nuenetik, ezin dut

jasan zure erresuminaren aho zorrotza, bizitzaren aurka duzun amorrua.

Haurrek, orain, nerabe-premia konplikatuak eskatzen dizkigute, ez eguneroko zaintza. Minbizia gainditu zenuen. Nik trantsizioa egin nuen. Galdera hau da, maitea: nor gara bata bestearentzat orain?

Soineko arrosa bereziki xarmagarri geratzen da sofa urdinean. Hautsez beteta dago dena, baina argazkian ez da nabarituko. Nire oin elbarriak agertzea nahi duzu; beraz, oinazpiak garbitu dizkidazu, paperezko zapiekin. Nire oinak gustuko zenituela esan zenidan, eta oso litekeena da ni une horretan maitemindu izana zurekin. Inork ez zidan halakorik esan inoiz. Dardarka ari dira, oso sentikorrak dira. Orbainen inguruan bereziki, baina baita oinazpietan ere. Hor ukitzeak gainkarga sentsorial handiagoa eragiten dit nire dildo kutunarekin ipurditik jasotzeak baino. Baina ezin esan larrutan egin didazunik azkenaldian.

Zure margolan batzuk sartu nahi dituzu irudietan. Eskuz egindako kartelak dira, protestetan erabiltzen direnen antzekoak. Nire trantsizioaren harira sentitu bai baina esan nahi ez zenituen gauza guztiak dira. Estudio honetan, bakarrik, egunez eta gauez kartoitan idatzitako gauzak. Orain eskuan daukadanaren letrak zuriak dira, ertz beltzekin, hondo urdin argi baten gainean:

Berari begira geratzen naiz. Ez diot garrasika esaten: «Zure usaina desagertu da! Orkiektomia egitea hautu bat da! Ez nazazu utzi! Maite zaitut! Beti maite izan zaitut». Galletak jaten ditut.

Margolan horrekin negarrez hasten naiz. Beste honek, berriz —malba, arrosa, ziana eta herdoila—, barea eragiten dit:

Denaren errua leporatzen diodala dio. Baina ez al du mundu guztiak egiten hori? Ez dut astapotro bat izan nahi, baina babes tinkoa emateko eskatzen zait, nahiz eta joko-arauak etengabe aldatzen diren. GEHI: ondo geratzen zaio 90etako Betsey Johnson azpi-soinekoa, nirea izandakoa. Barkaezina.

Margolanek dozenatik gora sentipen pizten dizkidate. Besteak beste, margolanak ikusten uzten dizazu, eta horrek pentsarazten dit ezen, urruntzen ari bagara ere, elkarbizitza-geruzaren bati eutsi ahal izango diogula.

Ez dut uste nire transexualitateak harritu zintuenik. Ez guztiz heteroa, ez guztiz gaya, bizitza oso bat ukazioaren ukazioaren zain, hori izan baitzen nire trantsizioa. Neuk adina zenekien zuk. Hala uste dut. Egiazko ustea da? Edonola ere, nigandik banandu nahi izateko motiboa ez da hori, edo ez behintzat motibo bakarra.

Soineko jakin bat jar dezadan nahi duzu. Arrosak ditu, zetazkoa da. Lepo luzea, mahuka motzak. Ez da batere nire estiloa. Jarri egin dut hala ere. Ondo samar geratzen zait. Zure amarena zen. Berak egin zuen. Soinean dudala, argazkiak atera dizkidazu.

Zirkuitu emozionalen bat itxi da, nahiz eta ez dudan uste biotako inork dakienik sentipen horietako zeintzuk diren oraingoak. Gaztetan galdu genuen biok ama. Zulo horrek elkarrengana hurbildu gintuen, baina ez ginen gai izan, ez zu eta ez ni, bestearen hutsunea betetzeko.

Gure hurrek galdu egin zintuzten ia. Jasanezina egiten baitzait horretan pentsatzea, nire buruan desgertu egin da zure minbizia, eta ez da inoiz itzuliko. Nire senear eusteko, irmo sinesten dut ni baino geroago hilko zarela. Zu baino hamar urte zaharragoa naiz;

beraz, probableena hori litzateke, baina jainko ezezagunen jostailuak baino ez gara azken batean.

Ondo ezagutzen ditut maitasuna eta heriotza, eta ezagutza-maila horretan konektatzen dugu.

—Ni baino lehenago hiltzen bazara — diotsut—, elegia zinez on bat idatziko dizut. Dibertigarria eta maitekorra eta laburra.

—Ni baino lehenago hiltzen bazara, nire elegia ere ona izango da...

—Oso luzea, nire akats guztiak zerrendatuz.

Akats den-denak oroitzen dituzu, eta nik ez. Ezin dut neure burua ikusi zuk minduta zaudenean ikusten nauzun moduan. Ni gorrotatzeko dituzun arrazoi batzuk benetakoak dira. Gauza horiek esan eta egin nituen. Besteei eta niri buruz ondo pentsatzea lortzen dut —eta baita zuri buruz ere—, kontrako frogak alde batera utziz.

Egia esan, gogoan ditut zuk esandako gauza batzuk. «Maite zaitut, baina nahiago nuke hala ez balitz». Edo beste hau: «Zergatik ez zenuen trantsizioa egin oraindik zurekin hitz egiteko gogoia neukanean?». Azken horretan, talentu komiko handia ikusten dut.

Williamsburg-en ezagutu genuen elkar, lau-rogeita hamarreko hamarraldian. Zure pisukide australiarraren logela azpialokatzen ari nintzen. Gero: distantzian segi genuen zenbait urtez. Sydneyra etorritzen zinen, ni New Yorkera. Eta gero: Londresen elkartu ginen, etorkizunik ba ote genuen ikusteko. Amodioa inperioaren bideetan barna.

Sydneyn ezkondu. Geuk forjatutako zilar-eraztunak eman genizkion elkarri. Nirea ganbila, zurea ahurra. Bat egiten dute. Botoak trukatu genituen. Zeremoniaren gidariak zuri galdetu zizun «emakume hau hartzen al duzu...?», eta niri, aldiz, «gizon hau har-

tzen al duzu...?». Eta, ustez halakorik desio ez genuen arren, zein erraz erori ginen gauzen ordena konkretu batean gizon eta emazte gisa, non nik jokatzeko nuen gizonaren rola, edo, behintzat, butcharen rola zure femmearentzat.

Harronek dio hiru genero daudela: heteroa, bollera eta marika. Hiruretan aproba egin dudanez, beharbada denen erdian nago, apur bat bollerarantz lerratuta. Eta zu?

Emigratu egin nuen. Hutsetik hasi nintzen AEB-ko akademian, ia berrogei urterekin. Egoera prekarioan jardun nuen harik eta lanaldi osoko kontratu bat lortu arte, hiru urtekoa eta berritzeko aukerarekin, graduiko ikasleei eskolak ematen The New School-en: lanpostu hori nire bizitza bilakatu zen.

Bi haur izan genituen, baina ez zait gustatzen haiei buruz idaztea. Orain, nerabeak direnez, gurasotasuna dialektikoa da. Ukatu, gainditu eta ordezkatu daitekeen zerbait izan gaitezen behar gaituzte.

Eta orain, zure estudioan, nor gara? Gizona nintzen, senarra nintzen, aita nintzen. Orain, gure haurrek aita esaten dioten emakume bat naiz. Baina nor naiz zuretzat? Nor gara bata bestearentzat? Gure haurren gurasoak gara, jakina. Eta? Ez dakit zein den etorriko denaren generoa. Soinekoak bildu, eta autoz itzuli gara, zu gidari, oraindik ere gure etxea den horretara. Zuk niri etxetik joateko eskatu aurretik izan zen hori.

Astebete beranduago, gutxi gorabehera, lakuko etxera joan ginen. Urtero alokatzen dugu, beste guraso batzuekin, udara pasatzeko. Zure autoa hartu dugu. Hainbat urtez kontra egin ostean, amore eman nuen, eta dirua eman nizun Subaru bat erosteko: auto les-

biko ikonikoa. Lige gutxi-asko hetero batetik haustura gutxi-asko lesbiko batera: horra hor gure *road movie*a.

Lakuko etxean geundela hain zuzen, duela udarra batzuk, muinora igo nintzen; perretxikoak jan, eta trantsizioa hastea erabaki nuen. Trantsizio berantiarra gauza dibertigarria da. Dianaren ustez, bi motatako jende transa dago soilik: ezkutatu dezaketenak eta ezkutatu ezin dutenak. Ezin dutenek, esleitutako sexuaren oskoletik atera behar dute zis munduan bizirik irauteko baliabideak eta ahalmenak izan aurretik ere. Ezkutatu dezaketenek, berriz, eginahalak egiten dituzte —ditugu— zis munduan agertzeko. Mundu horren parte izatearekin amesten dugu. Beharbada, gutako batzuk mundu horren parte gara. Zortetik izanez gero, armairutik ateratzen gara geure burua suntsitu gabe. Diana bezala, ni ere ezkutatu egin nintzen, baita neure buruaren aurrean ere, oso luzaro.

Lakuko etxean. Oraingo honetan, haurrak beste norbaiten kargu utzi eta elkarrekin hartu ditugu perretxikoak, ur-ertzean. Adarbakar puzgarria hartuta uretan sartu zara —zure elementua da—, eguzkitan alderrai ibiltzera, zuhaitzen dirdaia behatzera. Ni, berriz, tristuraren barrunbe sakon hotzetan murgildu naiz. Han beheko Kelvin-hotzaren tiraldia sentitu dut.

Izaeraz, epela baina urruna naiz: mundu-ikus-kera komiko bat, eta, horren azpian, korronte hotzak. Ama hil zenean ukitu nuen lehen aldiz hoztasuna. Gaur ez dut flotatzen, hoztasunetik irteteko ahaleginetan ari naiz, sakoneratik bueltan nator, beste geruza batzuetan barrena, hotzak horiek ere, baina ez izotzezkoak. Tristura lasai bat baino ez: porrot arruntaren tristura, denbora hutsalarena, pasatzen utzitako bizitzarena. Emakume bihurtzea hain berandurako utzi nuenez emakume-bizitza oso laburra izatearena.

Uretatik atera zara, adarbakarra herrestan dkarzu, adar puzgarritik helduta. Ur-ertzean aurkitu nauzu, negarrez. Besotan heldu didazu. Egiaz ez naiz gai sakonuneaz hitz egiteko, hotzaz hitz egiteko. Hitz batzuk atera ditut, baina korrontea hain da arina, hizkuntza hondoratzen baitu. Diostazu —eta halako gauzetan ni baino askoz jakintsuagoa zara— sentipenak ez direla egitateak. Diostazu, hala eta guztiz ere, emozioek zerbait adierazten digutela. Entzun eta ikasi, besterik ez. Diostazu tristura hau joan egingo dela berriro, tarte batez.

—Betidanik jakin al duzu pertsona tristea nintzela?

—Noski, nolabaiteko genero batekoa zinela nekien moduan.

—Baina ez dut uste bi gauza horiek lotuta daudenik.

—Esaten dudan bakarra da biak nekizkiela.

Laurogei urtera iristen banaiz, beste mila aldiz injektatuko ditut estrogenoak —estradiol-baleratoa— ipurtzulotik: suspentsio oliotsu horren bi litro denera.

Jakina, atzean urte gehiago utzi ditut aurrean geratzen zaizkidanak baino, baina orain bizi ditudan urteek badute halako intentsitate trinko bat, iraganak gero eta oihartzun gehiago eragiten baitu orainean.

Ni baino beranduago hil zaitezen behar dut. Nire ama ez bezala. Hasieratik izan zaren moduan iraun dezazun behar dut: indartsu, bizitasun handiko. Hotzikara nik baino hobeto jasan dezazun behar dut, nire gorputzak baino hobeto jasan dezazun. Baina, nire amak bezala, minbizia izan zenuen, adin berean gutxi gorabehera. Eta, zure tratamenduaren proba guztiak pasa ahala, ni baino beranduago hilko zinela sinetsi

behar nuen. Ez nintzen joan nire amaren hiletara, eta ez naiz zurera joango.

Ezkontza oro identifikazio oker bat da. Hori onartzen duzunean, gauzak interesgarri bihurtzen dira benetan. Baina kontua ez da bata bestearen egiara iristen zaretela. Gehiago da lehen identifikazio okerra alde batera uztea eta haren ordezkioak bilatzea. Beharbada, nire lehen identifikazio okerra izan zen zu emakume bat izan zintezkeela munduan, nire partez. Ez nuela neronek izan beharko. Ni baino altuagoa zinen, indartsuagoa, politagoa, eta arrainagoa.⁵

Eta, hala ere, zuregana sentitzen nuen maitasuna sakona zen; hotsunean urperatu zen bete-betea. Maitasun horrek, nahiz eta gaizki ulertu zintuen hainbat modutan, egiazkoa izaten segitzen du. Hori da gogorrena. Maitasuna guztiz erreala izan daitekeela, eta, hala eta guztiz ere, bere burua edo maite duen hori ez errekonozitu. Hori da gauzarik egiazkoena, eta hala eta guztiz ere maitaleak konektatzen ditu, beren burua eta bestea ezagutzen ez zuten maitaleak. Maitasuna krisian dagoenean, gure irrealasuna erakusten digu. Nia ezerez bat da.

Gauzak bildu, eta lakuko etxetik New Yorkera itzuli gara, autoz. Biharamunean, Subarua hartu, eta Manhattaneko behealdera joan gara, Reclaim Pride manifestaziora. Biok bakarrik joan gara, haurrek ez baitzuten etorri nahi. Ni utzi, eta aparkatzera joan zara. Joan den udaran, leku berean elkartu ginen batzuk, Layleen Xtravaganza Cubilette-Polancoren izena esatera: isolamenduan hil zen, Rikerseko kartzelan,

5 AEBko *drag queen* kulturean, arraina esaten zaio oso itxura femeninoa duenari.



guardiek haren oihuei entzungor egiten zieten bitartean, barrez eta txantxetan.

Harrotasun-banderak diz-dizka. Mezu bat bidali dizut: sekta troskistaren baten bandera gorriaren azpian nago. Beren aldizkariak eskaini dizkidate, baina ezetz esan diet. Arrazoia izango dute denaren inguruan. Beti dute arrazoia.

Zaila da jendea ezagutzea maskararekin. Tomekin hitz egin dugu tarte labur batez. Jessiek mezu bat bidali dit, haren bila noa. Jessiek bizar-aitzur bat eman dit, sobera dauka. Hunkituta nago ekarri egin didalako.

Protesta hastear dago. Aurkitu zaitut, baina Tom galdu duzu, eta ez dakit non dauden besteak orain. Zurekin egon nahi dut hemen, besterik ez. Danbor-jotzaileengandik gertu gaude; beraz, dantzan goaz kaleetan behera, udaletxea pasa, manifestazioaren bide bihurgunetsuari segika Washington Square-ra iritsi arte. Zu eta biok, berrogeita hamar mila lagunek osatutako jendetzaren erdian. Nash ikusi dugu, eta bersarkada bat eman diot. Maskara daukagu; beraz, uste dut ez dagoela arazorik.

Gertuko egiten zaizkidan pertsona transak ni baino askoz gazteagoak dira. Nire garaiko jende gutxi dago. Asko hilda daude, edo transak direla ezkututzen dute, edo nozio zaharkituak dituzte, gazteen hitzetan esatearren. Nire inguruan, gehienbat, artearen inguruko pertsona transak daude, hogeita hamar urteren bueltakoak —batez ere erdiko klasekoak, eta gehienak zuriak—. (Arraza- eta klase-zatiketak gure mundu txikian ere gertatzen dira). Zer dira niretzat? Inspirazioa. Zer naiz haientzat? Ez dakit.

Oinak huts egiten hasi zaizkit. Autoa gertu dagoela esan didazu, eta alde egin dugu. Riis Beach-eko eremu gayra joan gara. Uda honetan itzuli naiz hondar-

tza-kulturara lehen aldiz berrogei urteko etenaldiaren ostean, betiere hondartza hori espazio marika bat baldin bada, Alexek esaten duen moduan.

Eta bada. Harrotasun-banderak hareazko gotorlekuetan zut. Edertasun honi so. Emakume beltz trans eta altu gisa identifikatzen dudan pertsona bat ikusten dut hondartzan gora eta behera paseoan. Bainujantzi beltza soinean, hankartea bildu gabe.

—Hori izaten nintzen ni —diozu—. Hondartzan oinez ibiltzen nintzen, arreta bila. Jendeak begira ziezadan.

—Ziur naiz lortzen zenuela.

Zis gizon beltz gay gisa irakurtzen ditudan batzuk barrezka ari dira elkarrekin, bata bestea ukituz. Haietako bi urrundu egiten dira, baloiarekin paseak egitera, eta bat gure gainera erortzen da halako batean. Hain ederra denez, ez zait axola.

—Badirudi gizonak gustatzen zaizkidala oraindik —esaten dizut, isilka—, baina soilik oso-oso katxarroak badira.

Bai, badakit. Problematikoa da: gizon horren belztasunak zer-nolako zerikusia duen beraren gorputzaren edertasunaz dudan ikuskeran. Beraren ipurdi estua speedo-galtzetan. Beraren durag laranja haizeboladek astindua, mihi aske baten moduan. Baina ez da gai baloia harrapatzeko eta botatzeko. Gorputz horretako gihar perfektuak gimnasioko artefaktu bat dira. Estetikoak dira, ez atletikoak.

Zure gorputzetik gertu egon nahi dut. Orain arte, gertutasun hori sexuaren eremuan sailkatuko genuke. Baina ez zait iruditzen modu horretan desio nauzunik jada. Ez dut bide hori probatu nahi ere, ez baitut arriskuan jarri nahi gure arteko hurbiltasun martsupiala, irauten duen bitartean.


Ez dut nire gorputza ezagutzen jada. Nire gorputza arakatzen ari nintzen, beste batzuekin larrutan egiten —emakume transak batez ere—, baina COVID-19aren konfinamenduak eten zuen hori. «Ezkon-bikote ireki» bat izan genuen luzaroan. Zuk salbuespen hori erabili izan zenuen iraganean, nik ez. Armairutik atera ostean ekin nion estreinakoz.

Hondartzan sentitu dut lehen aldiz gure gorputzen arteko harremana aldatu egin dela orain eta betiko. Gauzak ondo egon dira gure artean azkenaldian, baina atezuan nago beti, noiz minduko zaren berriro nirekin, eta, trantsizioa egin nuenetik, ez naiz hori jasateko bezain indartsu sentitzen emozionalki. Jada ez daukat maskulinitatearen altzairuzko xafra bihotzaren gainean, zure sentipenek eragiten dizkidaten sentipenetatik babesteko.

Ekaitz-hodeiak sortu dira, eta alde egin dute gero. Freskoago dago orain. Bai egun ederra. Film bateko protagonistak izan gara. Etxera itzultzeko ordua.

Biharamunean, estudiora joan nahi duzu, baka-rik egotera, nigandik eta haurrengandik urrun. Jaten eman diet, eta haiek zikindutakoa garbitu. COVID-konfinamenduko bizimoldea. Gu laurok komun bakarreko apartamentu txikian. Orain, hurrek eta nik entzun-gailuak jarri ditugu. Elysia Crampton-en kantu batean babestu naiz —Jessiek bidali zidan—, barruraino sartu zait, geruza epel zein hotzak zeharkatuz. Armaduraren hotsa nire gorputzetik erortzean.

Gorputz hau, nire gorputza esaten diodana batzuetan, kanpo egoten da batzuetan, beste nonbait. Barruan, orain, soinua daukat, geruza geologikoen eta eonen soinua. Soinu eta haragizko estratu geologikoak. Guztiz aldi baterakoa. Mundu honetan guztiz aldi ba-



terako sentitzeak ez du axola mundua bera ere guztiz aldi baterakoa izango dela sentitzen dudanean.

Izateko modu bat aurkitu nuen, eta, beranduegi aurkitu nuen arren, ez naiz damutzen. Nire bizialdiaren puska handi bat zurekin bizitzeko aukera eduki dut. Zelako garaiak izan ditugun! Zelako garaiak ahaztu ditugun. Zelako garaiak ditugun oraindik barrenean, bata bestearengan, beste modu batean, gure bizitza ez-barkatua.

Nor bihurtzen ari naizen ikusi eta sentitu nahi dut, baina susmoa dut jada ez nauzula gustuko. Jada ez nauzula maite. Arakatzen nabilen munduak uki ditzazun nahi dut, batzuk behintzat. Bitxia izan zen nire neska-lagun Jenny ezagutu zenuen eguna. Gau bateko ligeen ostean, erreboteko amodio-istorioaren ostean, non maitatua sentitzen nintzen baina neronek ezin nuen maitatu. Horren osteko ligeen ostean. Jenny da nirekin dantza egiten duena. Maite nauena eta orain maita dezakedana. Identifikazio oker bat atzera ere, samurra eta berria.

Luzaro, oso luzaro, trantsizioa egin aurretik, pasabideak topatu aurretik diruaren eta maitasunaren, sexuaren eta heriotzaren labirintoetan, iruditzen zitzaidan gertutik segitu behar niola kalte egin ziezaguketuen gauza guztiei, elkarrengandik alden gintzaketen gauzei. Zori gupidagabearen aurka blindatuta, prest agertzen nintzen, orobat, erdiko klaseko kezken gotorlekuaren barrutik tarteka abiatzen zenituen erasoaren kontra. Orain, berriz, axola zaidan bakarra zera da: zuk, nik, haurrek, korrontean igeri egiteko aukera izatea, pasioz sentitzea, aske maitatzea, bizitzaren arteak lantzea; hemen, borroka eder honetan.

Zerk aldatu zuen nire aldartearen? Hamaika gauzak: hormona hauek, maitasun honek, pandemiak,

gure diruak, zure biziraupenak. Oraina bakarrik existitzeak, eta etorkizun handirik ez egoteak.

Baina galdera bat daukat:

—Nola ikusten gaituzu etorkizunean?

—Eskerrak Emateko Eguna ospatzen ari gara elkarrekin, landa-eremuan nonbait. Haurrak bertan daude, eta beren maiteak ekarri dituzte. Zu zure kidea-rekin zaude, eta ni nirearekin, eta elkartu egiten gara eta eskerrak ematen ditugu, nahiz eta nork bere bizimodua daukan.

Niretzat, hementxe da politikoa pertsonal. Nire barruan geratzen den borroka honako hau da: mundu bat lortzea non denok elkarrekin eseriko baikara Eskerrak Emateko Egunean, maite ditugun guztiekin, eta non aulki bat utziko baitugu libre, behar duenarentzat.



2.3

JENNYRI

Goiz joan ginen lotara, goiz esnatzeko, rave-ra joateko. Goizeko laurak dira. Mokadu arin bat jan dugu, kafeina sartu gure gorputzetan. Jatekoak utzi. Arropa aukeratu. Jaka arinak soinean. Udaberria da, baina hotz dago oraindik. Rave-zorroak prestatu ditugu. Kokalekua egiaztatu. Auto bati deitu. Kale ilunak, gau anila, izar distiratsuak.

Atezaina ezaguna dugu. Asko gustatzen zait haren energia. Besarkada bizkor bat, eta barrura. Betaurrekoak lausotu zaizkigu. Ez dugu ezer ikusten. Dena entzuten dugu. Dena sentitzen. Zabor-poltsa bat ekarri dugu jakentzat. Jakak gorde, eta ezkutatu egin ditugu. Lagunak agurtu, besarkatu. Ura erosi. Belarritapoiak jantzi. Prest gaude.

Aurrealdera joaten gara beti. Azpibaxua sentitzea gustatzen zaigu. Kaxa handitik datorren brisa gustatzen zaigu. Leku hori topatzen ahalegindu gara. Mugitzen den leku hori. Denbora pixka bat behar da. Soinuaren barrura mugitu gara. Soinuari haragian sar-

tzen utzi diogu. Mugitzen ari gara, baina oraindik ez gara lekura iritsi.

Gorrito ditugu inguruko guztiak. Beste giza-ki guztiak gogaikarri totalak dira. Telefonoak eskuan, ozen mintzatzen dira. Ez diote erritmoari uzten barrura sartzen, larrua jotzen. Aldaka aldakarekin daude, bikote-forman, beste guztiei entzungor eginez, aretoan sigi-sagan Roomba bat bezala.

Beste norabait joan gara. Hobeto gaude hemen. Ez da hain gogaikarria. Orain gustura gaude. Dantzan ari dira denak. Dantzan ari gara denok. Dantza gara, besterik ez. Elkarren gorputzak sentitzen ditugu, eta besteari sartzen uzten diogu pixka bat. Elkarrekin gaude zera honetan. Edozer delarik ere. Denbora da, eta gauza oro gure adiskidea da.

Zenbat denbora pasa dugu hemen? Zenbat denbora eman dugu dantzan? Nola iritsi gara hona? Beste olatu honetara. Denboraren poltsiko batean gaude, eta, han, denbora gehiago dago. Zeharkako denbora batean gaude, zeharkako hedatzen gara. Pisurik gabeko egun, segundo, milurtekoetan barneratzen gara. Erritmoaren neurriaren beste aldean, denbora neurririk gabea dago.

Disoziazio-momentu batean gaude. Ez disoziazio txarra, baizik eta ona. Mundu honetatik atera gara. Pentsamendu horiek hemen daude oraindik. Sentimendu horiek ere bai. Ez zaizkigu ardura. Gorputza hemen dago oraindik. Haragi generodun hau jasan dezakegu. Bagoaz. Bagoaz gogor. Joan gara.

Gero itzuli egin gara. Zenbat denbora pasa dugu grabitate-denbora honetatik at? Ez zait axola jakitea. Egarririk gara. Nekatuta gaude. Mina daukagu. Atsedenal-di bat egin dugu. Ura edan. Txokolate pixka bat jan, beti ekartzen dugu aldean. Txoko batean eseri gara. Musuka hasi. Beroa sentitzen dugu, gorputzen lurruna.

Inguruko gorputzak sentitzen ditugu, gugandik bereiz eta hala ere hemen. Aire, laino eta izerdi berean biraka. Beroa egiten du. Haizea eman diogu geure buruari. Atseden hartu dugu.

Bagoaz berriro. Dantza berriro. Joan gara berriro zeharkako denborara. Gugandik urrundu gara, beste denbora horretara sartu. Zeharkako itsasaldiak garamatza.

Ahaztu egin dugu. Gauza mordoa daukagu ahazteko. Denbora daukagu ahazteko. Mundua daukagu ahazteko. Minez dagoen mundua. Mundu osoak dauka disforia. Mundutik eta haren urtaro okerretatik atera gara. Beste mundu batera. Erritmo-kolpe baten eta hurrengoaren arteko arora. Teknoa gustatzen zaigu erritmo bizkorra delako, eta tarteetan tolestuta dagoelako, ugari, beste denbora oker hori.

Argia aldatu dela sentitu dugu. Badator egunsentia. Gortinako zirrikitu batetik eguzki madarikatuaren dirdirak laztantzen gaitu. Apur bat gehiago dantzatu, eta geratu egin gara. Jakak aurkitu ditugu. Brooklyneko kaleetara atera gara, oinez. Zeru handi honen pean gaude. Azal elektrikoa daukagu.

Bueltan gaude. Gortinak itxi. Ura edan. Masus-tak eta pistatxoak jan. Raveko arropak erauzi. Piltzar izerdituak. Dutxarik ez dugu hartu. Ohean etzan gara. Elkar ukitu. *Ambient* musika jarri. *Ambient* denboran murgildu.

Gela txiki honetako airean gaude, kandelak eta fantasiazko argiak piztuta. Gure lagunek egindako artelanak daude paretetan. Gure lagunek idatzitako liburuak apaletan. Gure lagunek sortutako musika airean. Ezin gaituzte ikusi, ezin gaituzte entzun, ezin gaituzte irakurri. Beste rave-mota bat da. Ez daukagu



denbora askorik. Bihurgune hori hartzen dugu, haren deian jariatzen gara. Hemen gaude. Osatzen. Etxean.

Jenny, zuretzat idatzi nuen hori, eta hau eran-tzun didazu zuk: «Hemen gaude, osatzen, etxean: adierazpen samurra iruditzen zait, baina neurtua. Sentitu egin nahi dut. Elkarrekin gaudenekoa eta aparte gaudenekoa aztertzen ditut. Nire izatearen zer zati jar dezaket hemen modu seguruan, ohetik eta dantzalekutik kanpo? Etxea den maitasun bat nahi dut. Hori da maitasuna niretzat, hemen, munduaren amaieran. Hemen, nire bizitzaren erdialdean. Bihar ere hor egongo den etxe bat. Eta, ez badago ere, hori sinesteko baimena dut».

Biok dauzkagu iheserako taktikak. Luzaroan ez naiz aski seguru sentitu nire zaurgarritasuna era-kusteko. Eta, horren azpian, gainera, beldurrak jotako haurtxo triste hori izaten segitzen dut. Beharbada, etxea hau da: bizitzak beldurtzen ez gaituelako itxura-rik egin behar ez dugun lekua. Leku bat non ez baitugu gure zauria geure bakardadean zaindu behar, bestea-rengandik bereizita. Zutaz eta nitaz eta gu biotaz eta Ethel Cain-en kantu horretaz pentsatzen: badakit egiazkoa dela etxe deitzen nauzunean.

Tinderren ezagutu genuen elkar. Christen eta biok banandu eta nik etxetik alde egin nuenetik bi ur-tera. Brooklynen ematen nuen ia aste osoa, pisukide batekin bizi nintzen. Aske sentitzen nintzen, baina ba-karrik: konpainia behar nuen, emozionala edo sexuala. Aplikazioetan bilatzen nuen, baina ez nuen matchik lortzen. Nire profila ezabatu, eta hutsetik hasi nintzen berriro: berrogeita hemeretzi ez baizik berrogeita bede-ratzi nituela esan nuen. (Itxura ematen nuen). Matchak lortu nituen.



Tinderreko desabenturak: transa naizela esaten dudanean, ondo iruditzen zaiela erantzuten didate, bitxikeriak gustatzen zaizkiela. (Gero, ghostinga egiten didate). Beren barruan hainbat nortasun bizi direla diote, eta haietako bat bakarrik dela emakumea. (Bainu bat behar dute denek). Ez nintzela gizon gisa gizarteratua izan frogatu dezadan behar dute. (Baina gizon gisa gizarteratua izan nintzen, eta ona nintzen horretan). Garrasi egiten dute titiburua samurki estutzen diedanean. (Diotenez, ez dute hormonarik hartzen). Baieztatzen didate ez dutela erakarmenik sentitzen niregana, ez erromantikoa, ez sexuala. (Baina larrua jo nahi didate hala eta guztiz ere). Larrua jo nahi didate jakin-minagatik, nire liburuak irakurri dituztelako. (Edo haien berri izan dutelako). Geroago onartzen dute nahi gabe eman ziotela eskuinekoari. (Baina gero nire idazketak xarmatu zituen). Eta, gero, beste jaun horiek daude, zakilen argazkiak bidaltzen dizkidatenak...

Zurekin match egin eta gero, ez neukan itxaropen handirik. Idazketa eta liburuak gustatzen zaizkigu bioi, eta Lower East Side auzoko liburu-dendak ikustera joatea proposatu dizut. Hitzordu bat dugu.

Liburu-denda batean, ozpinetakoak saltzen dituzte, eta zuk erosi egin dituzu. Dendatik atera bezain pronto zabaldu duzu potoa, berehala dastatu dituzu. Une horretan sentitzen dut. Plazera aldarrikatzearen ekintza sinple hori. Atsegin hartzeko gaitasunaren ikuspegi azkar bat. Ez dakit zuk noiz sentitu zenuen desio ninduzula.

«Maitasunak beti topatzen duen neska-mota zara», diost nire adiskide Pet-ek. Beharbada, baina hasieran bertan kontua izorratzeko zorian egon nintzen. Gezurra esan nuen nire adinari buruz Tinderren, eta gero ez nuen onartu hala egin nuenik. Tontakeria ba-

tengatik harrapatu ninduzun: nire hirurogeigarren urtebetetzeko festa erakutsi nuen Instan. Ez zintudan festa hartara gonbidatu. Nirekin irauteko prest agertu zinen, zorionez. Orduz geroztik, ahalik eta zintzoena izaten saiatu naiz, kontuan hartuta gizakia naizela eta gizakiak lehenik eta behin beren burua engainatzen duten animaliak direla.

Urtebete pasatxo jadanik. Elkarrekin segitzen dugu. Ezin dut gure istorioa kontatu, ez baita istorio bat: espiral bat da, egoera bat, rave bat.

Rave bila abiatzen gara asteburu gehienetan. Gure buruaren barruan egoten gara asko. Soka horretakoak gara. Lortu dugu gure burmuin arraroek gure alde egin dezaten. Gu bezalako jende bezetara dago New York. Agintarien klaseak behar du guk jarrai dezagun gure okerdurak gehitzen informazio-stock komunari. Gure garun bitxiak salgai daude. Ondo ordaintzen digute gure burmuin-lan arraroaren truke. Horrela ordaintzen ditugu alokairu ezinezko hauek. Beste arraroengandik gertu egoteko beharra dugu. Okerrak izanez elkarrekin, hiri honetan, edo hiri honen zati batzuetan behintzat, arnasa hartzea bezain arrunta baita hemen arraroa izatea.

Denbora asko pasatzen dugu gure buruaren barnean; horregatik, gorputzera itzultzeko premia izaten dugu. Ez bakarrik dantza, raveak ere egiten ditugu. Begiratu dantzaleku honetan dagoen jendeari: burmuin-langile bitxiak, zerbitzu-langileak, sexu-langileak. Denak ari gara dantza eta dantza, norbere izatea galtzen den arte.

Ez dut gauza askorik kontatu nahi zuri buruz. Hona hemen xehetasun txiki bat bakarrik. Zure eraikineko katu alderraiei jaten ematen diezula. Ekaitz baten erdian etxean hartu zenituela, baina gero libre utzi ze-

nituela berriro. Bizi daitezen nahi duzula, baina katu bizi daitezen.

Esana dizut, esango dizut: maite zaitut. Gure esku dago hitz istorioz zamatu horren esanahia asmatzea. Bizitzan geroago datorren maitasuna. Kuirrek transengana duten maitasuna. Maitasuna hogeitako adin-aldearekin. Maitasuna mundua amaitzen ari denean. Arnasa hartzen dudana bezala maite zaitut, hurrengo arnasaldia iritsiko dela dakidan ziurtasunarekin. Nire azken hatsa zurea baino askoz lehenago izango delako probabilitatearekin.

«Hona nire beldurrik handiena: hau zuretzat serioa ez izatea, aurrez izan dituzun maitale guztien kontrara. Denbora biraka dabil zure ezkontzaren eguzkiaren inguruan, eta, orain, eguzkia ezkutatu eta bakarrik sentitzen zaren honetan, hor nago ni».

Biok maitatu ditugu beste batzuk honen aurretik, eta maite izan gaituzte. Beharbada ez naiz oso trebea izan sekula, baina saiatzen naiz. Zurekin maiteminduta nago. Ikasten saiatu naiz zer ekar diezaiokeen iraganak maitasun honi. Ez gara Romeo eta Julieta, ezta Julieta eta Julieta ere. Mito hori. Onar al dezakegu beste aukera bat, hau da, onar al dezakegu ezen inozentea ez den maitasun bat, ez dena bikote heteroa, ez dena munduari bizkarra emateko modu pribatizatzaile bat, izan daitekeela ez gutxiago baizik eta askoz gehiago? Izan al daiteke etxe bat gu biontzat eta, horrez gainera, etxe bat munduan? Izan gaitezen etxe.

Eta gero, baita ere: maita dezake transexual batek, eta maitatua izan? Galdera hori egin nion neure buruari, eta serio, gainera, armairutik atera nintzenean, nire ezkon-harremana amaitu zenean. Erantzuna, edo, hobeto esanda, erantzunak, bai dira, noski. Transe-

xual-mota bat baino gehiago dago. Eta maitasun-mota bat baino gehiago.

Nire lagun Evak kontatzen du zer-nolakoa den hilda jaiotzea. Ni ez nintzen era horretako transexuala izan. Nik, izan ere, ezkuta nezakeen, arreta kendu, desbideratu; mota horretakoa nintzen. Hainbestearino non beste norbait bihurtu nintzen. Munduan jardun nintekeen, aribidean aritzerik balego bezala; mota horretakoa nintzen. Etorkizunean bizi nintzen; mota horretakoa nintzen. Modernoa nintzen. Etorkizun hobe bat eraiki zitekeen hurrengo belaunaldientzat. Ez nintzen hilda jaio ziren horietakoa; niretzat, edozein unetan presente egotea ez zen gauza txundigarri bat, intentsitatez josia.

Espazioaren disforia: badirudi nire gorputza okerra dela, baina agian nire gorputza ondo dago eta mundua da, aldiz, oker dabilena. Beharbada munduak ez ditu onartzen halako gorputzek espazioan egoteko dituzten moduak.

Denboraren disforia: garai hau oker dago. Emakume transek bizi duten denbora disforikoa. Zis emakumeen gorputzen istorio-arku generikoa ibiltzen ez duten gorputzak. Nola maiseatzen gaituzten! Baita gure lagunak direla esaten dutenek ere. Hain da mingarria guztiz oker dagoen denbora-gorputz batean harrapatuta egotea. Ez digute zertan gogorarazi.

Zurekin ez naiz hala sentitu inoiz. Inkontziente-ki ere, sentsazio hori aurreztu didazu. Zer berezia den hori. Nola uzten didan arnasa hartzen. Nola uzten didan zure besarkada onartzen.

Eskutik heldu didazu jendetzaren erdian, abortu-eskubidearen aldeko manifestazioan. Zuk, inoiz haurrik izan nahi ez baina haurdun gera zintezkeenak;

ni, haurdun geratu nahi eta ezin zuena. Aita bilakatu zena eta emakume bilakatu zena.

Eskutik heldu didazu dantzalekuan, eta aurpegian kolpe bat eman diodan gizonarengandik aldendu nauzu. Nire kontra igurzten ari zen, beste batzuen kontra ere bai, zakila kanpoan, jaka bat besoan jarrita, ezkutatzeke. Batzuetan, babes nazazun behar dut. Zure altuerarekin, zure indarrarekin. Oinak zis munduan finkatuta dauzkazula, eta besoak luze, zeure kuirtasunaz gainera ni naizen hori ere besarkatzeko beste —dena delakoa naizela—.

Ez nuke esango orain transa izanda nire egia bizitzen ari naizenik. Esango nuke orain transa izatea fikzio hobe bat dela. Hauxe da gorputz honen literatura-generoa orain. Horrela hartzen du arnasa erraz. Esanguratsua da zer eskatzen zaigun transexualei: trantsizioa egiteko, izate egiazko baten jabe garela adierazi behar dugu; beste gorputz-mota batzuei ez zaie halakorik eskatzen. Memoriak —egiazko nortasunaren kontakizun aitortuak— eskatzen zaizkigu. Pikutara horrekin.

Neure burua zuri azaltzeko beharra sentitzen dut oraindik, nahiz eta ez didazun antzekorik eskatu inoiz. Emakumea nintzen, gorputz hau nintzen bere burua nahi bezala sentitzen, munduak behin eta berriro nire jaiotza-eskubidetzat aurkezten zuen maskulinitatea larru-arras moztuta, txortan gogor egiten zidatenean. Eguneroko disforia lausoa zen, baina une horretako euforiak bazuen argitasun saihestezin bat. Arnasaldi zorrotz eta distiratsu hori.

Dantzan ere sentitzen nuen batzuetan.

Hari-mutur hauek labirinto batera naramate: gorputzaren sexua deritzo. Gutxi ausartzen dira hara, eta ausartzen direnek itsumustuan jokatzen dute.

Hainbeste bidegurutze, hainbeste aukera haria galtzeko, hondoa jotzeko, beste inork zu bizirik jateko, baina badaude labirintoa zeharkatzeko moduak ere. Mundu guztia ez da onik ateratzen beste aldera. Ni neu emakume transexual gisa atera nintzen. Beste batzuk, berriz, beste konfigurazio batekin irteten dira, eta etorri ziren tokitik itzultzen dira. Gorputzaren sexua aukeren ile-bola bat da. Nireari buruz baino ezin dezaket hitz egin.

Gorputz hau hackeatu egin nuen. Kastrazioa: psikoanalisten arabera, emakume transexualen arazoa omen da modu literalegian hartzen dugula kontua, baina, nire ustez, haiek modu metaforikoegian hartzen dute. Haiek ez bezala, nik nire esperientziatik hitz egingen dut. Neska batek barrabilak moztu ditzake sinpleki, galiarrek antzinako garaietan bezala —Zibele jainkosaren abadesak ziren—. Sendabidea antzinakoa eta modernoa da, eta ez berriketa hutsa.

Jenny, lana da jeloskortasunik ez sentitzea. Zis emakume baten gorputzera hurbildu naiz neurri batean, baina ez dut imitazio bat izan nahi. Eskura daukagun teknologiarekin, gorputz bat sortu dut, beste zerbait den gorputz bat. Diferentziarekin nola bizi naizen: haragi honetan nago, bere horretan artelan bat balitz bezala. Politikoki, «emakume transak emakumeak dira». Baina, estetikoki, beren diferentzia besarkatzen duten t-neskekin nago. Sentipen txarrei buelta eman, gure izaera erorian atsegin hartu, eta geure modura polit bihurtzen garen neskekin.

Beharbada zis emakumeak eta emakume transak hobeto konponduko ginateke baldin eta onartuko bagenu den-denok senti dezakegula jeloskortasuna bata bestearen gorputzarekiko. Guztiok tormentatzen gaituzten Emakume Idealaren hurbilketarik bikainenetako batzuk transak dira: altuak, lirainak, aldaka

estuekin eta hilerokoaren minik gabe. Amorragarria dirudi emakume trans batzuk zakilarekin jaiotzea, horrek ustez dakarren botere guztiarekin, eta haiei beren zakila askorik axola ez izatea. Emakume transak gainean darama generoaren absurdotasunaren zama. Mundu guztiak irudikatzen du zerbait ukatzen zaiola, eta horren pagaburu bihurtzen dira emakume transak.

Batzuetan, badirudi nik baino transmisoginia inkontziente gutxiago daukazula. Beharbada arrazoi honen ondorioa da: transa izan ez arren, zure gorputzaren labirintoa igaro zenuen zuk ere —halako gutxi zarete—, baina ez zenuen muga zeharkatzeko beharrik izan. Zure gorputzean bestelako borroka bat gertatu zen, beste orbain batzuk dituzu. Gure gorputzek hori sentitzen dute bata bestearengan. Gure gorputzek hori zaintzen dute bata bestearengan. Ixo orain. Ez egin negarrik.

Larrutan egiten dugunean, gure gorputzak txu-txu-mutxuka aritzen dira. Hain bizirik egotea, arnasa hartzen duen haragi izatea. Ez dut genero-euforiarik sentitzen jada. Eta ez dut faltan hartzen. Gure zauriak ahazten ditugu, izate urduriaren orbainak. Azal-puska korapilatsuetan idazten dugu.

Gorputz hackeatu honekin, zurekin, beste idazketa bat ere badago. Beste mintzaira hau, itzulezina: soinu likidoak. Korritzen zarenean Jainkoari dei egiten diozu sarri. Niretzat, gure jainkosa Zibele da: Zibele, bere danbor, edabe eta lehoi. Ravezaleen, drogazaleen, trabeloen eta katandreen jainkosa.

Txantxetan esan ohi dugu ez dela harrotasun-banderarik existitzen jende sexuala gogoko duen jende sexualarentzat, kategoriak eta identitateak bost axola zaizkionarentzat. Bandera hori laukizuzen garden bat

izango litzatekeela iruditzen zait. Plastikoko gardena, diamante-argia islatzen.

Gure bizitzen zati bat bata bestearengan dago orain. Edozer pentsatzen edo sentitzen dudala, pentsatzen edo sentitzen duen horren parte zara zu. Zure parte bat hementxe dago. Rimbaudek ia esan zuen eran: Norbera bestea-engan da. Norbere izatearen biltegi hutsean entzuten den sentsazioen korrante zaratatsu honetan sentitzen zaitut. Edonora noala ere, zure zati txiki bat nirekin dator. Elkarrekin goaz. «Gu» hori ez da bikote zisheteroaren runba. Beste dantza bat da. Batzuentzat hobe, akaso. Guretzat.

Gaztea nintzenean, maitasuna Shelley-ren poema baten modukoa zela uste nuen: «bera bihurtuko gara, bat izango gara». Orain, horrek bikote zisheteroak dakarzkiz gogora, elkarri guka hitz egiten dioten erakoak. Adibidez: «Jason txikia eskola pribatu batera bidaliko dugu». Edo: «Sukaldea berrituko dugu». Gure desberdintasunak ere biltzen dituen «gu» bat nahi dut. Ez soilik gure arteko desberdintasunak, baita gure barnean dauden besteen arteko desberdintasunak ere.

Ez zen amorrarazi zintudan lehen aldia, baina bai negar eginarazi zenidan lehendabizikoa. Udazkeneko hostoen gainean oinez gabiltza parkean, Hudson ondoan; kontatzen ari zatzaizkit zer dabilkizun gogoan eta bihotzean, eta bat-batean esan dut: «Begira txori hori!». Txori eder bat, lehenago inoiz ikusi ez dudana. Gutxietsi egin zaitudala sentitu duzu. Haserre, oinez abiatu zara, abaila bizian.

Ezin dizut jarraitu. Atzean geratzen naiz. Gelditu, eta nire zain egon zara. Arnasestuka noa. Aparkaleku batean gaude. Beti bezala, segundo bat behar duzu nola sentitzen zaren azaldu aurretik. Esan didazu ireki



egin zarela eta nik ez dizudala aditu. Sentitzen dudala diotsut. Hor ari naiz negarrez. Heldu egiten didazu, hel nazatela behar dudan eran.

Ni atzean uzten ari zinela sentitu nuen. Ez dakit zergatik eragin zidan hainbeste. Ezin diot memoriari tira egin, irudimena dut aukera bakarra. Beharbada amarekin edo ahizparekin nengoen, eta nire hanka txikiak ahal zuten baino bizkorrago zihoazen oinez. Beste sentipen hau: esaten edo egiten nuena hain zen okerra, non betirako utziko ninduten.

O, bata bestearengan gaude orain, sakon eta hotz. Mina eman ahal diogu elkarri. Elkartze honetara iritsi arte egin dugun bidean jira-bueltak gertatu dira. Okertu egin gaitu gure itsasbeheraren aurka bultza egin duen orok. Marea nahasiek zurrunbilotzen dute gu elkartzen garen korrontea. Saiatzen naiz, aldean dudala bidean bildu dudan guztia, zurekin bat egiten.

Mundua eta haren mina maite ditudalako idazten dut. Eta zu munduan zaude. Mundua sentitzen dut zure bitartez, eta zu sentitzen zaitut munduaren bitartez. Ez zu ez ni ez gara gai besteen aurrean aise irekitzeko, munduaren aurrean aise irekitzeko. Beste ezer baino gehiago, nire bihotz orbaindua erakutsi nahi dizut. Mina hartutakoa da, baina piztiak ditu oraindik barrenean.

Zure bizitzako jendearekin idazten duzunean, ez dago zurigarririk. Praxi bihurtzen da idazketa. Batzuetan pentsatzen dut idaztea dela ondo egiten dakidan bakarra. Nola maitatu eta nola maitatua izan ikasten ari naiz oraindik.

Goiz joan gara lotara, goiz esnatzeko, ravera joateko. Goizeko laurak dira. Mokadu arin bat jan dugu, kafeina sartu gure gorputzetan. Psilozibina hartu.

Arropa aukeratu. Jaka arinak ditugu soinean. Udazke-
na da, baina oraindik ez du hotzik egiten. Rave-zorroak
prestatu ditugu. Kokalekua egiaztatu. Auto bati deitu.
Gau euritsua, zerua txano gris bat.

Nola iritsi gara hona? Partikula mugikor hauen
erdira. Denbora-pikete honetan, oraindik ere geratzen
da denbora. Barneratu egiten gara egun, segundo, mi-
lurteko zamarik gabeetan. Piztien plazeraren beste
aldean, berunik gabeko denbora dago.

Ahaztu egiten dugu. Gauza mordoa daukagu
ahazteko. Mundutik eta haren urtaro okerretatik atera
gara. Erritmo-kolpe baten eta hurrengoaren arteko aro-
ra joan. Apur bat gehiago dantzatu, eta geratu egiten
gara. Ez daukagu denbora asko. Bihurgune hori hartu
dugu, haren deian jariatu gara. Hemen gaude. Osatzen.
Etxean.

**BESTE
BATZUK**

3.1

VERONICARI

Batzuetan puta galanta izan zaitezke, Veronica. Berez, bazkalorduko elkarrizketa lagunkoi bat izan behar zuen. Bi emakume trans, elkarren alboan goxotasuna aurkitu nahian mundu gogor honetan. Horren ordezt, liskarrean hasi zinen.

«Pertsonala politikoa da», noski, baina politikoa ere oso pertsonal bihurtzen da maiz, zure ahotan bereziki. Eta zer esan zure subtxioez. Diskurtso horri jaten eman beharrean, gure elkarrizketaren bertsio hau bidaliko dizut, elkarrizketa hura nola joan zitekeen erakusteko.

Manhattaneko jatetxe batean gaude, bazkaltzen. Bezero guztiek informazioaren sektorean lan egiten dutela dirudi. Badaude gure ondoan bi tipo trajez jantzita: kalkulu-orri bat aztertzen ari dira ordenagailuan. Gainerako guztiak modara doaz baina informalki. Hetero diharduen zis gizonak ere markako betaurrekoak daramatza. Denak zuriak dira, edo zuri dihardute.

Baita gu ere, Veronica. Giroarekin bat egiten dugu, erabat. Lanpostu egonkorrak ditugu informa-

zioaren sektorean. Itxura profesionaleko jantziak ditugu, trajerik ez ordea: gu ez gara kudeatzaileak. Sortzaileak gara, nolabait. Baina ez sortzaileegiak.

Zerbitzua mantso doa, eta cocktail bana edan dugu di-da batean; Crisp jolasari ekin diogu. Quentin Crisp legendarioari ikasi nion —sexu-langile gisa porrot egin, eta idazle bihurtu zen—, laburki topo egin genuen batean. Jolasteko, inguruan dagoen jendea irakurri behar da, eta jolaskideari kontatu ea zeini eman dioten ipurditik.

—Lehenengoa errazegia da! Tipo hori ehiztari bat da, begiz jo nau jadanik. Eta ehiztari horrek nahi du neska trans honek zakilerako pilula bat ateratzea eta berari larrua jotzea. Eta hori dena zentimorik ordaindu gabe.

—Beste horri maiztasunez ematen dio dildoarekin ipurditik zis emakume batek, baina ez bere emazteak.

—Beste hori, ba, pasiboa da. Argi dago. Badakigu, laztana, badakigu!

—Beste horri ere eman izan diote, baina unibertsitateko garaian bakarrik.

—Tipa horrek bere mutil-lagunari onartzen dio ipurditik eman diezaion, baina ez zaio gustatzen.

—T-nesken pasibo-ezagutza: ez utzi inori ipurditik ematen baldin eta hark ere ez badu ipurditik jaso, eta horrekin gozatu!

—Twitterren jarri behar zenuke hori.

Hala segitu dugu janaria iritsi arte.

Jolas hau bada ohartarazpen bat ere. Inor ez da dirudiena. Tira, gu bion artean, niri aise nabaritzen zait. Zu askoz gertuago zaude edertasun femeninoaren eredutik. Hala behar zuen, genero-disforiak zure bizitza hondatuko ez bazuen.

Emakume trans gehienoi gertatzen zaigun eran, geuk ere transfobia barneratu dugu, eta horrek esan nahi du elkar baloratu izan dugula forma femeninoaren eredu ideal baten ikuspegitik. Zugan ikusten dudan guztia edertasuna da, baina badakit, zuretzat, eskuak direla *passingik* ez daukan atal bakarra. Ez duzu eraztunik jartzen, garden margotzen dituzu azazkalak. Nireak berriz, more margotuta daude, distira-printza eta guzti. Nire kasuan, eskuak dira *passinga* daukaten bakarrak.

Gure laguntasuna: zurekin ikus nazaten nahi dut, oso dotorea zarelako. Nirekin ikus zaitzaten uzten duzu, nahiz eta, niregatik, zuri ere nabarituko dizuten. Eskuzabaltasun horrek erakusten du izaera sendoa duzula: ezaugarri eskergarria, berez, eta opari bat niretzat, zure ahizpaorde arraroarentzat.

Ez zaigu ezer larririk gertatuko, gaur ez behintzat, zisek usnatuko bagintuzte ere. Pribilegioak ematen digu hori, manera bikaineko newyorktar zuriak garelako bereziki.

Gaiari buruz hitz egin dugu.

—Tranpa bat naizela esan izan didate hala ere —diozu.

—Niri ere bai. Eta bitxia da: niri ere esaten didate tranpa bat naizela, nahiz eta argi eta garbi dagoen emakume trans bat naizela. Zisen ustez, gure izatearen esentzia honako hau baino ez da: haiek engainatzeko ezintasuna.

—Emakume transak tranpak baldin badira, mundu guztia da tranpa —kontra egin didazu.

—Bai ala? Zer dela eta diozu hori?

—Inor ez da dirudien horixe. Begira Crisp jolasa ere; baliteke gure usteak guztiz ustelak izatea.

—Baina dibertigarriagoa da horrela —sartu naiz.

—Baina beti badago zerbait. Beharbada horko trajedunari —keinu bat egin duzu zure esku nabarmenarekin—, beharbada ez diote dildoarekin ematen ipurditik, eta aldiz trabeloen pornoa ikusten du gogotik.

—Badago beti tarte bat errepresentazioaren eta aurkezten den horren artean. Horrela funtzionatzen du komunikazioak —baieztatu dut.

—Zer esan nahi duzu?

Tira, zerorrek nahi izan duzu. Teoriaren jolasean arituko gara. Trago gehiago eskatu dituzu.

—Beti badaude desberdintasunak gauzaren zeinuaeren eta gauzaren beraren artean. Nire itxura ez da nire osotasuna. Hautematean badago beti dezepzio-puntu bat.

—Diozun horretan badago zerbait gogaikarria, eta xarmagarria aldi berean —diozu, begiak distiratsu.

Badakit norantz bideratuko duen jolas hau zure joera lotsagabeak, baina ni aldarte filosofikoan nago.

—Itxurari erreparatuta, jatetxe honetako bezero guztiek zeinuekin lan egiten dute, eta ondo moldatzen dira, gainera. Ematen du oparo bizi direla denak, arrakasta dutela, eta talentua ere bai. Baina baliteke guztiak halakoak ez izatea.

—Neska horren oinetakoak, esate baterako. —Eskua mugitu duzu berriro, nire begiak gidatzeko.

Larru zartatua, takoi higatua. Ni ere banaiz gai jolas honetan aritzeko.

—Horko hori; aurrerantz makurtuta, gogotsuegi: dirua eskatzen ari da.

Mundu guztia ez dago hemen bere aisialdiaz gozatzen, gu bezala. Feriatze ugari dago.

—Denok ezkutatzen dugu zerbait, beti —diozu.

—Ez gara inoiz egiten ditugun zeinuen modu-modukoak. Beharbada konplexu hori Mendebaldeko kulturari dagokio espezifikoki, baina halako urduritasun bat dago zeinuaren eta gauzaren arteko tarte delata eta.

—Eta horregatik, haiek —gure inguruko zis jendea seinalatuz keinu egiten duzu— emakume transei leporatu nahi digute errua, tranpak garela esanez.

—Platonen filosofian —handiuste nabil, baina gustatzen zaizu Teoriaren jolasean nola aritzen naizen, eta nire bizitzari buruz kontatzen ez dizudanetik urrunduko zara horrela—, kontua ez da gauzaren zeinua motz geratzen dela gauzaren beraren ondoan. Gauza bera ere motz geratzen da gauzaren ideia edo forma puruarekin alderatuta. Itxuren atzean gauzak daude. Baina gauzak ere itxura hutsa dira: gauzen atzean daude gauzen formak. Ezin dira ukitu, ez dastatu, ezta ikusi ere. Pentsamenduak bakarrik ezagut ditzake.

—Baina nori axola zaio Platon? —Garrantzia kendu diozu esku-uhin batekin.

—Nietzscheren esanetan, kristautasuna «masen platonismoa» zen. Kristautasunean ere, itxurak sumagarriak dira; kasu horretan, deabruak sortzen ditu. Gauza materialekin ere ezin gara fidatu, are eta gutxiago gorputzak badira. Haragi ustela da hori, hiltzera kondenatua. Erreala, berriro ere, ikusezina da, ukiezin: arima purua. Arimak uko egiten badio itxuren edo plazer haragizkoen usteldurari, Jainkoarekin bat egingo du betiereko bizitzan.

—Beraz, plazer haragizkorik izan al duzu azkenaldian, nik ezagutzen dudan baten batekin?

Haginka egiteko prest zaude. Hobe dut zure arretari eutsi ezusteko iruzkinen batekin.

—Mendebaldeko kultura sekularrak platonismoaren hondakin bat jaso du oinordetzan kristautasunaren bidez. Marxista batzuek ere itxura faltsuen mundu bat irudikatzen dute. Haientzat, kapitalismoa da mundu hori. Kapitalismoa eraitsiz gero, «gizonak» aukera izango du berriro ere egiazko bizitza bizitzeko: adio publizitateari, gero arte modari, eta agur betiko alienazioari. Gizona gizon izatera itzuliko da.

—Gizonak. Buf. Ez dakit zergatik gustatzen zaizkien.

Gizonak utzi nahi dituzu, eta bollera bihurtu, ni bezala. Esan dezagun emaitza gazi-gozoak izan dituzula. Desbideraketatik desbideratu zaitut. Harira joan behar dut berriro.

—Kasu honetan nahita esan dut «gizona», zeren marxista hauei susmagarria iruditzen zaien horrek badu nolabaiteko feminitate bat. Feminitatea eta salgaien mundua lotzen dituzte. Haien ulerkeran, feminitatea, betiere sexuari, edertasunari eta gaztetasunari dagozkion zeinuen multzo gisa hartuta, produktuak saltzeko erabiltzen den zera engainuzko bat baino ez da.

—Zaila da biguna izatea, femme izatea. Gizonek uste dute ez dagoela irmotasunik horretan, nahieran astindu gaitzaketela.

Gai horretan aditua zara, badakit, eta asko daukat zugandik ikasteko.

—Platonismoaren bertsio horietan guztietan, femmea da susmagarriena, eta femmeak adieraz lezake feminitatearen zeinu eta ezaugarri oro, pertsona bat emakume gisa identifikatzeko aintzat hartzen den oro. Beraz, gure jaiotza-agirian «GIZONA» zigiluarekin jaio eta noizbait ere maskulinitatetik kanpora trantsizioa egitea bi bider susmagarria da. Femmeak iruzur egi-

ten du, baina «emakumeak», diskurtso mendebaldar horietan, eta paradoxikoa den arren, denean egiten du iruzur salbu eta bere buruari dagokionez.

—Esan nahi duzu denaren gainean iruzur egiten dudala salbu eta neure buruari dagokionez? —Irainduaren plantak egin dituzu, baina zure irribarre txikiak erakusten dit gozatzen ari zarela.

—Femme-zeinuek, ustez, iruzur egiten dute gauza pila bati buruz, baina ez zeinu horiek sortzen dituen emakumetasunari buruz.

—Inork ez dio zis emakume femenino bati leporatzen ez denik emakumea —gehitu duzu, amorratuta.

Haien eta zure arteko aldea gai sentikorra da. Hizketan segi aurretik, pentsatu egin dut, baina apur bat gehiago zirikatu nahi zaitut.

—Hori da aldea emakume transexualei dagokionez unibertso platonikoan. Ez da beste zerbaiti buruz iruzur egiten duen feminitate bat. Feminitatea bera da iruzurra. Metafisika tranpazko horretan, zu eta biok iruzurgile-mota berezi bat gara.

—Beraz, kontua ez da emakumeak garela eta ondorioz emakume gisa iruzur egiten dugula; kontua da iruzur egiten diogula emakume izateari. Iruzurgile bikoitzak edo. Superfemmeak! —Barrez lehertu gara biok.

—Horixe. Begira, lehen, egia zegoen, Platonen «ideia», eta bi erorialdi posible: bata, gauza, eta bestea, are eroriagoa, errepresentazioa. Platonikoentzat, ideiak gorpuzten du egia. Kristaudentzat eta komunistentzat, berriz, Jainkoak eta komunismoak, hurrenez hurren. Egia den hori egiaren berbera da. Ez du tarterik uzten bere izatearen eta bere edozein ezaugarriren artean. Ezin du bere izatearen zeinu den mendrenik ere egin. Purua da, eta ezin da errepresentatu.

Urrunera begiratu, eta zera esan duzu, niri baino gehiago aireari hitz eginez:

—Batzetan, iruditzen zait izan nahi dudan emakume hori ezinezko ideia bat dela. Berdin du zenbat ahalegintzen naizen hura izaten, berdin du jadanik hura banaiz ere, beti ematen du gero eta urrunago dagoela. Uste dut min egiten digula emakumearen ideia platoniko horrek, eta ez guri bakarrik. Gorroto gaituzten zis emakume feminista horiek ere borrokatu behar dute harekin.

—Bai! —Aurretik ez nuen horretan pentsatu—. Gorrotatu egin behar gaituzte «emakume» ideia horren simulazio txar bat garen heinean, eta hala ez dute zertan aztertu zer neurritan porrot egin duten haiek ideia horren errepresentazio gisa.

—Hierarkia bat da, gehienekotik gutxienekora, eta gu beti gaude azpian.

Begiradan nabaritu dizut aldarte ospina. Argudio honen gakora iritsi behar dut. Puntu horretara non, guretzat, aukeren mundu bati dei egiten baitzaio, transsek-transentzat⁶ egindako mundu bati.

Beste jokaldi bat abiatu dut.

—Ados, feminismoaren marka jakin batek honela irudikatzen du emakumearen figura: emakumea bada, eta kito. Barra-barra aipatzen dituzte kromosoma biologikoak, baina gauza horiek giza hautematearen eguneroko eremutik kanpo daude. Emakumea ideal platoniko bat da, eta «egiazko» emakumeek besterik ezean gorpuzten dute, perfekzioaren bariazio gisa.

6 Jatorrizkoan, T4T: *Trans For Trans* edo *Trans Loving Trans*. Batez ere pertsona transekin harremanak izateko hautua egiten duten pertsona transak dira. Aldaerak ere baditu, hala nola TW4TW (trans emakumeak trans emakumeentzat) eta TM4TM (trans gizonak trans gizonentzat). Hasieran, harreman pertsonalen arloan erabiltzen zen gehienbat, baina gaur egun apustu politiko bat ere bada.

Ondoren, misoginoekin bat egiten dute ezinbestean, femme-zeinuak iruzurtzat hartuz, mesfidantzaz, eta tranpa da iruzur denetan makurrena.

—Erokeria hutsa.

—Bai, benetan. Mundu platoniko honetan, ezein gauza sentikorrek ezin dio justizia egin egiaren eremu puruari. Ezein errepresentazio irakurgarrik ezin dio justizia egin ezta gauzei ere; beraz, zer esan ideia puru eta egiazkoaz. Kontrara, itxurek limurtu egiten zaituzte: Platonen filosofiatik urruntzen zaituzte; Jainkoagandik urruntzen zaituzte kristautasunaren kasuan, iraultzatik marxismoan, emakumearen esentziatik feminismoan. Kasu guztietan ere, itxurak sarriegitan jotzen dira femmetzat. Femmeak ez du arrazoimenik, federik, leialtasun iraultzailerik.

—Edo, bitxia dirudien arren, feministek zakilhandi platonikoen energia aldarrikatzen dute tranpen aurka eginez.

—Bai. Femme-zeinuak susmagarriak dira, baina zeinu horiek soinean daramatzanak emakumea izan behar duela ez da zalantzan jartzen. Ondoren, zu eta biok gatoz. Erorienen azpitik eroriak. Ezinezkoa da ideia purutik gu baino gehiago urruntzea.

—Hondoa jota gaude denok, baina gutako batzuk izar eroriak gara!

—Oso urrun gaude, baita ideia bat gauza gisa modu imperfektuan gorpuztetik ere. Ez gara errepresentazioko gauzaren edo ideiarene gorpuzte are imperfektuago bat. Metafisika honetan, ez zara nire feminitatearen bidez zeinu iruzurrezkoak egiaz egiten dituenak. Iruzurrezko zeinuak egiten ari zara iruzur bidez, tranpa gisa.

—Utikan, maitea.

—Entzun, amore. Zu, gutxienez, tranpa bat zara. Ni ez naiz horretara ere iristen. Emakumetasunaren zeinu iruzurtiak egiterik lortzen ez duen figura naiz ni, porrot komiko bat. Zu, berriz, tranpa arriskutsu bat zara, iruzurgile arriskutsu bat. Gauzen ordena platonikoak zure bertsio hutsegina bihurtu ninduen; zu, aldiz, zis gorputzaren bertsio hutsegina zara, eta hura, azkenik, idealaren bertsio hutsegina.

—Ez dut denen azpian egon nahi, larrutan hori gustatzen zaidan arren.

—Emakume transon artean tentazio handia da elkarren aurka jartzea. Zu nire laguna zara, eta asko estimatzen zaitut uko egiten diozulako logika horri. Biok dakigu ni zer naizen. Adreilu bat. Baina zuk ez zenedake hala deituko. Aurpegira ez behintzat.

—Ez nizuke hala deituko inoiz!

Eskua ukitu didazu. Negar egingo dut.

—Ez zait axola adreilu bat izatea. Lokatz-puska bat, errea eta forma emana: buztinezko oinak ditut, zapaten neurria emakumeen 40.

Pasarelako modeloen oin-neurria, oso praktikoa beharapenetan. Bat-batean ohartu naiz zure oin handiak ere gai delikatua direla, eskuak bezainbeste. Ez nuen maltzurra izan nahi.

—Dena den, gu bion arteko alde bakarra balizko deskubrimenduaren atalasea da. Aplikazioetan jarrita daukadan argazkiak ez du inor engainatuko. Horko ehiztari horrek —hatz lirain bat astintzen dut—, niri begira-begira dagoela, badaki trabelo bat naizela eta espero du neska-zakil bat aurkituko duela Gogo Graham gona honen azpian.

—Bete-betea asmatu du ba.

—Zu, berriz, egoera arriskutsuetan egon zara, bereziki gizon batzuek zureganako interesa erakutsi

dutelako transa zarela nabaritu aurretik, edo zuk hori adieraztea edo ez adieraztea erabaki aurretik.

Eskua ukitu dizut. Ezagutzen ditut istorio horiek. Badakit gogorra dela.

—Zigor bereziak daude tranparentzat. Larrua jo nahi badigute, desira hori adierazi eta horren ostean deskubritzen badute tranpa bat garela, gu hiltzeko gai dira. Horrainsi eroriak gaude egiari hurbiltzen zaizkionen armadan.

—Erabili eta botatzekoak gara. Ez gara gauzak ere. Zaborra gara haientzat. —Zure ahotsa, kontu handiz entrenatua, hautsi egin da amorru eutsiz. Eskua eman diogu elkarri une batez. Elkarri begietara begiratu. Eta begirada kendu dugu gero.

Sentimendu olatu batek hartu gaitu, biziagia da hitzez onartzeko. Atzera egin duenean, elkarriketaren jolasari heldu diogu berriro.

—Modu informal samarrean tranparen metafisika dei dakioken horren bertsio guztietan badago zera kontserbadore bat, ikuspegi horri datxekiona. Nork erabakitzen du, ba, zer dagoen urrutien eta zer gertuen purutasunetik eta egiatik?

—Ez behintzat zure ipurdi transexualak, ezta ni-reak ere!

Apur bat ozenegi esan duzu hori, apur bat mozkorregi, eta ez zure neska-ahotsarekin.

—Horregatik da hain gauza bikaina Crisp jolasa. Zis begirada itzuli diogu zis begiradari.

Aldartea piztu zaizu pixka bat.

—Zurekin iji eta aja ibiltzeko jolastea gustatzen zait, besterik ez.

—Tipo trajedunak uste du epaitu ahal gaituela. Eta epaitu gaitu, bai, hasieran begiratu azkar bat eginez eta gero behako gogor bat; konbinazio klasiko bat. Begi-

ratu azkarra zerbaitek erakarriko zuen: beharbada nire izter luze zuzen biluziak. Beharbada zure titi ederrek.

—Ederrak dira benetan.

Zure titiei begiratu, eta ederrak direla baieztatu dut irribarre batekin. Badakit non amaitzen diren eta non hasten den betegarria, festa hartan bularretakoa kendu bainizun, baina ez dugu horretaz hitz egiten sekula.

Hariari heldu diot atzera ere:

—Baina gero trajedunak ni identifikatzen nau, eta orduan dator behako gogorra. Zera esan nahi du: nire bizitzako segundo bat galdu dut zuengatik, zuei begiekin larrua jotzeko zorian egon naiz, eta hara non bi transexual zikin baino ez zareten; zuek ikusteak nazka eragiten dit. Edo, okerrago: erakarri egiten nau eta nazka eragiten dit. Guk gure jolastxoari ekiten diogu, badakigu-eta mundu guztiak daukala sekreturen bat.

Zuk zeuk amaitu duzu nire pentsamendu-ildoak:

—Mundu guztia da tranpa bat; inoren begirada ez da fidagarria. Ezta tipo trajedunarena ere.

—Emakume transexualak errepresentazio-ordena baten pagaburuak gara: ordena horretan norbaitek ordaindu behar du zeinuak gauzen mailara ez ego-tearen prezioa. Tranparen metafisikan, iruzurgilerik makurrenak gara, modu horretan soilik gara ulergarriak. Zisentzat, emakume izatea aukeratzen ari gara. Baina nork aukeratuko luke hori? Beraz, tranpatiak izan behar dugu derrigor, iruzurgileak. Munduko gauza are-okerragoak gara.

—Topa horren alde!

Mozkor arrail amaituko dugula erabakita, beste erronda bat eskatu duzu.

—Gure moduko gehienekin alderatuta, zuk eta biok baditugu pribilegio batzuk. Inor ez denez au-

sartzen «klase» hitza erabiltzen, erabil ditzagun hitz dotoreak: «egoera sozioekonomikoa». Zure lanpostu teknologikoan eta nire irakasle-lanean ondo ordaintzen digute gure talentuen truke, eta, jabetxeetan sartzen garenean, zerbitzariak behinik behin ez dute zalantzan jarriko gure kreditu-txartelaren egiazkotasuna...

—Zuk ordainduko duzu, ezta?

—... eta hala ere gutxiagotzat jotzen gaituzte inguruan ditugun bazkaltiar askok, tartean beren onarpen liberalaren besarkada sargoria etorkor emango liguketen batzuek. Iruditzen zaie autoritate-posizioan daudela, generoaren ideia ordezkariek direla, eta gizatasuna aitortzen digutela, gizatasuna oparitzen.

—Utikan!

—Utikan!

Edalontzia altxatu dut, zurera hurbildu. Txin.

—Susmagarria da forma ideal ukiezinak guztiz egiazkotzat hartzea, baita generoari buruzko ideietan ere. Nahiago dut itxuren jolas ukiezinan plazer hartu, egiaren eta izatearen hierarkia hori erosi baino. Nietzsche oker zebilen zenbait gauzatan, ez gutxitan, baina emakume bihurtzea, berak idatzi zuen eran, gu saiatzen garen eran, egiaren eta faltsuaren hierarkiari ihes egitea da.

—Bestelakorik egitea aspergarria da —diozu—. Gauzen ordena emantzat jotzea da, hori baino ez.

—Ados nago. Pentsatzea aurretiazko izate egiazko baten hutsegiteak direla, berez, itxurak: bai kontu aspergarria!

Edariek berotuta, nire gaia berotzen nabil.

—Landu ditzagun gainazalak, alda ditzagun zeinuak, taxutu dezagun etortzearen dauden izate-aukerak! Ez gara zis ahizpen imitazio hutseginak. Haragia

editatzen dugu teknikarik berrienekin, informazio freskoarekin, arlo guztietan. Haragiaren abangoardia gara! Gure gorputzaren deiari erantzun liezaiokeen mundu bat existituko balitz, zer?

—Mundu horretan bizi nahi dut.

Edanda nago, eta abiada hartu dut:

—Beharbada utopikoa da. Bien bitartean, gure moduko neskok trantsizioa egiteko premia menderaezin bati heltzen diogu, eta informazioa eta teknika bihurtzen ditugu, forma pairagarrien bila. Beharbada horregatik ere bihurtzen gaituzte pagaburu. Geure burua berregiten dugulako hemen eta orain, gorputz gisa, eta ez ideia gisa. Eta elkarrekin ari garelako horretan. Geure etxe propioa eraikitzen ari gara munduan, etxe ahula eta mehatxatua eta zatikatua izanik ere; etxe bat zis munduaren barruan, eta handik kanpo aldi berean. Gure sekretutxoa ezagutzen dutela uste dute, baina guk badakizkigu izateari buruzko hainbat xehetasun, haiek inoiz ezagutu ez dituztenak.

—Sekretuei buruz ari garenez, aizu, ez al zaitut nire nemesiarekin ikusi gaur goizean, ravetik alde egi-ten? Zer ostia?

Kontu horretatik desbideratu nahi zintudan, hain zuzen. Ados, larrutan egin nuen zure bikotekide ohiarekin, eta ez nizun kontatu. Halakoak gertatu egi-ten dira, matte. Bihotzak, edo hobeto esanda ipurdiak, nahi duena nahi du.

—Gure sekretua da ez dagoela sekreturik — ausartu naiz—. Ez dakigu ezer generoaren izaera ezkutuari buruz, eta zisek ere ez. Neska transok gure zentzumen disforikoen frogak dauzkagu, besterik ez, eta feminitate bat sortzeko nahia ere bai, hartan bizitzeko. Eta hobe da elkarrekin aritzen bagara.

—Zure teoria horren bitartez zeure buruari azaldu nahi diozu zergatik berotzen zaituzten neska transek; horretarako baino ez da.

—Agian bai —onartu dut—. Baina beste zerbait ere izan liteke. Agian gure femmunismoari⁷ buruz hitz egiten ari naiz.

—Gure zer?

—Gure femmunismoa. Ez da komunismoa, ez da oinarritzen etortzeaz dagoen egia batean, mundu faltsu, alienatu eta komodifikatua eraitsi ostean etorriko den egian. Gure femmunismoa: egiazko itxuren mundu bat, hemen eta orain; elkarri aukerak erakusteko mundu bat. Mundu bat transek-transentzat egina, non dena ez baita larru-jotze, liskar eta halabeharrezko desengainu. Elkarrekin egiten dugun mundu bat, jakinik eta ez daukagula gauza komunik gure artean. Ezer-ez hori dela gure puntu komuna, edo gure femmuna, hobeto esanda.

—Galdu egin naiz, baina gustatzen zait.

—Komunala, komunitatea, komunikazioa, komunismoa; denak datoz *munusetik*; erromatarrentzat, munusa aldi berean zen oparia eta zama, mesedea eta eginbeharra, lan publikoa eta ikuskizuna. *Ko-munusa*-ren ordeaz, hau da, unibertsala balitz bezala partekatzen dugun horren ordeaz, *fe-munusari* buruz ari naiz, hots, gure artean dagoenari buruz. Ez da espazio publiko abstraktu eta denboragabe hori, ustez denontzako izan arren egiaz zis gizon zurientzat bakarrik dena.

—Hara, badakit zer egin duzun: esaten ari zara esparru publiko idealaren eta hango eredu-diskurtsoaren nozio liberala orobat direla unibertsal platonikoak,

⁷ Jatorrizkoan, *femmunism*. Neologismoa, «komunismo» [*communism*, ingelesez] eta «femme» terminoak uztartuz sortua. Bigarren terminoaren arrastoa gordetzeko mantendu dugu m bikoitza euskarazkoan.



eta ezkutatu egiten dutela kanpoan uzten gaituen komunaltasun baten izaera partikularra.

—Harrapatu nauzu. Horren ordeztu, idealik gabeko femmunismo bat nahi dut: sentsuala, materiala, partikularra.

—Kikiak⁸ praktika gisa —diozu, ameslari kasik.

—Ironikoa badirudi ere, munduko gauzarik one-na bilakatzen gaitu horrek. Trans emakumeak femme gisa: faltsuaren sortzaile faltsu gisa. Egia emakume gisa. Gure desirek, inork eskatu ez dituen desira horiek, dena sortzen dute. Eta, kontuan hartuta mundu guztiak bihurtzen dituela bere desirak beste zerbait, eta mundu guztiak ukatzen duela ezen bere desirak, azken batean, existitzen ez den ideal batekiko hurbilketak direla, alde horretatik mundu guztia da femme, eta ez bakarrik hori, mundu guztia da trans. Ezberdintasun bakarra, guk badakigula. Aurrea hartu diogu jolasari!

—Zer polita zaren horrela alde egiten duzunean —zirikatu nauzu.

—«Polita» hitz interesgarria da. Polita ez da ederra.

—Lausenguren bat arrantzatu nahian baldin bazabiltza, ederra zarela esan dezaket.

—Ez nabil arrantzan, eta ez naiz arraina ere, baina gogoko dut polita izatea. Polita, ez ederra. Polita eta ederra ez dira desberdinak graduari dagokionez: kontua ez da polita urrunago dagoenik ideal batetik, eta ondorioz gutxiago dela izatez. Desberdinak dira.

—Hara! Platonismoa berriro! Gaurkoan, nonbait, erakutsi nahi duzu den-denak erantzuten diola tranpa-metafisika berari; horretara jolasten ari zara.

8 *Ballroom* kulturatik eratorritako termino bat da; LGTBQ+ komunitateak erabiltzen du batez ere. Lagunarteko bilkurak dira *kiki* delakoak: berriketan eta txutxu-mutxutan jarduten da jendea halakoetan. Scissor Sisters taldearen «Let's Have A Kiki» kantuari esker asko zabaldu zen.

Formarik edo ideiarik badago, horixe da egia benetan, eta gainerako guztia motz geratzen da, gradu batean edo bestean.

—Nire jolas txikiaz jabetu zara —onartzen dut—. Baina uztazu zerbait esan dezadan munduan egoteko beste modu horren alde, eta azalduko dizut zergatik ari diren neska transak jada halako zerbait sortzen. Gainera, badakite horretan ari direla, guk geuk jakin zein ez.

—Esan ba.

—Polita hitza beste hitz batzuetatik dator: azkarrak, zolia eta azeria esan nahi zuten hitzetatik. Mendez mende feminitatearekin lotu izan da polita izatea; txikitasunarekin, ahultasunarekin, amarruz eta trikimailuz aurrera egitearekin. Azeri izan eta itxurak azeriki egitearekin. Edertasunak soinean janzten ditu antzeratu nahi duen formaren jantziak; polita den hori, berriz, nolabaiteko amarru bat izan daiteke, nolabaiteko amu bat. Polita den hori susmopean dago salgai-kulturaren aroan. Akats bat ezkutatzen du.

—Gu tranpak izatea, hori da akatsa. Eta gu haz gaitezkeela, baina guk geuk ezin dugula inor hazi barruan. Umetokirik ez. —Keinu egin diozu zure tripa zoragarriro kurbatuari.

—Tranpak gara gizonen desirarentzat. Ustez faltsutzen dugun Emakume ideala ugalkorra da. Metafisika platonikoaren muina aitatasuna da. Kopia, bada, ideia denboragabe baten ondorengo hurbilago eta urrunagotzat jotzen dira. Kopia ilegítimoa, beste nonbaitetik alderantzikatua, identifikatu eta arbuaiatu behar da. Pikutara horrekin. Polita den horrek okerreko bidetik eramango balu desira, eta modu interesgarriagoan eraman, zer? Asperduraren erreproduktibotik harago eramango balu. Bestelako forma batzuetara, zeinak jada ez baitira izango existitzen ez den eta ezi-

nezkoa den jatorrizko baten kopiak? Hobeto esanda, aldagaiak gara, aldagaia aldagaiaren gainean, forma esperimentalen femmunismo bat, eta gure existentzia izate bihurtzen da soilik elkarrekiko harremanean. Sentsualak azal diezagula zer den, eta zer den posible. Bueno, hori guk egin genezake, matte. Emakume transok. Hori izan liteke transek-transentzat sortzen dugun mundua.

—Eta gizon transak?

—Ez dakit, laztana. Haien esku utziko dut ardurara hori, transek-transentzako utopiaren bere bertsio propioa sortzeko ardura. Sortzen badute, uste dut aurkituko duzula.

—Eta ez-binarioak?

—Utopia ez-binarioa ez dago ez hemen ez han.

—Hori ez txiokatu.

—Baldin eta izatearen hierarkiaren metafisika platonikoa ikuspegi ez-binariotik deseraikiko balitz, gurearen aldean bestelakoa izango litzateke hori ere. Nork gure aldetik kritikatu dezakegu metafisika platonikoaren unibertsaltasuna, eta nork bere unibertsal alternatiboa sortu. Hemen eta orain sor daiteke, gure elkarrekin-izatearen eta munduak ukatzen digun izatearen arteko diferentzian agertzen den kasuan kasuko praktikaren bidez.

—Beraz, zure jolastxo honen arabera, emakume transen kasuan, tranpak garelako ideia hori hartu, eta buelta ematen diogu, eta, horrela, balio positibotzat joko da ezinezko ideal baten zis kopia bat ez izatea. Eta zis emakumeak orduan, zer?

—Guk geuk erakusten dugu, gure gorputzaren bidez, posible dela emakumea izatea erreferentziarik egin gabe Emakume ideal baten erreproduzioari. Uste dut zis emakume askok desio dutela gauza bera, nahiz

eta kontra egiten dieten geuk gorpuzten ditugun auke-
rei. Baina nik, modu nolabait ezkutuan, ez dut esaten
emakume transak ideal bat garenik, ezpada, hobe-
to esanda, beste feminitate-mota baten abangoardia
garela, elkarri erreferentzia eginez bakarrik sortzen
baitugu gure elkarrekin-izatea.

—Eta, emakume transez ari garela: bart bera-
rekin joan zinen ravetik, ikusi egin zintuztedan, eta
badakizu ni kantzelatzen saiatu zela. Zer ostia, laztana?

Zerbitzariari begiratu, eta kontua eskatu dut
arrapaladan.

3.2

VENUSI

Izen sekretu bat izan nuen luzaroan. Munduaren begietara Ken edo Kenneth izan arren, nire baitan beste norbait nintzen. Hainbestearino non neska hark bere izaera propioa garatu baitzuen ia.

Beste izen hura Karen zen. Institutuko eskolakide baten izena, miresten nuen neska batena: bera bezalakoa eta beraren antzekoa izan nahi nuen, noski.

Eskolako txango batean, zaldiz ibiltzera joan ginen. Zaldizko onena zenez, zaldirik onena hartu zuen Karenek. Helmugara iristear ginela, animalia erotu egin zen. Karenek kontrola galdu zuen. Garrasika entzun genuen denok. Zorura bota zuen zaldiak, eta koman geratu zen Karen; ez zen sekula iratzarri.

Badakit. Haren izena hartzea ez da sana.

Askoz geroago, Karen izena meme bilakatu zen: pertsona beltzez kexatzeko poliziarik deitzen dion emakume zuri generikoaren izen generikoa. Nire izen ofiziala Karen izateko asmoa baztertu nuen orduan. Nire izen ofiziala aldatzeko asmoa baztertu nuen era-

bat. Neure izenean bakarrik diot hau: bost axola zaizkit nire izen eta genero ofizialak.

Ironikoki, nire izen edo genero ofizialaz ez kezkatzeko luxuaren jabe izatea, legearen arabera inoiz Karen bihurtu ez izana, Karen izatearen gailurra da.

Lantzeko modukoa iruditzen zait, ordea, Karen bat izatea; bestela esanda, emakumea naizela aldarrikatzen baldin badut, behinik behin kontuak garbitu behar ditut neure buruarekin Karen gisa, hau da, emakume zuri gisa. Sentimendu hori behin baino gehiagotan adierazi dizut. Eta, horren aurrean, zuk zure hasperenik leunena eskaini izan didazu.

Elkar ezagutu genuenean, oraindik gure izen eta genero ofizialak genituen biok. Zuk bazenuen behatzeko gaitasuna, eta neronek ikusten ez nuen zerbait harrapatu zenuen: sekretu bera genuela biok. Neskak ginela biok. Zu zinen, Christenez aparte, nire beste izena ezagutzen zuen pertsona bakarra. Elkarri kontuak esaten ari ginela atera zitzaidan. Zuk nire baitako Karen irakurri ostean.

Zure izen sekretua Venus zen: neurri batean Venus Williams-engatik, haren antza zenuen-eta. Baina, neurri handiagoan, Saidiya Hartman-ek esklabo-ontzietako emakume beltzen harira idatzitako zerbaitengatik; artxiboak oso gutxi esaten du emakume horiei buruz, eta jabetzak zirela baino ez da erregistratzen gehienetan. Batzuetan, esklabistek Venus deitzen zieten emakume haiei. Hartmanek bezala, emakume beltzen bizitzei buruzko istorioak fabulatu nahi zenituen, axola zezaten, baina zuk, zehazki, Hartmanek askorik aipatzen ez zituen emakumeez idatzi nahi zenuen: emakume trans beltzez.

Transexualitateari buruzko gauza batzuk irakatsi zenizkidan. Sekretu pribatutzat hartzen nuena askoren sekretu bat zen, ezkutuko komunal bat. Orain horretan dihardut.

Ez nengoen prest armairutik ateratzeko. Zu, berriz, prest baino prestago zeunden, baina mundua kontra zeneukan. Mundura agertu zinenean Venus izenarekin, larrutik ordaindu zenuen. Ezin zenuen belztasuna ezkutatu, eta horrek arazoen jomugan jartzan zintuen lehendik ere. Armairutik atera zinenean, arazoak areagotu ziren zure familia erlijiosotik arrotzu zinelako, eta pobreziagatik eta prekaritateagatik, eta urruti zeundelako ordurako etxe izateari utzia zion etxetik.

Irakasle bat nahi zenuen, nik jakin nezakeela uste zenuen gauza bakarraz ikasteko: idazketaz. Zure ustez, zuriak kontrolatzen zuten arte hori, eta esan behar da interpretazio zehatza zela. Zure testuak editatu nituen, oharrak eman nizkizun, gomendioren bat ere bai. Idatziak aldizkari edo argitaletxeetara bidaltzeko xaxatu zintudan; baina ez dut uste inoiz halakorik egin zenuenik. Norbere testuak aldizkari edo argitaletxeetara bidaltzeko ekintzak badu zamarik kontuan hartzen badugu zer harreman dagoen idazle beltzen eta editore zein atezain zurien munduaren artean; ni barne.

Armairutik atera ostean gauez irteteari ekin nionean, raveetan ikusten zintudan. Batzuetan nahiago nuke jendeak ez nindezala Wark irakasle gisa identifikatu lanetik kanpo, baina zure kasuan ez zitzaidan axola. Ez dut inoiz ahaztuko *gabby*⁹ saio hura: liburu

9 Musika elektronikoko estilo bat: jatorriz, Herbehereetan abiatu zen, 1990eko hamarraldiaren hasieran. Erritmo bizkorak, distortsioak eta *sample* ilunak ditu ezaugarri.

bat idazteko proposamena egin zenezan konbentzitu zintudan, oihuka, erritmo ultrabizkorren eta argi taupakarien erdian.

Itxaropena neukan animatuko zinela, baina nire baitan banekien ez zela sekula gertatuko. Ez zitzaizun ez talenturik ez erabakimenik falta. Norbere gaitasunen gaineko zalantza-izpi harengatik zen, oztopo material guztiez gainera. Garaje batean bizi zinen, sexu-lanak dakarren estresari aurre egiten zenion. Sinetsi nahi nuen idaztea lortuko zenuela hala ere, horixe egin nahi baitzenuen.

Ez zait axola sinesmen xaloa bada: pentsatzen dut mundu guztiak sor dezakeela artea. Beharbada mundu guztia ez da izango hurrengo Saidiya Hartman edo Janet Mock, baina mundu guztiak sor dezake bere bizitzan edo ingurukoenean esanguratsua izango den artea. Baina, egia esan, nik luxuzko bizitza bat izan dut. Munduak argiune bat utzi zuen niretzat, nik artea egitea lor nezan. Argiune hori zuritasuna da.

Zure kasuan ez zen hala izan. Ez zenuen gutxi irabazten, baina eskudirutan beti. Droga-pasatzearen eskudirua, sexu-lanaren eskudirua. Batzuetan arriskutsua zen, eta, arriskutsua ez zenean, larrimin emozionalaren eragilea. Etxebizitzaren kontua arazo bat zen dagoeneko. Zaila da etxerik alokatzea diru-arrasto digitalik ez baduzu.

Okerrera egin zuen egoerak. Maila baxuko osasun-arazo kronikoak, kaleko botikekin sendatuak. Eta, gero, poliziak zure berri izan zuen. Gauzen norabideari atzeman zenion. Legezko lanekin aurrera egiten saiatu zinen, baina, CVrik gabe, gutxieneko soldata baino ez zenuen jasotzen. Hormonek zure aurpegia taxutzen zuten, titiak hazi zitzaizkizun, eta mutilarena egitea

ezinezkoa bilakatu zitzaizun, ez soilik emozionalki, baita fisikoki ere.

Hori guztia izendatzeko kontzeptu bat irakatsi zenidan: *transmisoginoirra*. Feminitate trans beltza-ren aurkako gorrotoa: gauza erorien artean eroriena. Gehiago irakatsi zenidan zuk niri, nik zuri baino. Eta horrek hedatu eta berrindartu egiten du biok biltzen gaituen egitura: horretan, zuk kostata egiten zenuen aurrera, eta ni, berriz, onik ateratzen nintzen ia beti.

Ez ditzadala aipatu gabe utzi aske zinela ikusi izan zintudan aldiak; ez daitezela ezerezean galdu. Dantzalekuan, begiak itxita, kiribil-mugimendu sugezkoak, eskuaz apaindurak egiten zenituen buruaren gainetik. Irribarrea. Nola zinen gai zeure burua mugimenduan askatzeko udako beroan. Horren oroitzapena sakratua da niretzat.

Gero, udazkena, eta COVIDaren itxialdia. Kontaktu eten zen. Ez zenien erantzuten nire mezuei. Zure mundutik aparte mantentzen ninduzun, baze-nekielako zuk ez zenuela bat egiten nirearekin. Uda berriro, uda fresko bat etorkizunekoekin alderatuta, baina kaleetako aldartea, hala ere, suzko.

Zure mezu bat, espero gabea, joango naizela ziurtatzeko. Bizitza beltzen altxamendura. Joan nintzen, gorputz bat baino ez beste hainbaten artean; han nengoen zuk dei egin zenidalako. Zuk, Venus, eta zuk, zu parte zinen horrek: bizitza beltzak. Brooklyneko kaleetan, etxeratze-aginduaren ostean; ni talde txiki batean eta zu beste batean zinela topo egin genuen.

—Zer giro? —galdetu nizun.

Irribarre egin zenuen: mundua arrakalatzeko moduko irribarre zabala.

—Rave beltz bat.

Indarrak batuz. Abian, beste batzuen bila. Gure kaleak! Ausarta zinen; ni, herabea. Saiatu nintzen neure burua epeltzen zure adorean; neurri batean ausardia ausartegia iruditzen zitzaidan zurea. Zure bizitzak axola ez balu bezala.

Aditzera etorri nintzen, ikustera, gobernatua izateari uko egitera. Zatitzen gaituen indarkeria-ordenari uko egitera, zeren ordena horrek mina pairarazten baitzue ordenaren eta jabegoaren arrazoitik harago. Ez naiz ezer berririk esaten ari. Zuri ikasitakoa errepikatzen ari naiz, deiari erantzuten. Puntu berean egon gaitezen.

Bestearen aurkako indarkeriaren aukera distantziatik goza dezaketenen aldean jartzen ninduen ezaugarria utzi nuen. Maskulinitatea utzi nuen. Ez zen izan arrazoi politikoengatik, ezta inongo arrazoiengatik ere. Orain, edonora noala ere, eta niri buruz pentsatzen dutena pentsatu dutela ere, gizon baten itxura ez dakarren norbaitekin jardun behar du jendeak. Zuritasuna ere utziko nuke, baina hori desberdina da. Zuk erakutsi zenidan zuritasuna nirea dela, nik nahi ala ez.

Hona hemen inoiz kontatu ez dizudan istorio bat: atzera egin dezagun 2019ko udara. Times Squaren nago. Espaloiak turistaz josita. Galduta nago, gauza lotsagarria New Yorkeko batentzat. Zazpigarren Etorbidean gora noa. Tarte guztian oso presente dut nirekin daukadala hamar urteko nire haurra. Flame Con komiki-biltzar kuirrera goaz, Sheraton Hotelean.

Hiru gizon beltz ikusi ditut espaloian, gazteak. CDak oparitzen ari dira musutruk. Batek CD bat jarri nahi dit eskuan. Ezagutzen dut amarrua. Behin eskua-rekin heltzen diodanean, hamar dolar eskatuko dizkit. Beraz, ez dut hartu. Tematia da.

—Andrea, andrea, andrea —dio.

—Ez, eskerrik asko.

—Andrea.

—Ez, eskerrik asko.

—Andrea.

—Utzi bakean!

—Aizu —dio beste batek—, tipo bat da.

—Tipo bat da! —berretsi du hirugarrenak.

—Utzi bakean.

Orain atzetik datozkit hirurak, burlaka.

—Jan zakila! —Lelo hori errepikatzen hasi dira denak.

—Jan zakila! —Tonua aldatu dute, mehatxurantz.

Bizkorrago noa, baina atzetik datozkit hala ere. Honek ez du funtzionatuko. Buelta eman, eta parez pare jarri natzaie, haurra atzean daukadala ziurtatuta; otseme bat bere kumea zaintzen. Impasse bat da. Bihotza taupaka teknoaren erritmoan. Segundoek luze jotzen dute, hain luze non haien barruak miatu ahal baitituzu. Badakit non gauden. Segurtasun-kamerak daude bazter guztietan, eta akaso poliziak ere bai.

Une horretan, hau galdetzen diot neure buruari: poliziak iristen badira, noren alde egingo dute: hiru gizon beltzen alde, ala trabelo zuri marika honen alde? Eta uste dut nire alde egingo luketela. Hau da, gauzak itsusten baldin badira, eta polizia agertzen baldin bada, zurtasunak babestuko nau. Sentimendu kontraesankorrak: poliziarekin izan ditudan enkontruak ez dira inoiz izan atseginak, baina ez dira «desatsegin» izatetik pasa. Salbu egon nahi dut, baina ez dut nahi poliziak salbatzerik.

Ingurura begiratu dut, taktikez pentsatzeko segundoaren barruan nagoela, irtenbide bila. Orain kantuan ari dira:

—Jan zakila! Jan zakila!

Bi eskuak altxatu, eta ni naizen trabeloa seinalatu dut:

—Ez! Etorri hona eta jan nirea!

Taupada bat: denboraren soka elastikoa eternal-ki hedatzen da harik eta kolpe batekin itzultzen den arte. Algarak. Barrezka ari dira. Nire lepotik eta ez nirekin. Ez du axola. Nahiago dut txiste patetiko bat izan, maskulinitatearentzako mehatxua baino. Badoaz berriro ere turistei amarru egitera.

Nire haurraren eskuari heldu diot, eta, inguruari begiratu bat emanda, beste hotel bat aurkitu dut. Ai, hemen sartzea kale-taktika seguruagoa zatekeen. Nahikoa ondo jantzitako pertsona zuri gisa, edozein hoteletan sar naiteke. Eseri, eta elkarri eutsi diogu; arindua sentitu dut nik gutxienez. Bihotzak taupaka. Hitz egiten hasi gara, kalean gaudela nola ez jokatu, eta, azkenerako, arrazari, klaseari eta transfobiari buruzko elkarriketa bat izan dugu. Besarkada bat.

—Maite zaitut, aita.

Kanpora abiatu gara berriro, komiki eta *cosplayer* bila.

Ez dakit egon daitekeen iraultzarako premia oinarrizkoago, erraietakoago eta larriagorik, soberako minaren existentzia baino. Nire amaren heriotza goiztiarra haragiarekin lotutako kontu bat izan zen. Zure heriotzaren jatorria, Venus, lan marjinalaren indarkeria izan zen, heterofamiliaren ordena, antibelztasuna. Ezerk ez du lortuko ni halakoekin adiskidetzerik, sekula. Baldin eta istorio batean halakoak mirariz desagertzea espero baldin bada, ez dut inoiz esango «hala bazen edo ez bazen». Beharbada horregatik ez naiz fio istorioekin.

Transexualen txutxu-mutxuen bidez jakin nuen bizitzeari uztea erabaki zenuela. Edo, beharbada: erabaki zenuela zure bizitza lapurtzea antibelztasunaren heriotza bizidunetik. Itxialdian izan zen, isolamendugarai hartan. Itxialdiak bizitza mordo bat salbatu zuen, baina beste hainbat eten.

Pentsatzekoa litzateke honezkero zailduta egongo nintzela galerari dagokionez. Betebehar bat balitz bezala jasaten dut. Mugaraino behartu zintuena ukitzen dudaneko hotza. Behartu zintuen horren kontra sentitzen dudana amorru suzkoa.

Bakarrik joan nintzen Green-Wood hilerria. Jean-Michel Basquiat-en hilarria aurkitu nuen. Belar freskoan eseri nintzen tarte batez; gero, adaxka batzuk bildu eta aldare txiki bat osatu nuen zuhaitzik hurbi-lenaren oinean. Egur bizia zur hilaren kontra. Gauza bera egin nuen Kato zendu zenean. Hainbeste gustatuko zitzaidakeen zuek biok ezagutu izana, bizitzan. Behin-behineko tenplu horren aurrean makurtu naiz. Nire bihotzean gordetako izotz-tristura guztia zorura botatzen saiatu naiz, baina ezin. Horren ordeztu, petaka batetik isuri dut Cointreau pixka bat, zure gogokoena baitzen.



Brooklyneko Museoak badu patio bat aurrealdean, apur bat hondoratua: anfiteatro bat osatzen du nolabait. Christen eta biok hara joan ginen ekaineko arratsalde argitsu batean, emakume trans beltz nabarmenak aditzera: koro kuirra atzean utzi eta zegokien lekua hartu zuten bizitza beltzen aldeko mugimenduen ikono gisa; mugimendu horrek abolitu nahi zituen espetxeak eta polizia —gorpuen modernitate hori—,



iraultza egin nahi zuten bizitza horiek bizigarri izan daitezen; eta, haiekin batera, guztion bizitzak izan daitezen bizigarriak. Brooklyn Liberation for Black Trans Lives mugimendua ikustera etorriak ginen.

Venus, zure itzala sentitzen nuen gorputzen arteko tarteetan zutik. Nola onartuko zenituzkeen egun hartako sentipen guztiak. Beharbada zure irribarre hori zabalduz; oihuka pozez, arinduraz, amorruz.

Beste bi emakume trans beltz hilak zituzten asetebete lehenago. Riah Milton (hogeita bost urte), Ohion. Dominique «Rem'mie» Fells (hogeita zazpi urte), Filadelfian. Joan den maiatzean, poliziak tiroz hil zuen Tony McDade, gizon trans bat (hogeita hemezortzi urte). Atzo bertan, bideo bat agertu zen, Layleen Xtravaganza Cubilette-Polanco preso edukitako Rikerseko ziegaren kanpoan grabatua, zeinetan ikusten baitzen espetxeko poliziak ordu eta erdi egon zirela zain laguntza medikoa eskatu aurretik. Layleenek hogeita zazpi urte zituen.

Kontu zaila da hildakoak ikusmenetik ez galtzea, zuen izenak esatea, zuek ohoratzea eta, hala ere, soilik horretara ez mugatzea. Zure izena esan dut isilka: «Venus». Oroitu nahi dudana zera da: zer-nolako bizitza izan zenezakeen beste mundu batean. Dantzalekuko poza, prosa-puska bikain horiek, eta ez soilik fragmentu gisa. Argi eta garbi ikusten zenuen munduaren ordenak galarazten zizula munduarekiko maitasuna, eta mundua maitatzeko ezinbestekoa dela mundu hau amaitzea.

Antolatzaileek zuriz janzteko eskatu digute. Ghost azpi-soinekora hautatu nuen, Rick Owensaren ordez —biak ere Christenek oparitutakoak—. Jendetza-ko giza filamentuekin nahasi naiz, tente daude museoa inguratzen duen eremu osoan. Washington etorbidean

gora, agertu eta ezkutatu egiten zara, kolektibo beltza-
ren hainbeste ñabardura, elkarri gainjartzen, aldakor.
Beltza eta transa baina baita, zure gorputza handituz,
kuirra eta zisa eta zuria ere. Zuriz jantzitako hainbeste
gorputz trumilka, oinezean, hizketan, izozkiak erosten
kamioian, txalo eta aldarri egiten bozgorailuei jarrai-
tuz, nahiz eta hemendik apenas aditzen den ezer,
hitzaldien kadentziaz aparte. Mundu guztia kokatzen
da besteengandik pauso batzuetara. Mundu guztiak
darama maskara aurpegian.

Berandu gabiltza. Signal aplikazioa begiratu dut
mugikorrean: Jessie-k bere kokalekua bidali dit, bai-
na ez dago modurik hara iristeko jendetza zeharkatu
gabe. Museoaren aurrealdean ekialdetik mendebalde-
ra hedatzen den zuhaiztiak animalia leun baten bizkar
lasaia dirudi, ile distiratsuz estalia osorik. Jendetza
trinkoegia da barrutik pasatzeko; eremua inguratu eta
Lincoln Place-tik behera abiatu naiz: kale paraleloa,
bloke bat atzerago. Zuhaiztiaren beste aldean erai-
kuntza-lanak daude. Inguratu egin ditut. 2. eta 3.
metro-sarreraren bueltan dago Jessie, baina ez dut ikus-
ten. Beharbada kontrako noranzkoan etorri naiz. Jende
gutxi dago; beraz, barrurago sartu naiz. Hizlariak en-
tzuteko gai naiz kasik.

Ibiltoki bat dago museoaren sarreraren gainean.
Bat igo egin dela ikusi dut, eta atzetik noakio. Ibilto-
kia ez dago hesituta, eta ez dago guardiarik ere. Goian
nagoela, manifestazioaren erdia ikus dezaket, men-
debaldeko zatia. Testura berezia du. Ez dago korapilo
esturik aurrealdean. Mundu guztiak distantzia gorde-
tzen du.

Ianne Fields Stewart-ek hartu du mikrofonoa.

—Jende beltza, non zaudete? —Mundu guztia
orroka, lehoiak nola loaldiaren ostean—. Ikusten du-

zue poliziaren helikoptero hori? Erakuts diezaiozun estatu polizial militarizatuari zer ostia sentitzen dugun zehazki haiekiko!

Erdiko hatzak altxatu dira, milaka.

—Luzaroegi, pertsona trans beltzek gure gizatasunaren alde borroka egin behar izan dugu.

Orro!

—Gaur da azkenengo eguna!

Bere hitzen kadentzian barneratu da Stewart, balizko etorkizunen sorta bat performatu du, eta etorkizun horiek gauzatzeko aukera balantzaka abiatu da hemen bildutakoen ekintzetan. Egiaz, ez da azkenengo eguna. Baina izan liteke, honen lekuko izatearekin, halako egunak amaitzeko aukeraren lehen eguna. Gure baiezta penek —orro!— helburu horrekin lotzeko aukera eskaintzen digute.

Bizitza beltzek axola izatearen muina eta materialtasuna aipatu ditu Stewartek.

—Transfobia gaur amaitzen da! —Orro!—. Eta ez da amaituko zure GKEak dirulaguntza bat lortu duelako horretarako. Ez da amaituko bandera transa jarri duzulako zure kreditu-txartelean. Ez da amaituko zure familia zuriari esan diozulako bizitza transek axola dutela. Ez da amaituko larrua jotzen diguzulako eta hala ere okerreko generoarekin aipatzen gaituzulako zure lagunaren aurrean. Transfobia gaur amaituko da zeren, gurekin ez bazaude, ikusiko duzu zer esan nahi duen gure aurka egoteak!

Orro!

Gainezka egin du nire izateak; hedatu egin da, bozkariatu. Elkarrekin performatutako ekintza batek ba al du ahalmenik nahien eta beharren sentipena adierazteko, dimentsio politikotik harago ere, eta munduari hitz egiteko, bizirik den munduari?

Ceyenne Doroshov-ek hartu du mikrofonoa. Gorputzak hackeatzeko gaualdian ezagutu nuen, Mood Ring klubean. Río-k aurkeztu zidan. Ez neukan hari esateko ezer: ohore bat zela bera ezagutzea, hori baino ez. Beste hizlariak bezala, zuei zuzentzen zaizue batez ere; gainerakoak bigarren mailako aktoreak gara ekoizpen honetan. Hala behar du.

—Jende trans beltza, emadazue maitasun pixka bat! Nik maite zaituztet denak! Honelakoak dira bizitza transak. —Ceyenne hunkituta dago, ahotsa pitzatu zaio—. Hil den neska bakoitzarengatik. Poliziak lotsatuta egon behar du. Gutako bat lurperatu behar izan dugun aldi bakoitzarengatik. Beren buruaz lotsatu behar dute. Nire atzean dauden laztan hauek denak. Eta hor azpian zaudetenak. Bizirik nahi zaituztet!

Jendetza orroka. Negarrez ari naiz. Zurekin akordatzen naiz, Venus. Mundu guztiak jaso behar luke maitasuna. Gizatasunaren ideal ausazko batean ez sartzeak maitasunetik baztertzen zaitu, eta indarkerian barnebiltzen. Baina, beharbada, maitasun hori, indarkeriak behartutako eta indarkeriara behartutako maitasun hori, ez da benetako maitasuna. Beharbada badago beste maitasun bat, inoiz aurkituko zenuenik uste ez zenuen maitasun bat. Ama galdu genuen biok, oso modu ezberdinean, eta babes bat eraiki genuen galeraren aurrean, oso modu ezberdinean. Senidetza eta kidetza galtzeak zauri sakonegia eragin zuen. Zuk ez zenuen beste kidezarik aurkitu. Eta, hala ere, hemen dago kidetza hori gaur: parte izatearen, zaintzaren eta maiteen beste praktika bat. Inoiz femmunismoaren kontzepturik izango bada, praktika hori jarri beharko du zentroan.

Ceyenne:

—Umeak, maite zaituztet. Nire familia transeko kide bakoitza eta guztiak maite zaituztet. Zuek arnasa hartzea nahi dut! Luze zutitzea! Eta harro! Eta beltz! — Orroa.— Puuuutak gara! —Orro!—. Oraintxe usainduko baninduzue, pottor onaren usaina daukat!

Jada ez gaude elizan. Hizkuntza horren beste aldea da, hizkuntza horren buztana. Ceyennek sexulangle trans beltz gisa hitz egiten du, eta haiei mintzo zaie:

—Esan behar dizuet, ez badizuet lehenago esan, nazioarteko puta beltz bati begira zaudetela, laztanak. Ni naiz. Eta neure burua saltzen ari naiz zuek salbatzeko.

Ceyenneren ustez, ez da ezer aldatuko non eta pertsona trans beltzak ez diren beren antolakundeen jabe, beren diruaren jabe eta, oroz gainetik, beren jabetgo propioen jabe. Oinarri materialak lortu nahi ditu bizitza trans beltzentzat. Nire burmuinaren zati batek burges-txikitat jo du ideia hori, baina nire burmuinaren beste zatiak, orduan, gogorarazi dio halakoen jabe naizela ni neu. Burges-txikia naizela jada. Erauzketa zuri kolonialetik datorren herentzia bat. Ez naiz bazterketa sistematiko eta arrazistaren kontra egiten ari.

Ibiltokia den bezain luze igarotzea pentsatu dut, jendetza ikusteko. Ekialderantz so eginda, bi pertsona ikusi ditut bidea ixten. Batek zis gizon beltz bat dirudi, altua, eta besteak, berriz, zis emakume zuri bat, ez hain garaia. Eguzkitako betaurrekoak dituzte, eta aurreagian adierazkortasunik ez, segurtasunekoak balira bezala. Segurtasunekoak dira. Ohartu gabe nengoen hemen goian zeudela gaurko hizlari guztiak.

Jainkosen tankera dute denek. Gogora datorkit nola, zuretzat, bizirik irauteko armadura bat zen fe-

minitatearen ideal platonikora hurbiltzea ez ezik hura gainditzea. Inguruko elementuko guztiek sustatzen dute emakume trans beltzen txikiagotzea. Beraz, zuk, haiek, zeuen burua maximizatzen duzue batzuetan; bizitza baino handiago bilakatzen zarete. Femme-arte bat da, ezin du edozein neskak lortu. Nekagarria behar du izan. Arrazakeria eta transfobia gaur bukatuko balira benetan, norbere izatearen boterea performatzeko estilo hau ere bukatuko litzateke? Gure ikonoak izango genituzke oraindik, gure erreginak?

Lepoa luzatu dut segurtasuneko gainetik ikusteko, eta hor dago Ceyenne: mikrofonotik aldentzen ari da, distiratsu; eskularru beltzak, kapa beltza soineko zuriaren gainetik, bufanda argi bat burua bilduz eta hegala zabaleko kapelu beltza azkenik.

Raquel Willis ere hor dago, bakero eta kamiseta zuria soinean; bestelako femme trans bat. Mikrofonoa oinetik askatu, burdin-hesiaren ertzeroa hurbildu, eta so egin dio jendetzari; arnasa hartzen utzi digu. Hurrupe egin diogu bere irudiari, berak gu edaten gaituela. Ez dut inoiz ezagutu, baina zuk eta biok hizketan entzun genuen 2019ko udako elkarretaratze hartan, Layleen Rikerseko isolamenduan hil eta gero.

Gogoeta egin dut bi ekitaldien arteko desberdintasunez. Beste ekitaldi hura zentroan izan zen, udaletxetik pauso batera, harriak botatzeko bezain hurbil. Inork ez zuen harririk bota, edonola ere. Al-dartea bestelakoa zen: su baxuko haserrea, atsekabea, etsipena, amorrua. Zure amorru trans beltza. Egun hartan, Raquelek oroitarazi zigun lehendabiziko Harrotasun Eguna matxinada bat izan zela, eta ezer ez dela askorik aldatzen gobernatuak izateari uko egin ezean. Hitzaldi hura, mugimendu sozialetako hitzaldi on guztiak bezala, profetikoa izan zen.

Orain, ibiltokiaren gainetik, Raquelek gogora ekarri dizkigu gure arbasoak, emakume trans beltz eta marroiak. Inoiz gay-askapena deitu izandako horren muin erradikal eta porrokatua.

—Badakigu nor den Sylvia Rivera, ezta?

Orro!

—Badakigu nor den Marsha P. Johnson, ezta?

Orro!

—Badakigu nor den Miss Major, gure mito biziduna, ezta?

Orro berriro.

Haien bizitzetatik eratortzen da agenda, haien ekintzetatik: masa-espexeratzea, indarkeria poliziala, gizonen indarkeria, legez kanpoko sexu-lanaren arriskuak, etxe-gabezia, osasungintza. Kaleko erreginak ziren. Ezin ziren ezkutatu *passing*aren atzean, ezin ziren egokitu; hortaz, beste bidetik jo zuten: erreginen bidetik, mitoen materiatik. Horretaz guztiz nekatuta zeundela esan zenidan, akigarria zela zuretzat Venus izatea. Ez zenuen miragarria izan nahi. Arrunta izateko eskubidea nahi zenuen.

Raquelek, gero, hurbilago harrapatzen nauen gai bati heldu dio: zuriak eta kuirrek bultzatutako GKE aurka egin du; halakoek apaingarri gisa erabiltzen dute jende trans beltza, baina beren muineko helburuak bestelakoak dira. Are okerrago, jende trans beltzari esaten diote «ez direla aski duinak pertsona zuriak kontrolatutako erakunde horien gidaritza hartzeko, ez eta oraindik ere pertsona zuriak kontrolatzen dituzten baliabideak kudeatzeko».

Poliziak daude inguruan, baina oso diskretu jokatzen dute. Badakite ez dutela meriturik egin hemen maitatuak izateko. Botere errepresiboak onarpena behar du. Hemen, Brooklynen, bizitza beltzen matxi-



nadaren azken asteotan, aski jendek esan du «utikan». Poliziak zenbat eta triskantza handiagoak eragin, orduan eta jende gehiagok egin zion uko poliziaren aginteari, harik eta hiriak, amore eman, eta etxeratzegindua atzera bota zuen arte.

Orain, polizia «erreformatzeari» buruzko txaplata besterik ez da aditzen. Behin baino gehiagotan saiatu arren, poliziak ez du lortu indarkeria bidegabe ki banatzeari uzterik, eta horrexek berak diru gehiago ematen die; izan ere, indarkeria hori da beren egiazko funtzioa. Zu zeu zaren modukoa izan zintezkeen mundu bat sortzeko iraultza aldi berean da praktikoa, berehalakoa, materiala eta sakonki utopikoa.

Gogora datozkit gure mintegi espontaneoak: klub baten atzealdean, rave bateko eremu lasaian. Intersektionalitateari buruz hitz egiten genuen. Opresioaren ardatzak elkarrekin biderkatu eta ia guztiek zeharkatzen zintuzten zu: emakume trans beltza. Mihiztaketari buruz hitz egin genuen, non ez dagoen lerrorik, soilik muga zehaztezinen multzoak: batzuk hor biltzen dira modu nasaian, etiketa horien pean, baina etiketa horietara murriztu ezinik halere. *Dialektikoki* pentsatzen saiatzen ginen, eta, horretan, opresiorik zehatzena —espezifikoa— jasotzen dutenen esperientziak islatuko luke, halaber, kapitalismo arrazializatuaren osotasuna. Emakumearen ideal platonikora ez iristeari buruz hitz egiten genuen, ideal horren zuritasunari buruz. Ideal hori zaintzen duten Karenez. Horretan eta horren kontra gauzatzen da edertasun beltzaren taktika: idealera hurbildu orde, ideala gainditzen du.

Bide horiek guztiek aboliziora eramaten gintuzten.

Pentsatzen jarri naiz jantzi zurien inguruan. Beharbada keinu egin nahi zitzaion lintxamendua-
ren aurka duela ehun urte antolatutako Desfile Isilari.
Haurrak zuriz jantzi ziren. Belztasunak, nolabait ere,
zuritasuna mobilizatuko balu bezala bere alde. Buru-
ratzen zait ezen askapena, ziurrenik, balioen hierarkia
irauliz lortuko dela, idealarekiko hurbiltasunaren orde-
na platonikoa alderantzikatuz —ordena-hitz horiek—;
hala, dena abolituko da, baita ordena horiei eusten die-
ten hertsapen-moduak ere.

Anfiteatrok irten gara, zuriz jantzitako ha-
rrotasun hau garela, eta bagoaz parkera, eguzkira,
berdegunera. Ez daukagu harrotasunik, ez baita eros
daitekeen zerbait; harrotasuna gara, izen kolektibo
bat. Ez dugu estatuarik eraitsi; batzuetan ez dago ho-
rren premiarik. Paisaia geuretzat zizelkatu dugu gaur;
zure ikonoak eta mitoak ohoratu ditugu gureak balira
bezala. Ni bezalakoentzat, horrek esan nahi du zuen
lekukotasunaren lekukotasuna ematea. Horra iragana
eta oraina lotzen dituen beste garai bat. Zuri izaten utzi
ez zizun guztia abolitzearen aldeko deia luzatzen duen
garaia, eta dei hori aditzen duena.

«Gu» esaten dudanean, sinbolikoa da, ez errea-
la; alabastro-larruz jantzitako jende honetatik harago
hedatzeko asmoa du, baina nekez. Gure identitate uga-
rietatik haragoko elkartasuna izan nahi du, baina keinu
unibertsalizatzaile izan gabe. Behin eta berriro gogo-
rarazten zenidan moduan: ni beti itzul ninteke etxera,
nire bizitza zuri segurura.

Errazkeria litzateke nire minei eustea, eta esatea
ni ere hamaika aldiz utzi nautela emakumetasunetik
kanpo. Larriagoa da beste premia hau: zer egin behar
duen norberak emakume zuri bihurtzen denean, Ka-
ren bat bihurtzen denean. Bere bular hazi berrian bere

diferentziari kontu egiten ari zaion emakume zuri bat izanik ere.

Venus, ezin dut idatzi zuk hemen idatziko zenukeena. Badakit nire hitzak arriskuzkoak direla. Nolakoa da antzekotasunik gabeko elkartasuna? Ceyennek hitz egiten duenean, Raquelek hitz egiten duenean, zuk zenbait gauzari buruz hitz egiten zenidanean, ezin dut esan: zure mina sentitzen dut. Hau esan dezaket, besterik ez: neure mina sentitzen dut, zureari buruz hitz egiten duzunean. Emakume trans beltzen poza ikusten dudanean, ezin dut esan: zure poza sentitzen dut. Hau esan dezaket, besterik ez: beste poz baten sentipenak zabaltzen dituzu niretzat. Gure borrokak uztartzearen estrategia eta taktika da politika. Lot gaitzaketen egoerak zizelkatzea, artea. Eta zuk ez zenuen aukerarik izan, inoiz, arte hori sortzeko

3.3

ZIBELERI

Hainbat izen izan dituzu, Zibele. Azken hau, egia esan, kasualitatez etorri zaizu. Zure izenen artean politena iruditzen zaidalako deitzen dizut horrela. Ez da zure izen sekretua. Hori ezin du jende guztiak jakin.

Ez diot inoiz idatzi jainko bati, Zibele, are gutxiago antzinako greziarrek eta erromatarrek jainko guztien amatzat hartzen zuten jainkosari. Ateoek, normalean, ez dute halakorik egiten. Ateoa izanik, zu gabe bizi ninteke, baina hor jarraitzen duzu nolabait ere. Zuek, jainkoek, uko egiten diozue hiltzeari. Inguruan zabilzate beti, hil gabe, egunerokoaren fantasmagorian. Erregutu egiten dizuete eta tartean sartzen zaituztete beti.

Gutxien daukatenek behar dituzte jainkoak gehien. Jende batek ezer ez daukanean, jainko bat izan dezakegu hala ere. Ez gaituenean inork laguntzen, inork lasaitzen, ez duenean inork borrokatzen gure alde, hor daude jainkoak oraindik. Kontu labaina. Bosterearen jainkoak daude, eta herriaren jainkoak. Beren jainkoak eta gureak; normalean, jainko berberen aur-

pegiak dira. Fedea da herriaren fentaniloa, baina baita mundu bihozgogorraren gogorgunea ere.

Jean Geneten *Le Balconen* bezala: errepublika sutan dagoela, agintariek jainko nagusien bertsiorik beldurgarrien hologramak pizten dituzte. Hemen inguruan, guztiz astazakila izaten da zeruko jainkoen artean nagusitu ohi den jainko-mota: ordenaren eta zigorraren jainkoa. Besteekin jolasten ez dakitenen motakoa. Ziur aski espero izatekoa zen, errepublika hiltzorian dagoen honetan, haren jainkorik bortitzena ausartu izana sakrifizio are gehiago eskatzera. Estatu inarrosi honen erritual ustelak penagarriagoak dira urterik urte.

Jainkoa ordenatzat eta ordena jainkotzat hartzearen mirabetza. Hemen, New Yorken, ordena horren sinestunak kale-izkinetan egoten dira, metro-geltokietan, debozioz begiratzen diete beren telefonoetako errosarioei, jantzi urdinez, beren pistolen ipurdia laztantzen dute. Urterik urte, hiriak diru gehiago ordaintzen die gure emaitza kolektibotik. Ozpindutako mundu baten ospina.

Ordenaren fededun asko hurbiltzen da orobat zure gurtzara, Zibele, ama nagusia baitzara. Natura deitzen dizute. Neure buruari galdetzen diot, ordea, zeuk irrikatzen duzun moduan ohoratzen ote zaituzten. Lur-ama bihurtzen zaituzte, eta zure izatea baliatzen dute ni bezalako neskak zikintzat jotzeko. Ordenarekiko kultu lurtar horrek pozarren bat egiten du ordenaren kultu zerutarrarekin. Haientzat, ordena da guztiaren muina; berdin du behetik edo goitik datarren, lurretik edo zero betierekotik, amatxorengandik edo aitatxorengandik.

Jainkoak beti dira guk atxikitzen dizkiegun gauza guztiak, gauza kontraesankorrek izanik ere: ordena



eta kaosa, antzekotasuna eta diferentzia, heriotza eta sorkuntza. Zure izena esateko beste modu batzuk nahi ditut, hori baino ez; zuri erregu egiteko beste erritu batzuk. Zibele: atalaseen, trantsizioen, mendiaren eta hiriaren jainkoa; kobazulo sakon, ilun, isilen eta kaleko raverik zaratatsuenen jainkoa. Ez zaizu harrigarria irudituko —ezta beste inori ere, egia esan—, zure energia narras, alai, zabal eta arraroa ohoratzea nik. Nahiz eta hori baino gehiago zaren.

Ekialdetik etorri zinen, Frigiatik, eta beti gertatu zinen zertxobait exotikoa, zertxobait bestea eta aztoragarria sentikortasun erromatar eta greziarrarentzat. Edonola ere, nahieran baliatu zintuzten beren azpikeria eta proiektu kolonialetarako. Zu bezatzen saiatu ziren. Baina zu han eserita zeunden, lehoi bat magalean. Lehoiak zuri erantzuten zizun, eta zuk, inori ez. Botereak bere egin nahi zintuen, erabili, baina katu horiek hozka egiten zuten, bai.

Greziarren kasuan, oihartzuna izan zenuen giro alternatiboetan. Raveetako jainko bihurtu zintuzten. Kantuan eta dantzan eta total drogatzan. Greziarrek jarri zizuten pandero hori eskuan. Bost axola zuri: jainkoak proteikoak zarete. Edozein lan hartzen duzue.

Zurekin zetorrenak sortu zituen arazoak. Zu nahi zintuzten, Zibele, baina ez Atis, zure maitalea, eta Atisek esan nahi izan zezakeena. Atisen mitoa aldatu zuten, beren mundua ez aldatzeko. Zure mitoaren hurrenkera aldatu zuten, beren aginte-ordenara egokitzeko.

Zibeleri eta Atisi buruzko beren bertsioan, halore, baliteke gauza bat zuzen adierazi izana: zuen arteko maitasuna sakona zen. Zure Atis kutuna artzain arrunt bat zen, langile bat besterik ez; ez errege edo printze handi bat. Arrunta, baina aldi berean arrunta ez. Zure

maitasuna ez zen gizon batenganakoa, ezta emakume batenganakoa ere, haien ulerkeraren arabera betiere. Nire garaiko hizkuntzan, Atis transa zen: t-neska bat, neska tzar bat, gu bezalako neska bat. Eskandalu bat izan zen, gu bezalako neskak ez baitira maitatu behar: larrua jo behar zaie, besterik ez.

Atis maite zenuen, tinko maitatu ere. Atisek ere maite zintuen zu, baina ez hain ondo. Ez zen gai bere burua maitatzeko. Atis hasieratik izan zen orain trans deitzen diogun hori, eta zuk bazenekien, eta maite zenuen hala ere. Baina bera ez zen gai zure maitasunean sinesteko, Zibele. Ezagutzen dut sentipen hori. Gutako askok ezagutzen dugu. Trantsizioa egin ostean, pentsatzen nuen inork ez ninduela berriro maitatuko.

Zure maitasunean sinesten ez zuenez, Atisek alde egin zuen, eta larrutan egin zion beste neskaren bati. Sinetsidazu, matte: ez zuen ezer esan nahi izan. Baina ikaragarri tristatu zinen. Trumoiak eta uholdeak, suak eta haizeteak. Zure mina eta sumina dira. Horregatik egiten ditugu halako parrandatzarrak zure omenez. Ea animatzen zaren. Ea aldartea goxatzen eta alaitzen zaizun.

Istorio guztietan errepikatzen den hori da egiazkoa: Atisek, tresna zorrotz bat hartu, eta barrabilak moztu zituen. Hurrenkera da aldatzen dena. Opari baten istorioa zen; aginte-istorio bihurtu zuten. Atisek ez zituen barrabilak moztu penitentzia gisa, zu uzteagatik eta beste batekin joateagatik. Askoz lehenago moztu zituen. Istorioaren hasiera da, berez. Barrabilak moztu zituen eta zuri eman zizkizun opari. Hala ezagutu zenuten elkar. Bi keinu dira: mozketa, bere buruaren-tzat; oparia, zeuretzat. Ez da sakrifizio bat; Atis ondo sentitzen da gabe. Atisek bere gorputza berregin zuen,

eta zu ohoratzen zaitu jainko gisa, mundua berregiteko boterea duen jainkoa baitzara.

Gu bezalako neskek ez dute azalpenik behar Atisen mozketa ulertzeko. T-neska bat da, haragia eskuz lantzen. Baina kastrazioaren kontuarekin antzinakoak erotu egiten ziren (gaur egungo batzuk ere). Istorio bat behar zuten; bestela, ulergaitza iruditzen zitzaien zergatik egin zezakeen «gizon» aske batek halakorik. Modernoek ez bezala, bertatik bertara ezagutzen zuten zer gertatzen zen akerrei, ahariei, zezenei edo zaldiei barrabilak moztuz gero; baita esklaboei moztuz gero ere. Freudek baino gehiago bazekiten behintzat: hark, izan ere, ez zeukan arrastorik ere zer zati mozten zen. Baina kentze gisa ikusten zuten halabeharrez, galera gisa, eroriko gisa.

Haien mito askotan munstroak eratzen dira barrabilak moztearen ondorioz. Gauza txarra balitz bezala derrigor. Zibele: guk, gu bezalako neskek, munstroak maite ditugu. Modernoak dira. Erakusten dute bestelakoa izan daitekeela, eta nola izan daitekeen bestelakoa. Gauza berrien zeinua dira. Hau zure mundua da, bere forma eta jario guztietan.

Horixe da zuri buruz —eta gu bezalako neskez— inoiz ulertzen ez dutena. Sorkuntzaren jainkosa baldin bazara, zergatik hartzen duzu maitaletzat Atis t-neska? Sorkuntza ez baita ugalketa soilik. Egite eta egintza ororen jainkoa zara. Mundura sartzen diren diferentzia-modu ororena. Munduak bertako elementuak editatzeko eta antolatzeke dituen modu ororena. Praxiaren jainkosa. Horregatik oparitu zizun Atisek bere haragi moztua. Munduarekiko maitasunez.

Mendian bizi zara, lehoiz inguratuta, otsoz ere bai batzuetan, baina orobat jarduten zara beharginekin: artzainekin, ehiztariekin, biltzaileekin,

errementariekin, erlezaleekin. Dantzan egiten dute zuretzat, dantzan egiten dute zurekin, zuk finkatutako ildoei segika. Kurbatu egiten dituzte, okuirtu, eta zurekin bihurritzen dute bizitza, sendaketa eta etxea. Kontu handiz jokatzan dute betiere: ez dute sekula ahazten zure lehoiek nahieran hiltzen dutela.

Zure egintza ez da purua. Beti dago arte pixka bat, teknika pixka bat. Gu bezalako neskek ondotxo dakite hori. Anakronismo bat barkatzen badidazu: harreman berezia izan duzu beti gurekin, t-neskekin. Ama gisa hartzen zaitugunekin, eta gu geu amagintzarako gai garenokin, baina beti eta soilik bestelako modu batzuetan.

Ohartarazpen bat hau irakurtzen ari diren emakume transentzat: guri buruz ari naiz, baina gu horretan sekula ez dira bilduko gutako guzti-guztiak. Gutasuna, beste-bat gisa. Gu horrekin bat egin nahi ez dutenentzat: beste zaintza-akelarre mordoa dago. Beharbada gure multzo eta harrotasun ugariak federatu ditzakegu, gure inguruan mugarik altxatu gabe.

Gure izen antzinakoa erabiltzearren: galiarrak gara, Zibelaren abadesak. Beharbada gure izenak Gallus ibaian du jatorria; Frigian zegoen, zure jaioterrian, handik edaten genuen. Uste dute hango urek erotu egin gintuztela, baina guk pentsatzen dugu gure senera ekarri gintuztela atzera ere. Eta, ezer izatekotan, sentsualak gara zu ohoratzen zaitugunean. Beharbada «galiarren» jatorrian «galaziarrek» daude —herri zelta bat—, zeinak Frigian bizi baitziren erromatarrek zure gurtzaz interesatu orduko. Erromatarrek uste zuten zeltak maritxuak zirela.

Erromatarrek iritsi orduko, estilo bat geneukan, eta eusteko gai ginen. Malba- eta azafrai-koloreko txa-

businak janzten genituen, purtzileriaz zipriztinduta, eta ile argitua txirikorda luzetan bilduta eramaten genuen, mirra-lurrinarekin. Kapela garaiak koroen ordeztan, makillaje distiratsu baldarra, ikonoak zintzilik bularren gainean. Musika basatiaren erritmoan dantzan egiten genuen, danbor eta zinbal, pandero eta flauta bikoitz. Aldakak kulunkatuz jaisten ginen etorbide nagusian behera. Gure festa-egunean, erromatarrek ere botatzen zizkiguten arrosak oinetara, t-neska orok mezei baititu arrosak bizi den bitartean.

Erromatarrek aho zabalik begiratzen ziguten, bibaka, baina soilik geure burua ikuskizun gisa aurkezten genuenean. Gehitxo ginen hazle burutente haientzat. Katulo ere zurbil geratzen zen ikusten gintuenean. Maskulinitatetik kanpo egoteko nahia ulertzen zuen gutxienez, baina seko izutzen zuen. Gainerako gidoilari erromatarrentzat materiala baino ez ginen. Bestetasun bezatua bilakatu gintuzten, eta beren izate berberen barnean gorde arrisku gabe. Katu etxekotuak bezala.

Erroma, bere garaian, Hollywood eta Pentagonoa zen, bat eginda. Oro ikuskizun eta indarkeria. Adore emateko balio zezakeela iruditu zitzaientz gurtza guztiak erosi zituzten. Afrikako Hanibalen aurkako gerrarako errekrutatuta zintuzten zu. Ziurrenik ez zenien irabazten lagundu, baina hala sinets dezaten utziko diegu.

Zure harri sakratua aldean eraman al zenuen Erromara? Antzinako iturriek ez dute argi azaltzen. Galdu egin da harria, baina esango nuke munduan dagoela oraindik, nonbait. Benetan egokia meteorito beltz bat izatea: zeruertzaz haragoko gauza arrotz bat. Bien jainkosa: bai lur argitsuarena, bai bestetasun hutsarena.

Zu nahi zintuzten, baina ez zuten galiarrik nahi, ez ni ez nire ahizpa transexualik. Baina eskainitako pa-

ketearen barruan geunden. Sasi-idazle erromatarrek, guri buruz idatzi zutenek, ez zeukaten argi txantxa ala mehatxua ginen. Galiarrak, t-neskak, puntuazio jakin bat gara, mozketa bat, bestetasuna agertzen den lerroa. Marka bat, zeinaren aurrean zurbiltzen eta sumintzen baitira lurreko zein zeruko ordenaren fanatikoak. Bestetasun bat aldi berean arrotza eta guztiz intimoa: hementxe bertan, haragian.

Erromatarrek zure gurtzaren IP helbidea esku-ratu zutenean, zu beren erara ospatzen ahalegindu ziren: ahariak eta zezenak hiltzen, odol-putzuetan jostatzen. Ondoren, kirolak ikustera joaten ziren. Horra hor erromatarren funtsa. Batzuetan iruditzen zait haien esklabo-estatua ez zela inoiz bukatu. Gu, galiarrak, haien ikuskizunaren parte bihurtu ginen: kalean so geratzen zitzaizkigun, aho zabalik. Lanbide bat da.

Gero, kristauen jainko zerutarra etorri zen: muintaraino gorroto gintuen hark. Kristauek sakratuari buruz duten ideiak haragia gorrotatzearen zorigaitza esan nahi du. Hori ez da guretzat. Ez zaigu gustatzen sakrifizioa. Gu oraina gara. Kantuekin dantza egiten dugu, uluekin. Are gehiago: geure haragia ere mozten dugu, hautatutako minaren zirrara sentitzeko. Haragian sartzen gara, bizitza zauritu honetan, eta, horrek emandako zaina baliatuz, munduekin bat egiten dugu.

Ni neu ez nago hemen ebakiengatik, baina plazera hartzen dut pare bat leku sentikorretan tatuajeak egitearen mina sentitzen dudanean. Era horretako egoera batean dei egin nion lehen aldiz zure izenari, Zibele: ahuspez nengoen mahaian, eta, bien bitartean, gure ahizpa Larch Needles-ek bere lerro polit eta okerrak lantzen zituen nire ezkerreko izterraren atzealdean. Esku hutsez marraztu zuen patroï hura, oi-

narritzat hartuz Hudson ibaiko izotz zartatua —handik gertu geunden—.

Ez da nire jardun kutuna, baina atseginez hartu dut izter horretan bertan zaldi-usta batekin eman didaten zartakoa eta erremina. Profesionalki aritzen hasi aurretik, nire etxera etorri ohi zen Dahlia, ni astintzera. Dibertitzeko astintzen ninduen; ez ninduen gogoko. Dahliaren usta-zartakoei dagokienez, nire minaren atalasea hamarretik zazpi zen. Larch Needlesen tatuajeak hamaikara igo zuen atalase hori hiru orduz. Zure izenari dei egin nion. Alferrik, banekien. Hala ere, lagungarria izan zen.

Ezin da negoziatu zurekin. Oinazea, plagak; hori ere bazara zu. Hilkorrontzat ez dago gauza handirik hemen, bizitzaren ikuskizun iragankorraz aparte. Zure neskek badakite zerbait horretaz.

Erromako eta Greziako idazleek galiarrei buruz idatzi zutena irakurtzen dudanean, liluraren eta higuinaren arteko nahasketa bat nabaritzen dut: hain ezaguna, ai. Nire garaiko akademiko klasikoak ez dira askoz hobeak. Nik lerro artean irakurtzen dut. Guk, tneska modernoek, beste aldetik ezagutzen dugu haiek ikusten dutena, eta ikusi uste dutena, eta zer dakusagu: bizitza beteago bat.

Galiarrek moxal haurdunen pixa edaten zuten, azala leuntzeko; eta titiak hazteko. Galiarrek dirua egiten zuten erromatar babo horiei ipurdia salduz; tenplua eraikitzeko. T-neskak maite zituzten galiarren transek-transentzako sexua eta sentipenak eta transbollodrama. Edo afera ezkutua —jendaurrean sekula ez onartzeko modukoak— hiritar errespetagarriekin. Haientzat, batzuetan, zugana iristeko atalasearen atalasea dira gure ipurdiak.

Hala gertatu zen, adibidez, Jane-rekin ligatu nuenean. Aplikazio batean ezagutu genuen elkar. Tragoak eta aitorpenak. Aipagarria da zer-nolako gauzak kontatzen dizkien jendeak gu bezalako neskei. Haren hotelera joan gara. Lanean ari naiz, mihi eta hatz, aluan eta klitorian. Negarrez hasi da. Besoetan eutsi diot. Inork ez du horrela ukitu luzaroan, baina areago da inork ez duela entzun beraren istorioa. Tragoak hartu bitartean kontatu didan istorio hori. Batzuetan beste norbait dagoela. Jane dago, eta David dago.

—David zara orain?

—Bai.

—Korritu nahi duzu?

—Bai.

Beraz, hatzak bere jarioetan busti, eta ipurditik eman diot Davidi. Eta korritu egin da eta negar egin du aldi berean. Gero, eutsi egin diot tarte batez. Harik eta Janek, samurki, alde egiteko eskatu didan arte.

Zuri eta guri buruz irakurtzen dudanean, gehienbat zera irakurtzen dut lerro artean: galiarrek, amagintzan, neska berriak ekartzen dituztela existentziara, bizitzara. Eta erritu-jantziak erabiltzen dituztela horretarako. Ez daude zis doktoreen eta beren ospitaleko txabusinen mende. Gure zaintza-akelarreak ikusten ditut orobat, beren liskar eta ezinikusiekin, jakina: gure bizitza hauskorraren alderdi hori ere presente zegoen orduan.

Bagenituen gure egun bereziak Erroman, ikus gintzaten, eta berriro bazter gintzaten gero. New Yorkeko Harrotasun Hilabetea bezalaxe. Galiarrek drag-saio bikaina antolatzen zuten, eta erromatarrek beren genero-izua baretzen zuten hala, arriskurik gabe. Gauzak ez dira asko aldatu. T-neska ikusgarrien



multzo txiki bati lagatzen zaio kultur industriaren ertz distiratsuetan jirabiraka ibiltzen. Edo, nire kasuan bezala, akademiaren ertzetan jirabiraka ibiltzen. Baina ikusgaitasun sinboliko horrek ez die ezer ekartzen gainerakoei.

Pentsa nezakeen Lukreziok ulertuko lukeela. Ohartzen baitzen poemak zinetela zuek, eta ez gauzak: taupada amaiezin bat zineten, eta taupada horrek bere burua sortzen zuen, bere burua aldatzen, bere burua garatzen. Neurtitzez osatutako mundu bat zineten, letraz osatua; direnik eta izpirik txikienak, infinituki konbinatzeko modukoak. Baina tipoa ez zen ohartzen hainbat modutara jaio daitezkeela munduak, baita poemak ere. Sortzen den guztia ez dela sortzen zakila aluan sartzearen sexu zisheteroaren bitartez.

Eta Lukrezio ez zen ohartzen, bestalde, horregatixe direla sakratuak galiarrak: beste sortze baten marka garelako. Gorputzak izan daitezke beste modu batean. Kontu harrigarriki antzinakoa da gorputzak moderno izatearen kontu hori: haragia egitea eta haragia berregitea. Eta, hala ere: gure ahizpa Luce de Lire-k, zolitasun transexualez, gutar baten erara irakurtzen du Lukrezio, eta, antza, Lukrezioren poemak ebaki bat dauka galiarren inguruan mintzatzen den lekuan hain justu. Zerbait falta da hor; zuretzako opari bat da agian. Zulo bat poeman, ebaki batek osatutako poema.

Guretzat, modernoentzat, mundua ez da poema bat. Forma problematikoago bat baizik. Mundua autofikzioa da, lol.

Lukrezioren alderdirik maitagarriena zera da: zuek, jainkoak, benetakoak zarete, baina bost axola zaizkizue gizakien kontuak eta komeriak. Gure ekinzek ez dakarte ez laguntzarik ez kalterik. Maitagarria, benetan, baina neskontzat arriskutsua orobat. Antzi-

nako garaietan, erromatar askok uste zuten gai ginela zure jainkosa-boterera iristeko. Etorkizuna iragar genezakeela. Gure madarikazioek eragina zutela. Bestea gara oraindik, bizitza publikoaren ertzean gaude beti, baina orain gure ahizpak espaloi-ertzera botatzen dituztenean ez dituzte otso eta lehoi sakratutzat hartzen, piztia profanotzat baizik: basakatutzat eta kale-txakurtzat.

Hemen inguruko batzuek uste dute Jaungoikoaren jabe direla, eta esaten dute jainko zerutarrak hilik nahi gaituela gu, era honetako neskak. Lur-amarren atsoak bat datoz. Aldiz, jainkoan sinesten ez duten horiek, eta, bitxia bada ere sekularismoan sinesten dutenek, hori ere jainkozko samarra ez balitz bezala, haiek uste dute kaltegabeak garela, eta onak garela aniztasunarentzat, ekitatearentzat eta inklusio-puntuak lortzeko. Dena den, salbuespena atzera bota daiteke, hala komeni baldin bada hiriko eta estatuko kontuetarako.

Beharbada, gure botere sakratua berriro aldarrikatzea erabaki taktikoa izan liteke. Lehen, madarikatu egiten genuen jendea; orain, kantzelatu; eta ez du inoiz funtzionatzen.

Izate bitxi gutxi batzuk gara, baina zisheteroak erraz beldurtzen dira. Pentsa zer-nolako izua sentituko luketen baldin eta, gudan ikusten dutenetik harago, zu begiztatuko bazintuzte. Zure kontzeptu guztiz erradikalaren apaingarriak baino ez gara. Kontzeptu hori: zure sortze-botereak ez direla ugalketa soilik, eta —are desafio handiagoa— zure suntsitze-botereak ez direla heriotza soilik. Gizatasunaren amaiera, baita lurreko bizitza ororen amaiera ere, erpe-kolpe batekin eragin zenezake.

Zibelozenoa...

Eta, gero, guri dagokigun zatia: egon daitezkeela femme-formak ugalketarekin batere zerikusirik ez dutenak. Beren existentzia ez diotela zor jaiotzari eta zurrupatzeari (nahiz eta jakina den t-nesken titiek esnea eman dutela). Eta horren abatarra gu bakarrik izan gaitezke. Galiarrak. Ibai drogazale hartatik edan genuen, eta ibaiak eskatu zigun kentzeko maskulinitatea, eromena baitzen guretzat.

Zaila gertatu zait mundu hau maitatzea bere horretan. Zaila gertatu zait gorputz hau maitatzea bere horretan. Luzaroan, oso luzaroan, gauzek nolakoak izan behar luketen pentsatzen nuen, besterik ez. Mundu hau bere horretan maitatzeari, gorputz hau bere horretan maitatzeari, zure izena ematen diot, Zibele. Mundua eta haragia beste modu batean egin daitezke, arte eta zientzia pixka batekin, nahi kolektibo puska batekin. Sortzeko lan horren abiapuntua zera da: «bere horretan» esapidea. Izan daitekeenaren praktika bat, izan behar lukeenaren praktika baten ordeztu.

Pertsona bat zenbat eta dogmatikoki sekularra goa izan, orduan eta probableagoa da pertsona hori guztiz engantxatuta egotea jainkoren batekin, nahiz haren izena esateko gai ez izan. Zuek jainkoak bai argiak. Izenak aldatzen dituzue, eta orobat aldatzen dituzue ezaugarriak. Abstrakzio itxuraz sekularraren tankera hartzera ere iristen zarete. Behiala, mundu hau ukatu nahi izan nuen, mundu ideal baten mesedetan, eta hara non jainko zerutar bat aurkitu nuen pentsamolde horretan ezkutatuta. Behiala sinetsi izan nuen literalegia zela nire haragia aldatzea, eta espiritu kuir aske bat izan nintekeela besterik gabe, eta hara non jainko zerutar bat aurkitu nuen pentsamolde horretan ezkutatuta.

Gaur egun jada ez diet dei egiten jainko horiei. Zugana jotzen dut. Ez dut uste aditzen didazunik edo erantzun ere erantzungo didazunik. Zure axolagabeta-sun itzelari zuzentzen dizkiot otoitzak. Ez dut espero aztertuko dituzunik.

Zure gabezia ere erabilgarria da. Ni ez bezalakoa denak ez du zertan izan beste gizaki huts bat eta ez nik ez dut zertan kokatu haren aurka subtxio sarkastiko disimulatuen bitartez. Praxiak, kolektiboa izango bada, hirugarren bat behar du zu-eta-ni bakoitzaren artean. Are gehiago femmeak antolatu nahi dituzunean. Ez gaitezen beti izan elkarren etsaiak. Puta otsotiarrek gara, gero.

Hirugarrentasunaren komunismoa deitzen nion lehen. Beti zegoen oso urrun: inoiz ez hemen, etorkizun baizik. Immanentea izan zitekeen, berehalakoa, baina ez egiazkoa, eta ez orain bertan. Ez lur-ama, ez zeru-jainko, horizonte bat baino ez. Beste ordena-hitza bat edonola ere.

Horren ordeztu, orain zure izenez deitzen diot hirugarrentasun horri, Zibele deitzen diot, edo, bestela, meme batean harrapatutako beste izen batekin, hau da, hizkuntza den sorkuntza-korronte ezinago mudakor horrek sortutako izen batekin: femmunismoa. Gutako bakoitzarengandik aparte eta gutako bakoitzaren parte den horri deitzeko izen bat da, hemen eta orain eta egiaz dagoen horri eta partekatzen dugun horri deitzeko izen bat.

Zure izena esaten dudanean, Zibele, ez dizut zuri deitzen, guri baizik.

EPILOGOA

4.1

MCKENZIERI

Gogoan al duzu Prince ikusi zenueneko hura, Sydneyko Cricket Ground-en? Diamonds and Pearls bira zen, 1992koa. Gau goibela. Edwardekin emandako azkena. Euria ari zuen. Espero baino hotz handiagoa egiten zuen. Eta hala ere Princek sutan jarri zuen ohol-tza bere artearekin: soinua, sentipena eta keinua, dena batera. Little Richard dakar gogora bere erabatekota-sunean. Gorputzak musikaren bidez zeharkatzen ditu bere desira animaliazkoa eta min gizatiarra. Haragi oihulari hau, funk hau, blues hau. Oroimenera ekartzen baldin baditugu une horiek zeinetan pentsamendu bat edo sentazio bat airea zeharkatzera ausartzen baita arku txiki bat osatuz, beharbada horri esker gai izango gara halakorik gertatzea posible ez dirudien uneei buru egiteko.

Garai txarrean harrapatu zaitut? Hala da, badakit. Hogei urte zenituela idatzi nizun, eta ez nuen erantzunik jaso. Berriro saiaturko naiz orain, berrogei urte dituzun honetan. Puntu jakin horretan, norma-lean, ohituraren herdoilaz estaltzen dira urte batzuk



lehenago berritzat jotako bideak. Badirudi gauza arrunta dela berrogei urterekin zorigaiztoko sentitzea. Sentipen horri ihes egiteko, zure bizitza berrasmatu zenuen. Christenekin maitemindu, harekin ezkondu; emigratu. Zure lan-ibilbidea hutsetik abiatu Estatu Batuetan. Uste zenuen bazenuela aski energia, aski indar eta aski borondate zure bizitza aldatzeko. Eta orain ohartu zara beharbada ez zela hala. Orain, hauskorra zarela iruditzen zaizu, zaurgarria zarela munduaren aurrean.

Newcastle gure jaioterrira bisitan etorri zaren batean idazten ari natzaizu, nahita; oraingo honetan, bi hegaldi luze hartu dituzu, lehenik New Yorketik Los Angelesera eta ondoren handik Sydneyra, eta azkenik trenez igo zara kostaldetik barna, Newcastleraino. Bagoitik ikusi dituzu hareharritzko labarrak, hosto grisberdekarak eta waratah zuhaixka gorriminak beren zurtoin luze eta guzti: paisaia horren galerak, eta bereziki azken landare horrenak, min ematen dit oraindik. Waratah-tatuaje bat daukat orain.

Atsedean hartu duzu, azkenik, hoteleko gelan. Leihotik ikusten da Newcastleko Ospitalea: hura osatzen zuten eraikinak behintzat. Apartamentuak dira orain. Azpian, hondartza; hara joaten zineten ahizpa eta biak udaran, zu txikia zinenean. Baliteke hotel-gela honetan bertan geratu izana behiala Christenekin, familia ezagutzera ekarri zenuenean. Lehendabiziko goizean, gortinak zabaldu zenituen, hondartzara begiratzeko, eta hara non ikusi zenituzten izurde batzuk olatu-aparretan jolasten. Christenen gozamen agerikoa ikusi zenuen, eta zenbat maite izan zenuen horregatixe.

Oraingo honetan, ordea, zure aitaren hiletara etorri zara. Egin duzue hileta, baina ez zara bereha-

la bueltatuko etxera. Helduko diot atzerapen horren baldintza ohiz kanpokoei, baina geroxeago. Kontua da baldintza horiek itzaletan uzten dutela etxean egotearekiko —edo behiala etxea izandako horretan egotearekiko— dituzun beste sentipenak. Triffids taldearen abesti bat datorkizu akordura: «Ezabatu nire izena zure ezpainetatik, musu ematen dugun bitartean».

Neba-arrebek kudeatu zuten aitaren gainbehera. Zu urrun zeunden. Beti izan zinen, eta beti izango zara, seniderik gazteena. Anaia txikia, ahizpa txikia. Tira, oraindik ez. Hori etortzeko dago. Zure bizitzaren aukerak hainbat noranzkotan bideratzea erabaki zenuen, eta beste lehentasun batzuk ezarri zenituen neska bihurtzeko erabakiaren aurretik. Nork esan dezake erabaki txarra edo ona den? Berrogei urte ingururekin hasten gara gauza bat sentitzen, hirurogei urte ditudan honetan ziurtzat jotzen dudan gauza bat, eta zera da: mugimendu-kopuru mugatu bat bakarrik egin dezakegula norbere bizialdian, baina mugimendu asko direla hala ere.

Gaur egun ere bizkarra ematen ari natzaio Ross hil zenean harengana sentitzen zenuenari. Hileta kudeatzeko lanak barkatu zizkizuten arren, elegiaren ardura hartu behar izan zenuen. Duela gutxi aurkitu dut dokumentu hori nire artxibo digitalean. Berrirakurri egin dut, eta harrituta geratu naiz testuaren goxotasunarekin. Arau sozialek finkatutako tonu bat izanik ere, zintzoa da aldi berean. Hari buruz gordezten dugun oroitzapena gogortu egin da denborarekin, eta beharbada beste modu batean oroitu behar nuke hura: ni hainbeste urrundu aurretik zuk oroitzen zenuen moduan.

Gogoan al duzu orduko aldi hura, Newcastle zure etxea zenean artean? Ekaitzak eta uholdeak izan ziren, eta, segidan, egun argitsu harrigarri bat. Hondartzara etorri zinen, eta angurriak zeuden uretan flotatzen, ibaiertzeko soroetatik etorriak. Buru berde haiek aparretan zabuka. Halako batean lehertu egiten ziren, haragi arrosa bitsean. Hunter ibaiaren jarioak hor dirau, noiz bizkor noiz geldo, baina beti porturantz, itsas zabalerantz, garraio garamatza gu denok. Gurasoak hil dira, eta orain zu eta neba-arrebak zarete familiaren buruak, eta ziur aski zuek izango zarete ozeano zaharrera isurtzen hurrenak.

Jende gehienak egiten duen eran, zeure familia osatu duzu zeuk ere, denborari eusteko ahaleginean. Maitemindu egin zinen. Ezkondu. Etxe bat osatu nahian zabilta hemendik urrun, New Yorken. Guztia akats bat izan ote den galdetzen diozu zeure buruari.

Bizkor gertatu zen oso. Duela urtebete eskas Sydneyko jabetzak eman zenizkien errefuxiatu batzuei. Gustura jaso zuten sukaldeko tresneria, baina harrituta geratu ziren zure disko-jogailuarekin —zure musikazaletasunaren aztarna—. Esan zenien ez saltzeko hirurehun baino gutxiagoren truk.

Haien emigrazioarekin konparatuta, zurea erraza izan zen. Dolar australiar batek hirurogei zentimo balio zituen AEBn, baina bazen zerbait behintzat. Christenek etxebizitza bat topatu zuen Frost kalean, Williamsburg auzoan. Zuk lanpostu bat zeneukan zain. Irakasle bisitaria izango zinen urtebetez Binghamton Unibertsitatean, literatura konparatuaren sailean.

New Yorketik Binghamtonera lau ordu dira, autobusez. Chenango ibaiaren ondoko etxebizitza arratoiz josi horretara. Zure pisukideak alde egin zuen tiroketaren ostean, nahiz eta kale nagusiaren beste

muturrean gertatu zen berez. Diruz larri zabiltza: bi alokairu ordaindu eta Christen eta bien bizimodua aurrera atera behar. Estatu Batuetako goi-hezkuntzako usadioak misterio hutsa dira zuretzat, eta hala izango dira beti. Zure tituluak leku ezezagunetakoak dira. Zure erreferentziak, jende ezezagunarenak. Ez dago argi beste lanposturik lortuko duzun inon, Binghamtoneko hau amaitzen denean. Kanpotarra zara, eta hala izango zara beti.



Dena den, hori guztia ziurgabetasunaren eremuan gordetzen da orain. Hemen, Newcastlen, hiletaren ostean, oinez zabiltza David Jones saltoki handien inguruan. Galleta egin berriak saltzen dituzte, eta usain horrek zoriontsu egiten gaitu beti. Amak ekarriko gintuen hona, akaso? Xehetasunak ez ditut argi gogoratzen, baina oroitzapen absente horren inguruan halako epeltasun bat dago, eta horixe dastatzera etorri zara. Jendeak modu arraroan begiratzen dizu. Behar bada New York Yankees beisbol-taldearen txapelagatik da, hemen ere kanpotarra zarela markatzen baitu.

Telebista piztuta daukate alboko kafetegian, ozen, eta ez dira kirolei buruz ari. *Evil-twin*¹⁰ erreakzio-hegazkin bik talka egiten dute, behin eta berriro, New York erdiguneko dorre bikien aurka: bideo-errepikapen bat da, eta tarteka zuzeneko irudiak igortzen dituzte gertalekutik; jendea kameraren aurrean hizketan. Amesgaizto moderno bat. Kafetegian dauden bestee-

10 Informatikako eraso mota bat izendatzeko erabiltzen da. Hitzez hitz, biki gaiztoak esan nahi du. Autoreak konparazioa egiten du hemen hegazkinen eta eraso informatikoen artean.

kin batera ikusten duzu dena, aho zabalik. Inork ez duzu kaferik zerbitzatzen.

Newcastleko goizaldean gertatu zen, duela zenbait ordu. Eta zuk ez zeneukan arrastorik ere. Hiletaren ubera aldabera murgilduta. Ahaztu kafea. Aitaren apartamentu zaharrera itzuli zara ziztuan; telebista piztu, eta Christeni deitu diozu, baina alferrik. Telefono-lineak erorita daude. New Yorken ezagutzen dituzun pertsona apurrei dei egin diezu. Konexiorik ez. Kafeina-premiak hor dirau, temati, eta berehalako kafe bat hartu duzu, zure aitak kaka zahar hori hobesten baitzuen. Telefonoak jo du. Lagun baten lagun bat da, Iowatik deika: New Yorkeko lagun baten lagun bategen jakinarazi dio onik dagoela Christen, lagun baten etxean. Hara deitu duzu: ezer ez.

Gertaera mediatiko global bitxi baten eran zabalitzen dira berriak. Gai horiexek landu zenituen zure estreinako liburu *Virtual Geographyn*: diruaren, informazioaren eta indarkeriaren bektoreek nola sortzen duten beren espazio-denbora propioa. Albisteak hedatzeko modua informazio-gerraren armetako bat da. Eta, horrez gainera: gertaera mediatiko global bitxia azaltzen den moduak haren esanahia arrotzen du, fikzio nagusietan eten bat irekiz, baina soilik une batez; ondoren, kamera aurreko «adituek» dena azaltzen dute: muntaketa leunak, narratiba fidagarri jantzita. Gertaeraren uneari erreparatzea metodo baliagarria izan daiteke ikusteko boterea dela guztiaren azpian martxan dagoen informazio-forma.

Oraingo honetan ez daukazu oharrik hartzeko gogorik. Zabuka jartzen zaituen izu hori bertigo-sentipen modernoaren ifrentzua da: azken hori maiz onartu duzu, etxetzat har ditzakezun lekuak zein pertsonak alboan izatearen segurtasunetik. Ez da zaila iragartzen

hurrena zer etorriko den. Nazionalismoa, militarismoa; gerra, ziur aski. Futuristak ez ziren brometan ari esan zutenean gerra zela «munduaren higie-ne baka-rra». Faxistak itzuliko dira, edo haien antzeko zerbait. Esterilizatu nahi dutena zera da: ezagutzen duzun oro. Gerra egin nahi diote munduari.

Beste egoera batean, gustura eman izango zenituzkeen egun batzuk gehiago zure ahizparen etxean, landa-eremuan. Etxera deika eta deika segitzen duzu; etxera deika, hau da, Christeni deika, Williamsburgera deika. Hegazkin-konpainiara ere deitu duzu, alferrik. Hainbat gau eman dituzu zure ahizparen etxeko logela librean: zure amaren liburuak daude apalategian. Poltsikoko Penguin bat irakurri duzu, F. Scott Fitzgeralden bat; etxera eramango duzu baimenik eskatu gabe.

Beraz, hemen zaude, bi hogeialdi atzean utzita, energia-gordailuak zertxobait hustuta dagoeneko, zure bizitzako mugarri batzuk elkarren segidan bizitzen. Zure aitaren heriotza, ezkon-bizitzari aukera bat emateko saiakera New Yorken, eta hori guztia krisi geopolitiko baten erdian.

Ondo aterako da dena, nolabait ere.

Zeure buruarenganako konfiantza galdu duzu. Ohikoa da hori gertatzea bi hogeialdiko adinaren inguruan. Eta badakit, hiru hogeialdiren ostean, norberak are energia gutxiago daukala eta jadanik murriztu duela bere bizitzaren azken zatia izan zitekeena, lehenago probatutako eta desagerrarazi ezineko dibertsioen bitartez, baina, hala eta guztiz ere, gorputzean destilatuta daukala aurrera egiteko adina jakintza eta adimen. Jari Princeren diskoa, zorro laranja batean ekarri duzun horixe, eta gogoratu oholtzan ikusi zenuen aldi hura eta nola sentitzen zinen orduan. Zure gorputzean dau-

de denak: pentsatzeko eta sentitzeko eta lan egiteko eta jolasteko eta kokatzeko eta hori guztia dantzatzeko baliabideak, baita akorde-aldaketa zailak egitekoak ere.

Tentagarria da AEBko akademiako arauak eskatzen duten idazle-mota bihurtzea, eta beharbada beste denbora-lerro batean horixe aukeratuko duzu. Nork daki? Beharbada karrera hobia egingo duzu horretan. Beharbada herri unibertsitario elurto batean amaituko duzu Komunikazio Ikasketen Saileko [Jarri Hemen Emaille Aberatsaren Izena] Katedran, [Jarri Hemen Esklabo Saleroslearen Izena] Unibertsitatean. Denbora-lerro honetan behintzat ez da halakorik gertatuko. Baliteke beste denbora-lerro batzuetan zure bizitza okerragoa izatea. Nork esan lezake hau dela errealitate bakarra?

Bi aldiz pentsatu gabe, kalkulu kontzienterik egin gabe, idazteko gogoia daukazuna idatziko duzu, eta kito. Gure garaiko hizkuntzaren barruan eta haren kontra. Beharbada hala izan beharko du derrigor, ez baitzara ondo moldatzen inor mentoretzat hartu behararren kontu horrekin. Gauza bakar bat esan behar banizu, haxe izango litzateke: zure arteak suspertuko zaitu; baina, hori bai, bere baldintzak ezarriko ditu.

Ez duzu ondo idazten oraindik. Ez dut esango izugarri ondo idatziko duzunik etorkizunean, baina hobeto bai. Hobetzen ari zara jada. Nire talaia abantailatsu honetatik, esango dizut jada existitzen dela zure mugarrietako bat izango den testu bat: *A Hacker Manifestoren* lehen zirriborroak. Zerk hartu zintuen halako zerbait idazteko? Galdera serioa da, jada ez bainaz oroitzen. Orain, testu hori irakurtzen dudanean, beste norbaitek idatzi zuela iruditzen zait. Norbera, beste-bat.



Pentsatzen dut modu organikoan etorri zitzai- zula, bolada bat igaro eta gero Internetekin jolasean zebiltzan programatzaile, artista, teorialari eta akti- bistekin, inork jakin aurretik Internet negozio nola bihurtu. Badago marxismo bat bazterreko euskarriak eta forma kulturalak komodifikazioarekiko erresisten- tzia gisa soilik ikusten dituen, izan behe-mailakoak (Pasolini), izan goi-mailakoak (Adorno). Zure intuizioa, ordea, bestelakoa zen: uste zenuen aukerak egongo zi- rela komunikazio- eta kultura-indarren aurreranzko ertzean, eta ez zinen bakarra hori uste izaten. Forma emergenteen abangoardia bat zegoen egiaz. Eta, aban- goardia guztiei gertatu zitzaien bezala, guk ere galdu egin genuen.

Intuizio ona da, hala ere, erreparatzea bitarte- koak baliatzen dituen bizitzaren forma-abangoardiei, tarte batez aurrea hartu baitzieten lanak eta diruak dakarten haragi-xehaketari eta gogo-nahasteari. Adi egon forma, praktika, aldarte eta hizkuntza posibleen sortzaileei. Militanteen, bohemioen eta abangoardis- ten ingurumarian ibili: horiek dira zure tankerakoak. Beharbada, horiek dira zure klasea.

Idazketa-modu horretara iristeko, denbora mor- do bat emango duzu generotik generora jauzi eginez, hau da, irakurleen espektatibak osatzen dituzten usa- dio horien artean ezbaian. Azkenean ohartuko zara testuaren generoa aurkitzeak baduela zerikusirik hara- giaren generoa aurkitzearekin. Denbora luzea beharko duzu horretaz ohartzeko. Zure gorputza izango da zure azken liburuetako bat, haragiaren hizkeran idatzia, eta orratzaren estilografikoak zure odola markatuko du es- trogeno bioidentikoekin.

Zantzu goiztiar bat: urte asko pasako dira *A Hac- ker Manifesto* argitaratu aurretik, sentitzen dut. Behin

baino gehiagotan baztertuko dute. Baina, argitaratzen denean, liburu txiki eta azal gogorreko bat izango da, dotore diseinatua. Lankide bati emango diozu, ordura arte errespetua zenion lankide bati, eta hark gutxietsi egingo du, «eskuzorro-liburu» bat delakoan. Gutxiespen horrek, dena den, kilima egingo dizu, nahi gabeko laudorio bat balitz bezala. Irakurleak irudikatuko dituzu zure liburua eskuzorroan daramatela metroan irakurtzeko, edo drogeriako ilaran irakurtzeko, edo taberna batean maitalearen zain daudela irakurtzeko. Eguneroko bizitzaren denbora interstizialeko testuretan irakurtzeko: ba al dago hori baino hoberik? Aldatu bizi-tza, esan zuen Rimbaudek.

Segi horrela idazten: izan dadila liburuaren forma osoa —hasi hizkuntzarekin eta formarekin zein diseinuarekin buka, ahaztu gabe liburuaz hitz egiteko modua eta haren inguruan antolatzen diren ekitaldiak— kolaborazio-praktika baten parte, testua hel dadin munduko bazter jakinguraren batera. Liburua eta autorea gertaera gisa, egoera gisa, artelan oso gisa, baina modu txikiago batean. Eta ondo dago baldin eta liburuak erakartzen duen komunitatea, edo liburua barnean hartzen duena, zertxobait ulergaitza baldin bazaio zarata nagusiari.

Akademiko gisa, «arlo» bat izan behar omen duzu. Mentalitate koloniala da hori. Bandera jarri, lurraldea zeurea dela aldarrikatu, «lur berriak deskubritu», eta dena delako arloa defendatu zeure jabego pribatua balitz bezala. Ondoren, «bidea urratu» beste batzuentzat, are aldiri gehiago eraiki ditzaten. Modu horretan pentsatzeko tentazioa izango duzu, baina ez da bulkadarik onena. Idazle gisa, eremua zeharkatu besterik ez duzu nahi, opariak eskaini, bazterrak apur bat txukundu, eta bidean segi. Bektore bat zara,

bektore bat instituzioetan, feudoetan eta estatus-hierarkietan barrena.

Ez duzu konpentsazio ohikorik jasoko jarrera horren ordainetan, baina itzultzeko eskatuko dizute, behin baino gehiagotan, beren buruarekin aspertzen direnean. Lanbide bat da. Bolizko dorreen atzeko atetik sartzen utziko dizute, eta irteera erakusten dizutenean ere handik izango da. Ez dizute eskatuko gera zaitez. Are gutxiago zuk galdetu eta gero bolia nondik datorren.

Abentura itzel batzuk izango dituzu. Gehiago zara artista bat, eta zure bitartekoa liburua da, baina liburua, berez, edozer gauza izan liteke. Liburua, gaur egun ezagutzen dugun eran, gauza harrigarriki modernoa da, eta aldakorra beti. Zure liburu bakoitzak apurtxo bat bihurrituko du bere generoa; indar-pare bat sartuko diozu bakoitzari, irakurleen espektatibak xaxatzeko eta limurtzeko. Testu-generoekin jolas-tearen poderioz, azkenean adituko duzu generoarean jolasa.

Ez zara inoiz izan autoritatetik idazten due-la uste duen idazle-mota. Ulertzeko idazten duzu, irtenbideak bilatzeko. Saiogilearen praxia da. Idaztea teknika bat da: gorputzetik erauztea, gorputz horren egoera zundatzea, marken bidez. Arte biszerala da, Little Richardena bezalakoa, Princerena bezalakoa, baina koordinaziorik edo oholtzarako presentziarik ez dutenentzat egina —zu bezala—. Hitzen musikari bat zara, nota bakar bat kantatzeko ezgai dena eta pop-abesti miragarriro errazen talde batean sartzeko ere balio izan ez zuena. Musikaren gainekoak ziren diru truk idatzi zenituen lehen testuak.

Liburu baten generoa, gorputz baten generoa, musikaren artea bezalakoa da: denboran oinarritutako

inprobisazio-lana, emandakotik abiatzen dena. Ez daukazu zertan doinu bera jo behin eta berriro. Aldatu egin ditzakezu formak: zer den gizona, zer memoria, zer saiakera, zer emakumea, zer monografia akademikoa. Ez duzu zertan forma bat hautsi —horretan badago, baiki, hertsapen-puntu bat—: modernismoaren alde txarra zen hori. Aldiz, forma horrekin jolastu zaitezke. Emandako formekin jolastu. Harik eta zure aukerak zabaltzen dituzten arte, zure beharrekin bat egiten duten arte.

Jendeak galdetuko dizu zergatik idazten duzun hainbeste. Erantzun iheskor batzuk eman izan dituzu orain arte, eta luzaroan emango dituzu antzekoak. Orain buruko gaitz bat dela esaten dut nik. Neurri berean mania, disoziazioa eta disforia. Zure burmuin bitxiaren mugapenak landu dituzu, harekin soldatapeko lan aski ondo ordaindutakoa egin ahal izateko. Zortea, maitasuna eta dirua edukiz gero, burmuin bitxia duen jende gehienaren eskura legoke hori segur aski, eta jende gehienak dauka burmuin bitxia. Bizitza ona izango da mundu guztiak aukera izaten duenean desberdin egiten duen horrekin eta horretatik bizitzeko.

Behin batean, Charlie Parkerri galdetu omen zioten zer erlijiotakoa zen, eta hau esan zuen: «Musikari sinestun bat naiz». Fede moderno bat da. Praxia keinu ireki gisa: formara biltzen eta metatzen diren keinuak. Errespetua, begirunea, ospakizuna eta ohorea besterik ez zaizkio zor, nolabait ere, artista batek bere munduko arauak hartu eta mundu hori berregiten duen ekintzari, bereziki antibelztasunari kontra egiten badio aldi berean.

Badakit gogorra egin zitzaizula AEBko lehen urtea, baina ez daukazu kexatzeko eskubiderik. Erdi-

ko klaseko pertsona zuri bat, itxuraz gizona, legezko bisa batekin, maite duena eta maite dutena, lanpostu bat eta etxebizitza egonkorra dituen. Baliabide horiei etekina ateratzea da kontua. Kasu klasiko bat: probintziako kanpotar goranahia hiri handira iritsi berri. Garai dekadente bat da, eta, Estatu Batuetan, kultur kapitala herentziaz dagokiela uste dutenek pilatzen dute kultur kapital guztia. Idazle eta akademiko arrakastatsu asko ezagutuko dituzu, idazle eta akademiko arrakastatsuen seme-alabak direnak. Artista mordo bat, arte-bildumagileen seme-alabak direnak. Maiz, aspertuta egoten dira, eta aspergarriak izaten dira. Hori zure alde.

Baina ez pentsa klubarekin bat egiten utziko dizutenik. Zure jendea mundu horretatik kanpo dago. Balzacen *Illusions perdues* nobelako Lucien zara. Saia zaitez haren akats hilgarria ez errepikatzen: ez bilatu prestigio konbentzionala. Edonola ere, dibertigarriagoa da kuirren eta koristen artean bizitzea. Bestalde, ez daukazu horretarako pedigirik, edukaziorik, ezta prestakuntzarik ere. Zure frantsesa eskasa da. Idazle hobe zara akademikoa baino.

Benetan desio zenuena lortuko duzu: hiri handi batean hara eta hona ibiliko zara hiri hori umotuegi dagoen garaian. Ez duzu irakurlego masiborik izango, baina aski irakurle izango dituzu. Interesgarriak, eta hainbat modutakoak urteek aurrera egin ahala. Ondo moldatuko zara. Zeure burua saltzen duzunean, lor ezazu prezio on bat, eta arretaz irakurri kontratuak.

Zure jatorri probintziano burges-txikiak ziniko bihur zaitzake. Jaten eman beharko diezu zenbait aho: lau gizaki eta bi katu. Eta, tentuz ez bazabiltza, idazketak hackeatuko zaitu zu, zeuk idazketa hackeatu beharrean. Ezin diozu eite aristokratikorik erantsi

zeure buruari, negozio-kontuetatik urrun bazeunde bezala, eta negoziatzen ari zarenean ezin duzu agerian utzi dirua behar duzula.

Zure idazketa interesgarria gertatuko da testuaren haragiari misterioa darionean. Berandu iritsiko zaizu, baina kontzientziaren ertzean dabilen zera horixe da numenaren tentsioaren gainazala. Ez zara erlijiosoa, eta ez zara sekula izango. Baina badago problema bat beti gerorako uzten duzuna —trantsizioa baino are geroagorako—: ezagutzen dugunetik harago biltzen den zera ikusezina izendatzeko hizkuntzaren problema. Batzuek Cthulhu deitzen diote, edo Erreala, beren arima suburbanoen bestetasun handi bat balitz bezala, baina mugagabetasunak ez zaitu ikaratzen.

Beharbada ez dago zertan guzti-guztia jakin. Beharbada gauza ezezagunak ez dira irudikatu behar mehatxu gisa, eta ez dira zertan kontrolatu. Beharbada ezezagunaren kanpoaldea uki genezake, eta kito; haren misterioan barneratzeko beharrik gabe, hari larrua jotzeko beharrik gabe. Beharbada jainkoek nahiago lukete bakean utziko bagenitu.

Baina zu zerbaiten beldur zara. Beste norbait bihurtzearen beldur. Zuzenean haragiarekin idaztearen beldur. Zer egin daitekeen sentitu duzu. Trikimailu txiki bat aurkitu duzu.

Newcastleko hotelera iritsi zinenean, neka-neka eginda egun osoa eta gau osoa bidaian pasatu eta gero, hala ere tarte atera zenuen zure erritual txikirako. Argiak jaitsi. Musika pixka bat jarri. Atera zenituen zure galtzari-eusteko beltzak, media beltzak eta Christeni lapurtutako bularretako barrubiguna, beltza hori ere. Pieza guztiak jantzi zenituen, banaka, hatzak dardarka.

Zeure buruari so egin zenion gorputz osoko ispiluan. Zure izterrak, behintzat, politak dira.

Kluxeak baino ez dira logela-giroko putatxo-jantzi hauek, eta badakizu. Horregatik funtzionatzen dute. Haragiari astindu bat emateko, ohar dadin. Nylon beltzaren kontrastea haragi zuriaren gainean. Erritual bat da, beste gorputz bati deitzeko, beste nortasun baten-tzako gorputz bati. Kaixo, Karen.

Tarteko unea preziatua da, eta metamorfosia baino interesgarriagoa. Albozkako denbora hori non zeinuek igeri egiten baitute azalaren gainaldean, eta beste modu batean antolatzen hasten baitira. Zeinuek ez dute axola. Ohiturak dira, besterik ez. Interesgarria zera da, berengana erakartzen duten muin urtua. Aldi berean iruditzen zaizuna zuzenki sexuatua eta kuirki sexuala.

Genero-lurraldeen harira daukazun mapa gordin dago oraindik. Ez da askorik ikasten feminitateari buruz turistaren rolean. Zer iruditzen zaizu beste etxe hori uztea, gorroto duzun baina hain eroso zaizun etxe hori: zure maskulinitatea? Asko atzeratutako irteera. Gas-argiarekin itsutzen zaitu, gera zaitezen: beranduegi da —esaten dizu—, ez zara inoiz izango emakume bat, trabelo bat izango zara, bakarrik geratuko zara, inork ez zaitu maitatuko eta —zuretzat hori bezain txarra dena— ez zaitu inork irakurriko.

Maskulinitatea uzteko, Ken atzean uzteko, denbora luzea beharko duzu. Orain eginda dago. Oso sentipen desberdina da emakume transexual bat izatea munduan; egunero, gauero. Nekez euforikoa. Arrunt samarra. Nire sexualitateak galdu egin du trabestitzeak ematen duen inurridura hori, baina badira beste plazer batzuk. Eta maitatu egingo zaituzte. Hara non badiren munduan gizabanako bakan batzuk, tran-



sak zein ez, zeinentzat genero-arrarotasun apur bat ez baita kontu nazkagarria edo fetitxe kitzikagarria, baikizik eta beren eguneroko esperientzia.

Eta idatzi egingo duzu. Idazten ikasiko duzu berriro. Ez da erraza izango. Disko gogor batetik bestera pasatako dokumentu abandonatu horiek, Karenek idatzitako horiek, sekula hegaldatzen ez direnak, beti hutsik geratzen direnak: hori dena ez da alferrik izango. Testuaren porrotak haragi berreginarean zain daude.

Hogei urte behar izango dituzu, baina egunen batean emakume bat izango zara munduan. Orain zaharra da emakume hori, baina askoz zoriontsuagoa. Etxean dagoen gorputz bat, bere buruarentzat dagoen gorputz bat. Berrogeirekin baino energia gehiago izango duzu hirurogeirekin.

Zure emakume-bizitza laburra izango da. Goiz hilko da emakume hori. Horra hor trantsizioa berandu egitearen konpentsazioa. Gaur egun, neska gazteagoek inbidia diete nire ondasunei eta segurtasunari, eta nik, noski, haien gatzetasunari diot inbidia. Baina haietako batzuek ere bizialdi laburra izango dute. Mundu honetan, transexualitateak ez dio inori uzten nolabaiteko orbainik gabe joaten.

Atera zaitez, Karen. Ez zara Karen izango inoiz gehiago. Desagertu egingo zara. Beharbada horregatik ari zara kontra egiten. Badakit hor zaudela, Karen. Atera zaitez mundura. Ezin zara munduan bizi, baina McKenzie bai: bere izate berria osatuko du Ken eta zu desmuntatuta, eta izate berri horretan subsumituko du zure puska bat.

Lehendabiziko bi urteak gogorrek izango dira, noski. Zure ezkon-harremana amaituko da, baina motibo askorengatik. Negar egingo duzu, ageriko arrazoirik gabe, oso maiz. Badirudi kristal opakuzko

geruza bat dagoela zure subjektibotasunaren eta zure emozioen artean, eta gorroto duzu hori. Estrogenoak hartzen hasten zarenean ez da inongo bereizketarik egongo bi alderdien artean bolada batez, eta sentimenduaren barrunbera jauzi egingo duzu zuzenean. Igeri egiten ikasiko duzu.

Zure lehen outfitak penagarri mortalak izango dira. Baina asmatuko duzu zerk ematen dizun ondo, emakume orok asmatzen duen eran. Aldakarik ez eta titi ñimiñoak, baina sorbalda eta izter politak. Kezkatan ibiliko zara etengabe zure elbarri-zangosagar meharrekin. Pixka bat lotsagarria suertatzen zaizu zis emakumeek beren armairuko soberakinak ematea, baina gogo onez eskertuko duzu mahukarik gabeko Prada soineko beltza, psikoanalista lacandar batek utzitakoa. Tira, «utzitakoa». Ez du bueltan jasoko. Ona da bere lanean, baina lacandarrak ezin dira adiskidetzat hartu. Psikoanalisiak kalte-ordainak zor dizkigu mende batez egindako minarengatik.

Esango nuke, beraz, lau zama sentitzen dituzula bizkarrean oraintxe bertan, eta ezin dut ezer egin horren kontra. Zama guztiak nolabaiteko *erbestealdiak* dira. Aitarengandik, naziotik, maskulinitatetik bere-tik, eta hain justu ere aberri militarizatua bere boterea areagotzen ari den momentu batean.

Zure orainalditik hogei urtera, Australiara itzuliko naiz, emakume gisa, lehen aldiz. Ez naiz joango Newcastle-ra. Han ez daukagu loturarik jada. Luxuzko hotel batean ostatu hartuko dut Sydney-n: portuaren ikuspegi distiratsua leihotik. Bisita azkar bat da. Itzuli egin behar dut eskolak ematera. Iristerakoan, nire gela ez da prest egongo oraindik, eta Lorategi Botanikora joango naiz. Koloreak, lurrinak eta soinuak: ezagun-

ezagunak egingo zaizkit hain bolada luzearen ostean ere; hain ezagunak, negar egingo baitut.

Australiako familia guztiarekin afalduko dugu, baina ezer baino lehen ahizpa nagusiarekin bazkalduko dugu hotelean bertan. Bi erronda gin-tonic. Ahizpak dio beti izan nahi izan zuela ahizpa bat eta orain baduela. Negar egin dugu biok; ondoren, malkoak xukatu, eta aurrera egingo dugu, WASP petoak gara eta.

Transexualen memoriak, normalean, trantsizioa egitearekin batera bukatzen dira, emakume bihurtzearekin batera. Listo, konponduta. Trantsizioak nortasun oso bat osatuko balu bezala, azkenik. Baina guk ez dugu inoiz sinetsi izan osotasunean, edo nortasunean, edo ezer osatzean. Nia beste-bat da. (Agian hori da feminitatearen formula.) Bizitza hobea da orain, baina ez dago amaiera zoriontsurik. Egoera bat eta gero beste bat, hori baino ez dago. Fedea galdu genuen premia historikoarekiko. Beste memoria-mota bat da hau, edo beharbada mota bat bera ere ez.

Bi bizitzaren artean zarrastatzen zabiltzala, bizitza berriak, orainaldi berri bat behar izateaz gainera, bestelako iragan bat behar du, eta orainaren ostean dator iragana. Armairutik atera nintzen, baina ez zen izan duen bilakabide narratibo baten gailurra —hasiera, korapilo eta bukaera—. Gertatu egin zen, besterik gabe, eta, gertatu ostean, zentzua bilatu diot iraganean. Susmoa dut hala izaten dela beti. Baina, edonola ere, ez gara inoiz fio izan istorioekin. Hainbeste aldiz huts egin digute.

Egin dezakedan onena gutun hauek idaztea da, iragan galdua paperez estaltzeko.



4.2

ERANSKINAK

McKenziari zuzendutako lehen gutuna, eta liburu honen forma, genero epistolarrari buruzko lantegi batean sortu zen, Poetry Project-en; Kay Gabriel-ek zuzentzen du proiektu hori. Liburu honen solaskide dira hainbat idazle trans, eta asko ikasi dut haien liburu epistolarretatik; aipatzekoak dira Kay bera, Cecilia Gentili, Hazel Jane Plante eta Akwaeke Emezi. Rimbauten aipua *détournement* bat da, kopiatua eta aldatua; esaldiaren jatorria haren bi gutun dira: hitzaurre gisa agertzen dira *Illuminations* liburuan, New Directions argitaletxearen edizioan. Liburuan zehar badira beste aipu *détournatu* batzuk, beste autore batzuenak. Baten bat aurkitzen baduzue, opari txiki bat izango da zuen jakintza literarioarentzat: ez nauczue zertan sare sozialetan @ipatu. Little Richarden Newcastleko istorioari buruzko hainbat bertsio daude; horiei buruz, ikus Roland Bannister, *Hunter Living Stories* saioa, 2019ko maiatzaren 6koa.

Joyceri zuzendutako lehen gutunaren lehen zatia *Sydney Review of Books* aldizkarian agertu zen

estreinako aldiz, eta antologia batean argitaratu zen orobat. Bigarren zatia zen abiapuntua, berriz, mahai-inguru baterako idatzi nuen testu bat da —The Drawing Center-eko «The Clamor of Ornament» erakusketaren harira izan zen—; bigarren zati horrek harremanetan dihardu Shola von Reinhold-en eta Juliana Huxtable-n idazketarekin, eta haien lanari buruz *e-flux journal*era-ko idatzi ditudan testuetan oinarritzen da.

Joyceri zuzendutako bigarren gutuna online agertu zen, laburki, Sydneyko argitalpen batean, *Neighbourhood Paper*, zeinak bere jarduna eten baitzuen handik gutxira. Ez zidatenez inoiz ordaindu, «desargitaratzeko» eskatu nien.

Sueri zuzendutako gutuna dela eta, eskerrak eman nahi dizkiot Facebookeko «Lost Newcastle» taldeari. Amen eta amagintzaren arteko bereizketa Sophie Lewis-i zor diot.

Muri zuzendutako gutunean aspaldi idatzitako lerro batzuk berrerabili ditut: «Just Like a Prayer» ize-neko testutik datoz, zeina *Meanjiner*ako idatzi bainuen. Australiako multikulturalismoari buruzko ikuspegia Ghassan Hage-rena da. «Song to the Siren» kantua Tim Buckley-rena da, baina nire lagunek eta nik *This Mortal Coil* taldearen bertsioari esker ezagutu genuen. Christeni zuzendutako gutunean Harron Walker-en eta Diana Goetsch-en aipuak agertzen dira, baita Elysia Crampton Chuquimia-ren kantuetakoak ere. Christen Clifford-en *Interiors* proiektua hemen dago dokumentatuta: WeAreAllPinkInside.com

Jennyri zuzendutako gutunaren zati bat jendau-rean irakurtzeko idatzi nuen: Nowadays-en izan zen, Body Techniques-en musikarekin, Writing on Raving seriearen barruan —Zoë Beery-k eta Geoffrey Mak-ek sortu zuten hori—. Irakurraldiaren grabazio bat en-

tzungai dago nire Bandcamp orrialdean. Shelleyren «Epipsychidion» poemaren zati bat sartu dut, eta Ethel Cain-en lerro-erdi bat. Azken horren lana Sul Mousavi-k erakutsi zidan lehen aldiz, eta eskerrak eman nahi dizkiot horregatik. Bi adiskideren aipuak ere agertzen dira: Eva Hayward eta Isobel Ward-enak. Femme transek maitasun-mota ororen gaziak eta gozoak ezagutu ahal izateko ideia berria da geuk sortutako artean, eta eskerrak eman nahi dizkiet Pet Wife-ri, Jamie Hood-i, Lauren John Joseph-i eta Macy Rodman-i horren ertz batzuk argitzeagatik.

Veronicari zuzendutako gutuna Transgender Studies Quarterly aldizkariko T4T zenbakirako idatzi nuen, eta ezetz esan zioten; *e-flux* journalen agertu zen lehen aldiz. Bertsio horrek oin-oharrak ditu, testuan oinarritzat hartzen diren era askotako iturrien berri emateko. Polita izateari buruzko pasarteak Jessie Rovinelli-rentzat da, eta haren lanari buruzko saiakera batetik dator; testu hori ere *e-flux* journalen azaldu zen. Maitasun handia *e-flux*i, lekua eman baitidate liburu honetan eta beste liburu batzuetan agertu izan diren ideietako asko aztertzeke hainbat urtez. T4T gaiari dagokionez, liburu honen solaskideak dira Casey Pletten, Torrey Peters-en eta Cat Fitzpatrick-en liburuak. Veronica fikziozkoa da.

Venus, berriz, bi pertsona trans gazterengan oinarrituta dago: biak ezagutzen nituen, galdu egin nituen, eta haien dolua egiten ari naiz oraindik. Haien istorioak kontatzea ez dagokit niri; hori dela-eta, haien bizitzari buruzko xehetasunak nahasi ditut omenaldi konposatu honetan. Saidiya Hartmanen saiakera bat aipatzen dut gutunean; hauxe: «Venus in Two Acts,» Small Axe, 2008ko ekaina. Brooklyn Liberation for Trans Lives mugimenduari buruzko deskribapenak

Public Seminaren agertu zen. Asko ikasi nuen ekitaldi azpimarragarri horren osteko protesta- eta ospakizun-urtean parte hartuz; mugimendu hori Qween Jean-ek eta Joela Rivera-k bultzatu zuten, besteak beste, eta argitalpen honetan biltzen dira gaiari buruzko xehetasunak: *Revolution Is Love: A Year of Black Trans Liberation*. Zorretan nago, halaber, idazle trans beltzen lanarekin, hala nola Toni Newman-en, Tenika Watson-en, The Lady Chablis-en eta Janet Mock-en memoriekin, Red Jordan Arobateau-ren eleberriekin, Trabis Alabanza-ren antzerkiarekin eta Miss Major-en elkarriketen liburuarekin. Eva Henderson (ez nahastu Eva Haywardekin) tatuatzaila da, eta @larch.needles izenarekin aurki dezakezue Instan. Dahliaren filmak, Dahlia Doll gisa egindakoak, AortaFilms.com webgunean daude. Shelleyren beste aipu bat agertzen da, halaber: oraingo honetan Scritti Politti-ren *détournement*aren bidez.

Zibeleri zuzendutako gutunak asko zor dio bost emakume transekin izan ditudan elkarriketei, eta haien liburuei: Susan Stryker, Roz Kaveney, Bishakh Som, Aurora Mattia eta Luce de Lire. Irakurri ditudan liburu akademikoei dagokienez, bi hauek bakarrik aipatuko ditut: Lynn Roller, *In Search of God the Mother*, eta Philippe Borgeaud, *Mother of the Gods*. Mitoaren aukera proteikoen harira pila bat ikasi nuen Kathy Acker-en-gandik.

Charlie Parkerren aipua —McKenzieri zuzendutako azkenengo gutunean agertzen da— *Bird Lives!* liburukoa da. Erbestealdiari buruzko zentzu zabalago bat John Hartley-rengandik jaso nuen. Bestalde, go-goeta egiten ari nintzen ea nola kudeatzen den femme transen idazketan maskulinitatea, esate baterako Isle McElroy-ren eta Jackie Ess-en idazketan. «Memoriak» zalantzan jartzeari dagokionez, ildo horrek asko zor

dio uztarketa honi: nola transexualitateak, gorputzen generoa deklinatzen duenean, testuen generoa ere deklinatzen duen, adibidez Kai Cheng Thom-en, T. Fleischmann-en, Joss Barton-en eta Hannah Baer-en lanetan. Horretan gehiago sakontzeko, ikus «Girls Like Us», nire saiakera bat, *White Review* aldizkarian.

Eskerrik asko Akin Akinwumi-ri, eskuizkribua argitaletxe komertzial batzuei saltzen saiatu baitzen nire izenean. Ez zuen arrakastarik izan. Editore jakin baten erantzuna bereziki xarmagarria iruditu zitzaidan; haren ustez, forma epistolarra «urrunekoa gertatzen zen; fistingaren eszena bera ere nolabaiteko distantzia batetik kontatzen zen, nahiz eta eszena horrek beste zerbait eskatu berez, erraietako edo gorputzutako zerbait». Gauza bitxia da, zeren liburuak, ez orain eta ez orduan, ez du fisting-eszenarik kontatzen.

Eskerrak eman nahi dizkiot, bereziki, Verso argitaletxeko nire editoreari: Leo Hollis. Azkenean liburuak ekarri nionean, berehala asmatu zuen nola konpondu egitura-arazo bat. Nire aurreko liburu batzuekin bezala, leunki gidatu nau, eta, hala, neure kabuz idatz nitzakeenak baino liburu hobeak atera dira azkenean. Eskerrik asko, halaber, Versoko Sam Smith-i eta Mark Martin-i, ekoizpenaren azken etapan egindako lanagatik. Laurogeiko hamarraldiaren amaieran, Malcolm Imrie-ren gutun bat jaso nuen, Versoko idazpuruarekin. Paul Virilio-ri buruz idatzi nuen saiakera batekiko estimua adierazten zidan gutunean, eta esaten zidan baldin eta ildo horretako libururen bat proposatu nahi banuen, «izan [nezala] Verso buruan». Horren aurretik inork ez zidan iradoki libururik idatz nezakeenik. Nire lehenengo liburu-kontratua Versorekin sinatu nuen —gerora *Virtual Geography* izango zen liburuarengatik—,

baita bigarrena ere, *Maitasuna eta dirua, sexua eta heriotza* izeneko liburuarengatik. Lehenengo liburu gauzatu zen, baina ez Versorekin; bigarrena ez zen gauzatu hogeita hamar urte pasa arte. Zorretan nago Malcolmekin, nigan izan duen fedea dela eta.

Maitasuna eta dirua, sexua eta heriotza zorretan dago, eta lotura sakonak ditu, halaber, zenbait eranskinekin, zenbait etxerekin: Australiako etxeak, Queenseko etxeak, Brooklyneko etxeak, idazle eta ravezale transen etxea, eta oraingo ikasleen zein ikasle ohien komunitatea. Eskuizkribua amaitu nuen asteburuan, AUW Local 7902 sindikatuak —The New Schoolen lanaldi erdian diharduten irakasleak biltzen ditu— garaipen historiko bat eskuratu zuen Dwight A. McBride presidentearen taktika antisindikalen aurka. Elkartasuna betiko!

Liburua hau H-rentzat eta P-rentzat da, eta haien senideentzat.

Brooklyn, 2022ko abendua

HITZATZEA

POTENTZIA BAT HUTSUNEAN

Ziur nago McKenzie Warkek, nik bezala, badituela bere maniak testuak idatzi eta manipulatzerakoan. Bere tresna gogokoenak izango ditu, bere lan egiteko modua: tresnarik paperean eskema egin eta gero ordenagailuan garatu; edo tupustean idatzi burutik pasatzen zaion oro eta gero denbora luzea eskaini akats eta errepikapenak zuzentzeari. Agian aldaketen kontrola erabiliko du bere idazteko softwarean, agian software askea erabiliko du beti. Idazteko bakea beharko du apika, edo justu kontrakoa, bere idazkera prozesua etenez betea egongo da. Eta ez naiz ari bakarrik bere liburuak edo beste artefaktu batzuk idazteaz, ziur nago bere bizitza idazteko ere, badituela bere maniak, bere egiteko moduak, atzera begira soilik identifika ditzakeenak. Azken finean, berak dioen moduan, «patroietatik sortzen dira irudiak», baina irudirik gabe zaila da patroiak aurkitzea.

Warkek dio bere memoria editatu duela liburu honetan. Bere bizitzaz soilik ez, bere ingurune sozialaz eta historiaz ikasteko baliagarriak izango zaizkigun

pasarteak elkarrizketa moduan ekarri dizkigu orain-go honetan.¹ Elkarrizketa horiek badute beren tranpa, izan ere idazleak esan bai, baina ez du erantzunik jasotzen; bere gertukoak izan direnei zuzentzen zaie baina besteak isilik daude edo, kasuren baten, autoreak berak dakartza haien hitzak. Izan ere, Warkek ondo daki gure memoria editatzen dugunean, halabeharrez, beste memoria ere editatzen dugula, hots, memoria bera dela editatzen duguna. Orain bai, gehitu dezadan, espero dezagun norbaitek *aldaketen jarraipena* aktibatu duela gure memoria kolektiboaren erregistroa jasotzen duen dokumentuan.

Memoria horrek maitasunaz, diruaz, sexuaz eta heriotzaz dihardu. Horien arteko elkargunean kokatzen du australiar estatubatuartuak bere gorputza. Azkenaldian larregi erabiltzen dugun hitza da, ziur aski, esanahiez hustua hainbatean, teoria kritikoaren klixé bilakatua nahi baino maizago. Gorputzak hemen ondo ezagutzen du bere lekua, nahiz eta bere burua ez ezagutu oraindik. Warkek bikain kokatzen du bere gorputza heriotzaren eta bizitzaren arteko muga finean, minean, plazerean edota askotariko esplotazio kateetan. Baina bere gorputza lagun du autoreak, eta lagun duelako hain zuzen ere, bere gorputza editatzen du. Izan ere, trantsizioa da liburuaren protagonista nagusia: haurtzarotik heldutasunerako trantsizioa, otsotasunetik gizatasunerakoa ala gizontasunetik emakumetasunera doana, testuan presentzia handiagok agertzen dena.

1 Esplizituki autobiografikoa izan ez arren, bere 2020ko *Reverse Cowgirl* liburuan (Semiotext(e) argitaletxean) aurkitu ditzakegu liburu honetan agertzen diren elementuetako batzuk, baina solasaldi-gutun formarik hartu gabe eta esperimentazio literario maila altuagoarekin. Liburuaren gaztelarazko bertsioa ere badago, 2022koa, baina gomendagarriagoa da, ahal duenarentzat, jatorrizko bertsioa irakurtzea ala pixka bat itzarotea, euskaraz ere egongo delako.

Baina zer da gorputza narrazio honetan? Esango nuke beste ezer baino gehiago gorputza potentzia bat dela. Agian Wark bera ez legoke ados, baina Gilles Deleuzeren pentsamenduaren zantzuak datozkit burura *Maitasuna eta dirua, sexua eta heriotza* irakurri ahala. Oraindik ez dagoen horretatik zerbait etorri daitekeelako ideiak lotura handia du, nire ustez, orrialde hauetan kontatzen diren gorputzaren eta ingurunearen eraldaketarekin. Eta etor daitekeena potentzia bat da, jada bertan dagoena, baina ezin dena esentzializatu, gertatzen den arte. Eta orduan, jada, ez da potentzia.

Narrazioaren une batean, McKenziek diosku idazketaz zerbait ikasi duela. Ikaspen hori ez da nolanahikoa, idazketaren prozesuak erakutsi baitio gauza bat beste zerbait bilaka daitekeela eta, areago, bilakatzen dela. Bilakatze hori feminitatearen boteretzat katalogatzen du idazleak, «sendoa ez den boteretzat», eta transformazio horren oinarrian ez dago «errege izateko nahia» baizik eta «norbere fantasia-ipuinak idazteko» nahia. Bere pentsamendua, feminismo kritikoaren beste hainbat autorerena bezala, lerro arriskutsu zein kitzikagarri batean kokatzen da une horietan; pentsamenduak egin behar duen moduan, errealitatea salatu edo interpretatzeaz haratago, errealitatea editatzen saiatzen baita. Rosi Braidottiren *pentsamendu nomadearen* oihartzun batzuk entzuten ditut asmo horretan, post-humanitatearen inguruko bere ikerketa filosofikoaren oinarri-oinarrian dagoen ideia horiena:² ez dakigula zer egin dezakeen gorputz batek (hala esana utzi zuen Spinozak), baina, bereziki, feminitatea oraindik ez dela, oraindik ez dagoela hemen,

2 Ikus *Sujetos nómadas: Corporización y diferencia sexual en la teoría feminista contemporánea* (Paidós, 2000); *Feminismo, diferencia sexual y subjetividad nómada* (Gedisa, 2004); *Lo posthumano* (Gedisa, 2015); *Por una política afirmativa: Itinerarios éticos* (Gedisa, 2018).

potentzia bat dela (hala dio Braidottik, eta esango nuke Warkek nolabait berriz dakarrela ideia hori).

Pentsamendu-lerro arriskutsua dela diot, izan ere, oso muga lausoa dago feminitatearen ideia horren eta esentzialismoaren artean. Feminitatea oraindik hor ez badago, uler liteke *beste nonbait* badagoela, zain, ukitu gabe, nonbait gorderik. Ez da hori, ene ustean, ez Warken ez eta Braidottiren ikuspegia ere. Bere lagun Veronicarekin duen elkarrizketan, ziur aski politikoki esplizituena den kapituluetakoa batean, argi azaltzen du (edo azaltzen dute, elkarrizketa tranpatian) generoa idealismo bat besterik ez dela, ez dagoela gizontasuna edo emakumetasuna konkistatzerik, beren bertsio idealizatueta. Noski, horrek ez du esan nahi ezin direnik gizontasuna eta emakumetasuna okupatu, beren bertsio ekonomiko eta politikoetan, baina hori kontingentzia bat da, eta ez da inondik inora nahastu behar esentzia bat aurkitu edo erakustearekin.

Feminitatearen inguruko irakurketa hori oso leku esplizitu eta berezitik egiten du liburu honek, transexualitatearen lekutik, baina ez naturalizatuak eta bitartasunak mugatutako transexualitatearen irakurketatik, baizik eta transexualitatearen bizipenetik, zeina bizipen guztiak bezala, bere testuinguruak baldintzatua eta, ondorioz, ia-ia bakarra edo, behintzat, posibleetako bat den. Warkek transexualitatearen narrazio hegemonikoa hausten du hainbat lekutan, eta haustura bakoitzarekin irekitzen ditu irakurketa berriak. Hausten du, atzera begira jartzean ez duelako esaten beti jakin izan zuenik emakumea zela, elementu hori beti hor egon arren. Ez duelako beldurrik identitate ez-koherente baten ibilbidea kontatzeko. Trantsizioa adinez nagusia, heldua, ia zaharra zela abiatu zuelako. Mari Luz Estebanek *Andrezaharraren*

manifestua lanean egindako aldarria hona moldatuta,³ transandrazaharraren manifestua ere bada liburu hau, nolabait. Hausten du narrazio hegemonikoa trantsizio horrek protagonista eta gonbidatu ugari dituelako: bikotekideak, maitaleak, seme-alabak, lagunak, militantzia-kideak. Eta denak leku berean eta une berean daude, memoriaren edizio-mahai horretan, identitate koherentearen bilaketari bizkarra emanez. Alana Porteroren *La mala costumbre* nobelan bezala,⁴ Warkenean irekitzen zaizkigu transexualitatea ezagutzeko modu gehiago, ez diotenak klase-gatazkari bizkarra ematen, ez dutenak generoa esentzializatzen, ez diotenak egiturazko arrazakeriari ezikusia egiten.

«Posible denaren astinaldia da transexualitatea». Berriz ere, transexualitateak, feminitateak bezala, ez digu bere aurpegi erreala erakusten. Ez du nahi gauzen ordena berrezarri, ez ditu esentzia eta materia harmonizatu behar. Testu honek trans* aferraren idealizazioari ihes egiten dio McKenzie Warkek ondo ezagutzen duen materialismoaren tradizioari esker. Izan ere, pentsalari moduan materialista sutua bezain disfuntzionala da, Marxekin eta Marxen kontra aritu izan da bere pentsamendu-lanaren hainbat unetan, beste batzuetan Marxekin eta marxisten aurka, eta are marxistekin Marxen aurka ere.⁵ Liburu honetan, bere materialismoa objektuekiko atentzio berezian hauteman dezakegu. Gauzak ez dira, inoiz, gauza soilik. Guztiek egiten dute zerbait, guztiek eraldatzen dute zerbait. Areago, gorputza ere materia bizia dela argi erakusten du testuak, McKenziak bere gorputza editatzen du, baina gorputzak «bere» McKenzie

3 *Andrezaharraren manifestua* (Pamiela, 2019).

4 Alana Porter, *La mala costumbre*, (Seix Barral 2023).

5 *El capitalismo ha muerto. El ascenso de la clase vectorialista* (Holobionte, 2021).

editatzen du aldi berean; gorputza McKenzierena da, McKenzie gorputzarena den hein berean. Baina gorputzarekiko harremanaz harago, Warkek azaltzen duen trantsizioak idealismotik ihes egiten du espazio materialean eraikitzen delako, kalean, manifestazioan, gizon zis heterosexualekin begiradak gurutzatzen dituen kafetegietan, ospitalean, bozgorailutik oihuka ari den sexu-langilearen ahotsean. Bai, materiala den ahots horretan eraikitzen da, zeina frekuentzia-barruti zehatz batean adierazten den, zeinak potentzia elektriko zehatza bat duen mikrofonotik pasatzen denean. Autoreak ondo ezagutzen ditu hala bere gorputza editatzeko erabiltzen dituen dispositiboak, nola bere gorputza erabiltzen duten dispositibo sozialak. Dispositibo horiek materialak dira, ekonomikoak, politikoak, kulturalak.

McKenziek eta bere trans* lagun Veronicak, biek gozatu eta sufritzen dute benetako emakumeen imitatzaileria izatea, tranpa bat izatea. Bere egiten dituzte ingelesezko «trap» hitzak dituen zentzu guztiak. Trap, informalki, ahoari esateko modua da, norbaiti isil dadila agintzeko ohiko espresioa da «shut your trap». Aldi berean, hitza «lar femeninoa den mutikoari» ere esan dakioke, gehienetan iraintzeko. Noski, hitzaren adiera ohikoena animaliak edo bestelakoak harrapatzeko gailuarena da, baina hemen tranparen eta hartzailearen areko harremana konplexua da. Norbera tranpa bat izan daiteke, eta horri egiten dio erreferentzia liburu honetan jasotzen den elkarrizketetako batek: feminitatea norberenganatzearen bidez tranpa egiteari, tranpa bat izateari. Norbera tranpa bat da, beraz, baina nori zuzendua? Nor dira tranpa horretan erortzen direnak? Bada, tranpan erortzen direnek, erortzen garenok, gure benetakotasuna negar artean aldarrikatu arren,

badakigu arazoa ez dela trans* emakumeek tranpa egitea, baizik eta guk ere (trans* ez garenok) ez dugula inoiz lortuko tranpatik ateratzerik. Hedwigek, *The Angry Inch* alegiazko glam rock taldean abesten zuen moduan, «ez dago ezberdintasun handirik zubi eta parretaren artean, baina ni ez banintz erdian egongo, zu ez zinateke deus». ⁶

Heldu gara, bada, hitz magikora. Ezberdintasuna. Gai hauen inguruan idazten, pentsatzen edo itzulpengintzan aritu den edonork badaki hitz zaila dela, tranpatia zinez. Ezberdintasunaz ari gara (gutxienez) bi pertsona, gauza edo ideia parez pare jartzean haien artean aurkitu ditzakegun berezitasunetan aldeak seinalatzen ditugunean. Alta, ezberdintasunak sedimentatu egin daitezke: hasieran behaketatik abiatzen da berauen identifikazioa, baina konturatu orduko prozesuak buelta eman eta behaketa apartuak (begiak, gailuak, oharrak) moldatzen ditugu alde zurretik finkatuak ditugun ezberdintasun horien bila. Ahots batzuek diote prozesu hori hasieratik dela horrela, alegia, ezberdintasunak lengoaiaren bidez finkatzen ditugula lehenbizi eta, soilik horren ondoren, errealtatean proiektatu. ⁷

6 «Ain't much of a difference | between a bridge and a wall | Without me right in the middle, babe | you would be nothing at all». *Hedwig And The Angry Inch* John Cameron Mitchell-ek zuzendutako 2001eko filma da, lehenago (eta ondoren) antzerkian ere ibilbide luzea izan duena. Pelikulak rock talde baten peripeziak jarraitzen ditu, bere abeslari transaren pertsonaia zentratuz, Berlineko harresiaren alde batetik bestera igarotzen dena, maitasunaren bila, eta sexu-aldaketa operazio bat tarteko. Irekiera-abestiak Berlineko harresiaren ideiarekin jotzen du, generoen arteko ezberdintasunak nolabait metaforizatuz. Nolabait, mugan dagoen subjektua besteentzako definizio-mekanismoan da, normaltasuna beretzako den hein berean.

7 Filosofiaren esparruan, zalantzarik gabe Judith Butler izan da ideia hau gehien garatu duen autoreetakoa, bereziki *Genero nahasmendua* (Elkar, 2018) eta *Cuerpos que importan* (Paidós, 2002) lanetan. Anne Fausto-Sterling biologo eta historialariak, aldiz, *Cuerpos sexuales* liburuan

Ezberdintasunaren mekanismo kulturala aztertzea interesgarria den arren, askotan eztabaida ixtea ia-ia ezinezkoa bilakatzen da, eta agian ez dago horretarako beharrik, izan ere, filosofiaren eta pentsamendu kritikoaren lanetako bat hori berori da, galdera batzuk erantzutea eta beste batzuk bizirik mantentzea, haien irekitasuna bermatzea. Baina, horretaz gain, pentsamendu kritikoak badu beste zeregin bat ere, errealitatearen eraldaketarekin era zuzenagoan engaiatu eta ezagutza aplikatuagoa, lurreratuagoa eta praxiarekin lotuagoa proposatzea, alegia. Alderdi horretatik, ezberdintasunen izaera ontologikoak edo linguistikoak baino, ezberdintasunaren gaitasun politiko eta ekonomikoek bereganatu beharko luke gure arreta; ezberdintasuna nondik datorren baino zer egiten duen pentsatu beharko genuke. Norabide horretan doaz ekonomia feministaren analisisetako asko, adibidez, genero-ezberdintasunaren sorrera eta finkatzea behar ekonomikoekin lotzen dutenak⁸ edo arrazaren sorrera kapitalaren mugimendu historikoen baitan kokatzen dutenak,⁹ besteak beste.¹⁰ Analisi eta diagnostiko horiek ezberdintasunaz eta, ondorioz, identitateaz harago doazen ekintza politikorako aurrerak zabaltzen dituzte.

Izan ere, gizarte mugimenduetan (edo herri mugimenduetan, nahiago den bezala) ezberdintasunaren ideia estuegi besarkatu dugulakoan nago. Abertzale-

(Melusina, 2006) azaldu zituen zientzia medikoak binarismo sexuala eraikitzeko baliatutako prozesuak.

8 Ikus, argitaletxe honetan bertan Silvia Federiciren hainbat testu edo, *Traficantes de Sueños*-en, Amaia Perez Orozcoren *Subversión feminista de la economía*, beste hainbaten artean.

9 Ikus Arun Kundnaniren *Capitalismo racial* (Cambalache, 2022) edo Assad Haiderren *Identidades mal entendidas* (*Traficantes de Sueños*, 2020).

10 Ikus ere Leslie Feinbergen *Borrokalaria transgeneroak* (Katakarak, 2021).

tasuna proiektu sozial iraultzaileetatik aldentzen den heinean ez da zaila ikustea nola, apur bat sakondu eta «baina zergatik?» galdera laugarren aldiz plazaratzean, abertzale askoren buruan dagoen erantzun bakarra hori den: *ezberdinak garelako*. Edo, *gure artean* hobeto egongo garela uste dugunean, eta elkarrekin egotea eraldaketa-prozesu baino auto-baieztapen prozesu bilakatzen dugunean, fondo-fondoan, esaten ari garena hori da: besteengandik *ezberdinak garelako* gaudela ondo elkarrekin. Edo, proiektu ustez unibertsalen ize-nean, egoteko, egiteko eta izateko oso modu zehatzak ezartzen ditugunean ekintzarako oinarri gisa, mezu berbera darabilgu, ez ahoan, hori ezin delako aho biziz esan, baina bai buruan.

Ez naiz lehenengoa hau esaten, jakina. Adibiderako, Sandra Hardinge esana utzi zuen jada 1993ko zientzia eta feminismoari buruzko testu batean:¹¹ «Desberdintasuna bilgune labainkor eta arriskutsua izan daiteke ikerketa- eta politika-proiektuentzat, eta emantzipatzeko borroka orok beste borroka batzuei dagozkien planak onartu behar ditu, norberarenak balira bezala, arrakasta lortzeko». Egun ez dugu «desberdintasun» hitza erabiltzen kritika horiek egiteko, ohikoagoa dugu identitatean oinarritzen diren politikak zalan-tzan jartzea, eta eskerrak ari garen kritika horretan sakontzen, izan ere, politika egiteko modu hori hain barneratua dugu, non identitatearen politikak kritikatzeke egiten ditugun saiakera eta ekimenak ere erabat identitario bilakatzen diren maiz. Baina hori gertatzen da ez soilik politika egiteko modu posmodernoez kontaminatu gaituztelako, edo politika egiteko ez-dakit-zer-modu-super-purutara bueltatu behar garelako, inoiz identitatetik libro zen politika-moduren bat egon

11 Gaztelera, *Ciencia y feminismo* (Morata, 1996).

izan bailitzan. Hori gertatzen zaigu, hain zuzen ere, politika egiteak ezinbesteko lotura duelako identitatearekin, eta hori aldaezina da, ene uste apalean. Baina, eta hemen dago koska, beste kontu bat da zenbateko garrantzia, zentraltasuna eta protagonismoa ematen zaion identitatearen eraikuntzari gure inguruneke mugimenduetan. Hor bai, badugu eragiterik.

Teresa de Lauretis pentsalariak esan zuen¹² identitatearekin harreman ironikoa izan behar dugula. Mugimendu feministaren kasua aztertzean, feminismoak bere subjektu politikoarekiko harreman ironikoa duela seinalatu zuen. Alde batetik, emakumeen zapalkuntzari aurre egiteko asmoz, subjektuak elkartu eta martxan jartzen dituenean, feminismoak «emakume» subjektua eraikitzen du, une horretan eskura dituen esanahiak mobilizatuz. Feminismoak emakumea egitea ahalbidetzen du, beraz. Baina Monique Wittigek, Karl Marxen testuak eskuan, esango lioke zapalkuntza sistema dela emakume nortasuna sortzen duena eta ez alderantziz.¹³ Lauretisek, irribarrez, erantzungo lioke baietz, horregatik dagoela harreman ironiko bat feminismoaren eta emakumetasunaren artean. Emakumeak, beren egoerari aurre egiteko elkartzen diren bakoitzean, beren praktika politikoaren bidez emakumetasuna bera astindu, zalantzan jarri eta ezagutezin izateraino desmuntatzen dutelako. Feminismoak emakumea *desegiten* du. Esku batekin muntatu, bestearekin desmuntatu, haurrek hondartzan gazteluak eraikitzean bezala, botatzeko gogo biziz.

Esango nuke ezberdintasunaren zentzu hertsiaz edo ontologikoaz baino, diferentziaren izaera ironi-

12 *Diferencias: Etapas de un camino a través del feminismo* (Horas y Horas, 2000).

13 *El pensamiento heterosexual y otros artículos* (Egales, 2006).

ko horretaz ari zaigula irakurri berri dugun McKenzie Warken testua. Alegia, diferentzia ironikoki erabiltzen duela, ez bakarrik Teresa De Lauretisek dioen zentzu politikotik, baina baita baliabide literario gisara ere. Esango nuke ez dela kasualitatea bi elementu horiek (ironia hitz-joko edo baliabide literario gisara eta ironia subjektibotasunaren subertsio mekanismo moduan) testu berean azaltzea hainbat alditan. Eta ez da kasualitatea, era berean, neuk azken esaldiotan ezberdintasun hitza diferentzia hitzarengatik aldatu izana, euskal hiztegiak biak ala biak ontzat ematen dituela probestuz. Diferentziak baduelako, edo izan dezakeelako, beste zentzu berezi bat, lehen aipatu bezala, ez duelako loturarik gauzak berez direnarekin, baizik eta izan daitezkeenarekin.

Identitatearen esentzia desmuntatzen denean zer geratzen da? Agian nik diferentzia deitu dudan hori, ziur aski Warkek beste hitz batez adieraziko lukeena. Idazleak dio, tonu ironiko xamarrean berriz ere, maiz galdetzen diotela «emakumea ala gizona» ote den. Bere erantzuna, orduan, sinplea bezain laburra da: «bai». Eta deigarria da bere hitz aukeraketa, ziur nagoelako burutik pasatu zaiola «ez» erantzutea, «ez bata ez bestea» esanez bezala. Baina erantzun positiboa aukeratu du, identitatearen parafernalía zurrun eta paralizatzailea paretik kentzen dugunean geratzen dena ez delako ukapena, baieztapena baizik.

Horrela, nortasunaren politika neutralizatzeak potentzia askatzen du, eta identitatearekin Warken moduko harreman ironikoa izateak lagundu diezaguke egungo mugimenduoi hainbat dilemarekin lotutako korapiloak askatzen eta, bereziki, beldurrak gainditzeko. Politika egiterakoan oinarri gisara identitateak jarritz gero, ezberdintasunaren parafernalía handitzen dugu,

batzuetan are esperpentora arte, eta jakin badakigu emaitzak ez direla onak izaten: ingurune militanteen gheztizazioa, klase ertaintasuna eta eraldaketa gaitasun urria. Baina hori desmuntatzeak ikara sortzen du, pentsatzen dugulako ukapenean eta hutsik geratuko garela. Eta ez, identitarismo hori askatzean geratzen zaiguna potentzia da. Horregatik da memoria hau iraganetik etorkizunera disparatzen den pentsamendu lerro bat, idazleari hainbeste gustatzen zaizkion *techno* festa legez kanpoko horietako batean bi bonbo kolpeen arteko isiltasunean kolatzen den disonantzia bat, potentzia bat. Egin dezagun dantza berarekin.

Jokin Azpiazu Carballo
Donostia, 2024ko martxoa

ARGITALETXEAREN OHARRA LITERATURA ASKO SARTZEN DIREN LITERATURA BAT

Trabestiak maputxeak bezalakoak ginen: ez genuen irakurtzeko eta idazteko beharrik mundua ulertzeko. Gure irudimena aski zen guretzat sarraskiak hasi ziren arte.

Claudia Rodríguez

XIX. mendean zehar, Europa mendebalde eta erdialdean gizon juduak eskubide zibil eta politiko burgesak eskuratzen joan ziren. Horrekin batera iritsi ziren juduen ahotsak plazara modu nabarmenean, artean, politikan, musikan, literaturan. Ordura arte azpimundu bat izan zena argitan geratu zen. Langile mugimenduaren borrokari esker, Estatuaren eta merkatuaren logika burgesarengatik ala autonomoki antolatuta, emakumeen eta arrazializatutako pertsonen askapena ere nabarmentzen hasi zen. Eskubide zibilak irabazi hala, nahiz eta gizartea kapitalista, patriarkala eta zuria izan, apurka hasi ziren ordura arte baztertutako ahots horiek entzuten, politikan, prentsan, artean, unibertsitateetan. Ordura arte ahotsa izan zutenetako askok menostuko zituzten iritsi berriak. Ezinbestekoak izango ziren, Europa eta Ipar Ameriketako langile mu-

gimenduaren historian juduek, emakumeek, pertsona arrazializatuak ala migratzaileek egindako ekarpenak (1917ko Errusiako proletarioen iraultza martxoaren 8an hasi zuten Petersburgeko emakumeek; 1936ko Espainiako anarkisten iraultza ez litzateke emakumerik gabe; AEBko historian egon diren erakunde eraldatzaile nabarmenenak – IWW eta CPUSA – ez lirateke posible beltzik eta migratzailerik gabe).

Ahots berri horiek literaturara iristearekin batera, ez zituzten ekarpen nominal soilak egin. Hitz egin, idatzi ala abes zezaketen judutartasunetik, emakumetasunetik, belztasunetik ala migratzailearen kondiziotik, baina ez zuten, inondik ere soilik identitate itxi bat ordezkatzeko. Juduek, emakumeek, beltzek, migratzaileek artearen historia aldatu dute, zuzenean beren obrekin ala zeharka – zuriak, gizonek, natiboek asimilatutako formei esker –.

Gauza bera ari da, azken hamarkadetan gertatzen trans idazleekin ere. Eta horrek ekarri dizkigu, irakurle gisa, trans auzia ezagutu eta ulertzeko tresnak, baina bereziki ekarri digu mundu osoa berpentsatzeko aukera bat. Eta osoa diogunean ari gara gorputza eta desira, pertsonen estetika eta munduarena ulertzeaz baina ari gara baita ere, liburu honetan bezala, polizia eta manifestazioak, raveak eta amatasuna, kaleko salmenta eta liburuak, drogak eta haurtzarora, hezkuntza eta klase espektatibak ulertzeaz.

Zentzu horretan, esan dezakegu, trans idazleak (idazle juduak, emakumeak, beltzak, migratzaileak bezala) literatura salbatzera etorri direla, haien formekin, haien gaiekin, mundua adierazteko haien moldeekin, haien artean duten aniztasun guztiarekin. Eta beraz, nahiz eta ia ezinezkoa den zapaldutako talde batetako jendea artista-talde gisa ez ikustea, oso ariketa inte-

resgarria da literaturan disolbatzea Leslie Feinbergen *Mari-mutil handi baten bluesa* (1993), Lucy Santeren *I Heard Her Call My Name* (2024, liburu honekin harreman handia duen lana, bide batez), Claudia Rodríguez-en fanzineak, Jan Morris, Camila Sosa, Miss Major, Nora Eckert. Horrek, ziurrenik, literaturako klasikoe-tan ere desplazamenduak ekarriko dituelako, orain arte, bitxikeria gisa ikusi diren lanekin diren zenbait lan – Gregory Casparian-en *An Anglo-American Alliance* (1906), Irene Clyde-n *Beatrice the Sixteenth* (1909), Virginia Wolf-en *Orlando* (1928) – bestela irakur daitezke, akaso, Ovidioren *Metamorphoseis* eraino.

Iruñea
2024ko apirila

